

BAPATEAN 2006

Grabaketak: Amaia Agirre, Martin Aramendi, Joxe Anjel Aranburu, Estitxu Arozena, Gorka Azkarate, Ion Barrocal, Xabier Begiristain, Unai Elizasu, Oskar Iburguren, Jexux Mari Irazu, Felix Irazustabarrena, Joxema Leitza, Aitor Mendiluze, Ihintza Ostolaza, Naroa Sasieta.

Hautaketa eta transkribaketa: Amaia Agirre eta Martin Aramendi.

Dokumentazioa: Xenpelar Dokumentazio Zentroa

Irizpideak eta koordinazioa: Bertsozale Elkartea.

Doinuen izendapena: Martin Aramendi *Bertso Doinutegian* oinarrituz.

Azken orrazketa: Arkaitz Goikoetxea eta Juanjo Respaldiza.

EHBE

Liburu honek Eusko Jaurlaritzaren laguntza jaso du.

© EUSKAL HERRIKO BERTSOZALE ELKARTEA

© LANKU BERTSO ZERBITZUAK S.L.

Maketazioa: LANKU Bertso Zerbitzuak, S.L.

Argitaratzaileak:

LANKU BERTSO ZERBITZUAK S.L.

Astigarraga bidea, 2, 2.

Oiartzun

BERTSOZALE ELKARTEA

Igeldo pasealekua, 25

Donostia

I.S.B.N.:978-84-935192-6-1

I.S.B.N.:978-84-89283-48-0

L.G.:

AURKIBIDEA

Hitzaurrea	7
Argibideak eta irizpideak	11
Bertso saioen mugimendua	13
Tauletako kontzeptuen azalpena	15
Txapelketa eta sariketak	19
1. Herrialde mailako txapelketak	21
2. Eskolarteko txapelketak	30
3. Bat-bateko sariketak	36
4. Bertsopaper lehiaketak	43
Bat-bateko bertso hautatuak	55
Bat-bateko sariketak	267
Saioen aurkibidea	293
Bertso hautatuak	296
Bertsolarien aurkibidea	297
Izen eta izengoitien deskribapena	299

HITZAURREA

It's not just improvisation. Hori zuen izena Europako Batzordearen gerizpean Bertsozale Elkarteak azken bi urteetan garatutako proiektuak. Hezkuntzaren eta kultur elkartrukearen bidez gazteriaren parte hartzea sustatzea helburu zuen FORTE proiektu zabalagoaren esperientziatako bat izan zen, Londoneko, Berlineko eta Vilniuseko proiektu banarekin batera. *Bapatean 06*: zera, hitzaurrea tokatu zaizu. Dena ez da bat-batekoa. Ez dut modu hobirik asmatu esku artean duzuen atzera begirako bertso ibilbidea abiatzeko eta bide batez makulurena egin diezadan.

Beste herrialdeetako esperientziek musika, antzerkia edo kultura desberdinen bizikidetzaz zuten lan eremu. Gurea bertsolaritza zen, bertso-eskola zehatzago, bertsozaletasunaren eztenak bultzatuta ezagutu duten Euskal Herriko haimbat eta hainbat neska-mutikori bertsoa ez ezik, beste zerbait gehiago emango diena, izan norbere burua estimatzeko, izan harremanak edertzeko. Bertso-eskolak bat-bateko produkzioak eskatzen duen aurrelanketa irudikatzen du. Xalbadorrek edo Lazkao Txikik herriko tabernan izan zuten eskola, eta miretsi zituztenen aurrean kantari hasterako, seguru estrategiaren bat edo beste ikasita zeramatzela. Formalagoak omen gara orain heziketari dagokionez, eta irakaslea zein taldea dira gure aitzinamenduen lekuko leial. Makuluaren ostikoa: egia, bertso-eskolak han eta hemen hedatu zituena, norekin eta alabarekin, bertso-eskoletako loraldi berriaren lekuko denarekin dator kantari orriotan. Katea ez zela eten, eta kate-mailak ugaltzen ari zaizkigula.

Maisuak eta ikasle aurreratuak. Zenbat adibide on, BECen ondorengo lehen urtean. Finalaren abaroan abiatuko gara, beste txapel batenera biltzeko. Zaila da bertso-eskolan lehiari muzin egitea, eta hobe dugu lehiak biltzen dituen baloreak lantzea, gure heziketan aberasgarri bihurtzeraino. Maisuak badira eta maistrak badatoz, nor izateko esperientzia zoragarri horretan estimatzekoa eta beharrezkoa dugulako ispilu aniztasun apur bat. Eskolan nagusi dira neskak adin gazteenetan, eta hortik gora egiteko irrikaz daude. Prest gaude?

Dena ez baita bat-batekoa. Komunikazio estrategien lanketan aintzindaria izan den “Ahozkotatasuna irakaskuntzan” proiektua hartu genuen abiapuntu. Ai! Ostikoa berriz. Arrazoia, hikuntza bizia, zuzena baino jatorragoa, eta egokitik asko duena irakatsi nahi duen euskara irakasle orok hemen du testu antologia zabala, gozatuz hasi eta didaktikaren mirariak ikastetxeetako hiztun berriak prestatzen laguntzeko. Hori baldin bada gaurko euskal eskolaren helburu. Ozen ezin eta argi behar. Elkarteko transmisio batzordean J. Garziaren eta A. Egañaren laguntzaz bertso-eskoletarako aplikazio diseinatzeraz ausartu ginen eta horrela sortu ziren hasieran aipatu proiektuaren baitan Euskal Herriko sei bertso-eskolatan landu ziren bertsofitxak. Batek *Emaidazu* dauka izenburua, Egañak eta Mendiluzek behin Iruñean egindako saioa oinarri hartuta, bertsoaren osotasunean ezberbazko komunikazioak daukan garrantzia eta bete dezakeen funtzioa langai dituen. Gorputz osoak osatzen baitu ahotik ateratako mezua. Pena da liburuko bertsoak osorik ezin ikusia; esan nahi bait, bertsolariaren keinu eta mugimendurik gabe, ziur bainago gutxik imajinatuko dituzuela esku biak gerri ostean geldituta eta buru begiak hodeiartean iltzatuta. Zerbait mugitzen ari da tabladu gainean, irudiaren garaietara egokitu nahian agian, edo besterik gabe hobeto komunikatu nahi delako. Beste askotan, eta Txirritaren garaian bezala, bertsoa hitz soilez ikusgarri bihurtzeko gai dira asko. Bertso ikusteko moduak? Bertso-eskoletan ikasteko moduak dudarik gabe.


Bertsotan ikasi? Majo ikasi dute askok. Plazan izen berriak agertzen jarraitzen dute, eta bertsolari ezagunagoen tartean beti, nago behin baino sarriago joko duzuela azken orrialdeko argibideetara. Ez dira guztiak izango, baina daudenak badira, eta 2006an plaza plaza entzun eta ikusi genituenak gogoratu eta gordetzeko gonbitea egin digute. Bidaia on.

Iñaki Aurrekoetxea

ARGIBIDEAK ETA IRIZPIDEAK

1.- Urtean urteko bat-bateko bertsogintzaren lekuko izateko helburu-arekin Bertsozale Elkarreak urtero argitaratzen duen bertso bilduma da *Bapatean* liburua.

2.- *Bapatean* liburua 600 bertso inguru jaso ohi ditu, 1995ekoak izan ezik, hura 300 bertsokoa izan baitzen; 2006eko honek 649 bertso dakartza.

3.- Azkeneko urteetan liburua 2 KD gehigarri osatu bada ere, oraingoan entzungarri dauden bertso sortak www.bertsozale.com webgunean jarriko dira. Horretarako, liburuan, musika ikur bat () itsatsi zaie entzungarri dauden bertso sortei.

4.- Liburu hau antologia bat dela esan daiteke hein batean, baina ez bere osotasunean. Liburuaren korpus nagusiak, herritarrek antolatutako bertso-saioetan bat-batean kantatutako bertsoak jasotzen ditu, bertsolariak eta horien saio kopuruak kontuan harturik.

5.- Jakin badakigu egiten diren bertso-saio guztien informazioa biltzea ia ezinezkoa dela, baina ziur gaude ehuneko handi batean jasota dagoela. Besterik da grabatzen dena: 2006ean 209 saio grabatu dira entzuteko euskarrian, 314 bat ordu guztira.

6.- 2006. urtean, bat-batean kantatutako bertsoak hartu dira kontuan liburu hau egiterakoan, txapelketetakoak izan ezik. Bertso-paperean alorrekorik ere ez da jaso, baina bai bat-bateko gazte sariketetakoak.

7.- *Bat-bateko bertsoak idatziz emateko irizpideak* (Bertsozale Elkarrea. 2004) hartu dira oinarri bertsoak transkribatzerakoan; eta bertan aholkatzen den modura jaso dira kokapen irizpideak. Doinuak, berriz, J. Dorronsorok bildutako *Bertso Doinutegiaren* arabera izendatu dira.

8.- Xenpelar Dokumentazio Zentroan jasotako informazioa, ikus-entzunezko grabazioak eta horien fitxak baliatu dira liburu hau egiteko.

9.- Hau guztia gauzatzeko oso garrantzizkoa izan da erakunde hauek emandako diru laguntza: Eusko Jaurlaritzaren Kultura Saileko Hizkuntza Politikarako Sailordetza, Gipuzkoako Foru Aldundiaren Euskararen Normalkuntzarako Zuzendaritza Nagusia eta Bizkaiko Foru Aldundiaren Euskara Sustapenerako Zuzendaritza

Bertsozale Elkarte

Bertso-saioen mugimendua

2006KO BERTSO-SAIOAK

PROBINTZIAK	Jaialdiak	Plaza librekoak	Lagun artekoak	Sari- ketak	Hitzal- diak	Ekital- dipekoak	Bereziak	Txapel- ketak	Didak- tikoak	Gainera- koak	Denera
Gipuzkoa	86	157	281	61	18	42	121	5	21	13	805
Bizkaia	73	63	124	15	12	21	62	28	0	10	408
Nafarroa	10	22	68	8	3	11	17	6	0	0	145
Araba	0	8	14	4	4	2	11	5	5	0	63
Iparraldea	8	3	16	4	3	22	5	6	22	5	94
Denera	187	253	503	92	40	98	216	50	48	28	1515

GIPUZKOA	Jaialdiak	Plaza librekoak	Lagun artekoak	Sari- ketak	Hitzal- diak	Ekital- dipekoak	Bereziak	Txapel- ketak	Didak- tikoak	Gainera- koak	Denera
Bidasoa Beherea	0	13	10	1	2	1	2	0	3	0	32
Debarrena	4	21	21	4	0	1	10	0	0	2	63
Debagoiena	8	10	26	2	0	2	10	1	1	0	60
Donostialdea	16	30	78	4	9	11	23	1	5	1	178
Errenterialdea	4	12	13	21	2	7	23	1	8	3	94
Goierri	17	28	52	8	4	9	15	1	0	1	135
Tolosaldea	20	22	49	0	0	5	14	0	3	3	116
Urola Kosta	17	21	32	21	1	6	24	1	1	3	127
Denera	86	157	281	61	18	42	121	5	21	13	805

BIZKAIA	Jaialdia	Plaza	Lagun	Sari-	Hitzal-	Ekital-	Bereziak	Txapel-	Didak-	Gainera-	Guztira
	librekoak	arte	arte	ketak	diak	dipekoak		ketak	tikoak	koak	
Arratia Nerbioi	5	2	5	1	0	1	1	2	0	0	17
Bilbo Handia	39	19	42	4	5	6	25	10	0	2	152
Durungaldea	12	20	23	6	2	10	16	4	0	2	95
Enkarterri	1	0	7	0	0	0	1	0	0	0	9
Busturialdea	2	5	8	1	3	0	7	4	0	4	34
Lea-Artibai	10	17	20	3	1	4	10	7	0	1	73
Plentzia Mungia	4	0	19	0	1	0	2	1	0	1	28
Denera	73	63	124	15	12	21	62	28	0	10	408

NAFARROA	Jaialdia	Plaza	Lagun	Sari-	Hitzal-	Ekital-	Bereziak	Txapel-	Didak-	Gainera-	Guztira
	librekoak	arte	arte	ketak	diak	dipekoak		ketak	tikoak	koak	
Bidasoa	3	14	29	8	1	4	6	1	0	0	66
Erdalgunea	4	2	13	0	2	2	6	1	0	0	30
Mendebaldea	3	6	23	0	0	5	5	4	0	0	46
Pirinioak	0	0	3	0	0	0	0	0	0	0	3
Denera	10	22	68	8	3	11	17	6	0	0	144

ARABA	Jaialdia	Plaza	Lagun	Sari-	Hitzal-	Ekital-	Bereziak	Txapel-	Didak-	Gainera-	Guztira
	librekoak	arte	arte	ketak	diak	dipekoak		ketak	tikoak	koak	
Aiaraldea	0	1	1	0	0	0	1	1	0	0	4
Arabako Errioxa	0	0	0	0	0	0	0	0	2	0	2
Zuia-Gorbeialdea	3	2	8	3	0	0	1	1	2	0	20
Añana	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0
Kantauri arabarra	0	3	2	0	0	0	3	0	0	0	8
Lautada	7	2	3	1	4	2	6	3	1	0	29
Mendialdea	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0
Denera	10	8	14	4	4	2	11	5	5	0	63

IPAR EUSKAL HERRIA	Jaialdia	Plaza	Lagun	Sari-	Hitzal-	Ekital-	Bereziak	Txapel-	Didak-	Gainera-	Guztira
	librekoak	arte	arte	ketak	diak	dipekoak		ketak	tikoak	koak	
BAB	4	1	5	1	2	6	1	2	9	3	34
BNafarroa – Zuberoa	1	1	5	2	0	11	3	1	6	0	30
Lapurdi barne	3	1	6	1	1	5	1	3	7	2	30
Denera	8	3	16	4	3	22	5	6	22	5	94

Tauletako kontzeptuen azalpena

- Jaialdia: lau bertsolari edo gehiago eta gaiak emanda.
- Plaza librekoak: bi-hiru bertsolari, librean, plazan, jaietan...
- Lagun artekoak: jatordu giroan edo antzekoetan gehienbat.
- Txapelketa: Bat-batekoak: Euskal Herrikoak, herrialdeetakoak edo eskolarteoak.
- Sariketak: Bat-batekoak: elkarrekin, udalek antolatutako edo motibo jakin baten inguruan jokatzeko direnak.
- Hitzaldiak: Bertsolaritza gai izanik edozein markotan antolatutako.
- Ekitaldipekoak: Bertsotarako ez den ekitaldian egindako saioak (omenaldi, ezkontza...)
- Bereziak: Saio musikatuak, esperimentalak eta bertso jarriekin eginak.
- Gainerakoak: Aurreko sailetan sartzen ez direnak.

Herrialdeak:

Herrialdeetako sailkapen berritua, azken urteetan, euskararen azterketa soziolinguistikoko egiteko erabiltzen den sailkapenean oinarritu da.

GIPUZKOA

- Bidasoa Beherea: Hondarribia eta Irun.
- Debabarrena: Deba, Eibar, Elgoibar, Mutriku, Soraluze, Mendaro eta Gatzaga.
- Debagoiena: Arrasate, Antzuola, Bergara, Elgeta, Leintz-Gatzaga, Errigoiti, Oñati, Eskoriatza eta Aretxabaleta.
- Donostialdea: Lasarte-Oria, Donostia, Astigarraga, Hernani, Andoain, Urnieta eta Usurbil.
- Errenterialdea: Pasaia, Lezo, Errenteria eta Oiartzun.

- Goierrri: Mutiloa, Ordizia, Beasain, Lazkao, Itsasondo, Idiazabal, Zegama, Urretxu, Zumarraga, Legazpi, Segura, Gabiria, Altzaga, Zaldibia, Zerain, Ataun, Olaberria...
- Tolosaldea: Aduna, Tolosa, Alkiza, Amezketza, Altzo, Anoeta, Bidegoian, Ibarra, Larraul, Ikaztegieta, Lizartza, Zizurkil, Villabona, Irura, Albiztur, Asteasu, Abaltzisketa...
- Urola Kosta: Azkoitia, Azpeitia, Zestoa, Beizama, Getaria, Orio, Zarautz, Zumaia, Aizarnazabal, Errezil eta Aia.

BIZKAIA

- Arratia-Nerbioi: Areatza, Artea, Dima, Igorre, Zeanuri, Zeberio, Orozko, Otxandio, Ugao-Miraballes, Arakaldo, Arantzazu, Ubide, Urduña...
- Bilbo Handia: Arrigorriaga, Berango, Muskiz, Bilbo, Deio, Erandio, Galdakao, Getxo, Larrabetzu, Leioa, Lezama, Portugalete, Sondika, Etxebarri, Loiu, Basauri...
- Durungaldea: Durango, Abadiño, Berriz, Elorrio, Mallabia, Ermua, Iurreta, Mañaria, Igorre, Amorebieta-Etxano, Zaldibar, Zornotza, Atxondo, Lemoa...
- Enkarterri: Galdames, Balmaseda, Zalla, Gordexola, Gueñes, Karrantza, Lanestosa, Sopena...
- Busturialdea: Arratzu, Bermeo, Gernika-Lumo, Muxika, Nabarniz, Busturia, Ea, Elantxobe, Ereño, Gerrikaitz, Sukarrieta, Morga, Ibarrangelua, Kortezubi, Forua...
- Lea-Artibai: Amoroto, Berriatua, Lekeitio, Markina-Xemein, Ondarroa, Aulesti, Mendexa, Ispaster, Gizaburuaga, Etxebarria, Munitibar-Arbatzegi, Gerrikaitz.
- Plentzia-Mungia: Gatika, Mungia, Plentzia, Sopelana, Urduliz, Lemoiz, Gorliz, Bakio, Laukiz, Gamiz-Fika, Arrieta, Barrika, Fruiz, Maruri-Jatabe, Meñaka.

NAFARROA

- Bidasoa: Oitz, Donamaria, Ituren, Eratsun, Beintza-Labaien, Arizkun, Elizondo, Anitz, Arantza, Bera, Etxalar, Lesaka, Amaiur, Doneztebe, Irurita, Igantzi...
- Erdalgunea: Iruñea, Barañain, Burlata, Berriozar, Zizur Nagusia, Tuteria, Antsoain, Arre, Etxauri, Atarrabia, Gares, Noain, Tafalla, Lizarra, Uxue...
- Mendebaldea: Altsasu, Urdiain, Bakaiku, Etxarri-Aranatz, Arbizu, Lizarraga, Lakuntza, Uhartte Arakil, Etxarren, Gartzaron, Leitza, Areso, Goizueta, Arano, Uitz, Lekunberri...
- Pirinioak: Garralda, Orreaga, Orbaizeta, Aribe, Hiriberri, Izaba, Erronkari, Burgi, Agoitz, Zangoza, Zubiri, Erro, Eugi, Otsagi...

ARABA

- Aiaraldea: Izarra, Aiala, Arrespaldiza eta Artziniega.
- Errioxa Arabarra: Bilar, Oion, Eskuernaga, Elciego, Kripan, Labastida, Lantziego, Laguardia, Lapuebla de Labarca...
- Gorbeia inguruak: Aramaio, Legutiano, Zigoitia, Urkabustaiz eta Zuia.
- Ibarrak: Zañbrana, Añana, Armiñon, Berantevilla, Kuartango, Lantarón...
- Kantauri arabarra: Amurrio, Artziega, Aiara, Llodio eta Okondo.
- Lautada: Agurain, Gasteiz, Alegria-Dulantzi, Iruraiz-Gauna, Asparrena, Barrundia, Iruña Oka, Donemiliaga, Burgelu...
- Mendialdea: Arraia-Maestu, Bernedo, Kanpezu, Harana, Lagran eta Urizaharra.

IPARRALDEA

- BAB: Baiona, Angelu eta Biarritz.
- Nafarroa Beherea-Zuberoa: Jatsu, Irulegi, Baigorri, Sohüta, Amikuze, Donaixti, Urdañarbe, Donibane-Garazi, Aiziritze, Ortzaize, Izpura, Arroza, Banka...
- Lapurdi barnealdea: Hendaia, Urruña, Ziburu, Sara, Azkaine, Senpere, Uztaritze, Ezpeleta, Kanbo, Itsasu, Basuarri, Hazparne, Bidarra, Lekorne, Larresoro...

**TXAPELKETAK,
SARIKETAK,
LEHIAKETAK...**

TXAPELKETAK, SARIKETAK, LEHIAKETAK...

1.- Herrialde mailako txapelketa

Arabako V. Bertsolari Txapelketa

Txapelketa hiru fasetan egin da: kanporaketak, finalaurrekoak eta finala.

Kanporaketak:

2006-04-01 Laudioko Tunel jatetxea

Andere Arriolabengoa

Felipe Zelaieta

Iosu Ormaetxea

Joseba Apaolaza

Rikardo Gonzalez de Durana

Ruben Sanchez

Mikel Herran

2006-04-08 Aramaioko elkarte

Alberto Martinez "Beitto"

Hodei Lopez de Arkaute

Iker Agirre

Izar Mendiguren

Lander Meaza

Xabier Lasa

Ainara Balantzategi

Finalaurreak:

2006-05-07 Aguraingo Harresi aretoa

Zigor Enbeita
Asier Otamendi
Manex Agirre
Rikardo Gonzalez de Durana
Izar Mendiguren
Felipe Zelaieta

2006-05-13 Dulantziko areto berria

Juan Mari Juaristi
Oihane Perea
Iñaki Viñaspre
Ruben Sanchez
Alberto Martinez “Beitto”
Andere Arriolabengoa

Finala:

2006-05-27 Gasteizko Jesus Guridi musika eskola

Zigor Enbeita (txapelduna)
Oihane Perea
Asier Otamendi
Iñaki Viñaspre
Manex Agirre
Juan Mari Juaristi

Epai-mahaia: Ekaitz Elorriaga, Felix Irazustabarrena,
Mirari Azula, Patxi Aizpurua.

Gai-jartzaileak: Irati Lotina, Lierni Altuna, Naroa Sasieta.

Antolatzailea: Arabako Bertsozale Elkarte

Bizkaiko X. Bertsolari Txapelketa

Txapelketa lau fasetan jokatu da: lehenik, udaberrian, Bizkaiko eskualdeetako bertsolari txapelketak egin dira, eta ondoren, udazkenean, kanporaketak, finalaurrekoak eta finala.

Bizkaiko eskualdeetako Txapelketak

Arratialeko IV. Bertsolari txapelketa

2006-05-06 Zeanuriko kultur etxean

Eñaut Intxaurrea
Jabier Olibares
Iñaki Iturrioz
Jurek Ziemkiewicz

Bilboko IV. Bertsolari Txapelketa

2006-05-21 Muxika Gorozikako frontoian

Amaia Uribe
Iker Belaustegi
Ander Oleaga
Onintza Enbeita
Ander Elortegi
Ibon Ajuriagogeaskoa

Busturialdeko IV. Bertsolari Txapelketa

2006-06-02 Bilbo Santutxuko AEKn

Urtzi Urrutikoetxea
Oihana Bartra
Miren Galarza
Miren Zabaljauregi

Durangaldeko IV. Bertsolari Txapelketa

2006-05-27 Otxandioko frontoian

Eneko Abasolo
Gorka Lazkano
Garikoitz Sarriugarte
Beñat Ugartetxea
Jon Unanue
Amaia Aurrekoetxea

Enkarterrietako II. Bertsolari Txapelketa

2006-06-03 Ortuellako musika eskolan

Jon Barrocal
Aingeru Basterretxea
Jokin Castaños

Ipar-Uribeko IV. Bertsolari Txapelketa

2006-05-20 Getxo Areetako kultur etxean

Peru Vidal
Ekaitz Larrazabal
Miren Ibarluzea
Olatz Ibarluzea
Miren Loizaga
Itsaso Paia

Lea-Artibaiko Bertsolari Txapelketa

2006-05-19 Mendexako frontoian

Joseba Artza
Gorka Ostolaza
Lander Ibarluzea
Lander Gabixola
Joseba Goienola
Aitor Goti

Bizkaiko Bertsolari Txapelketa 2006

Kanporaketak:

2006-10-08 Zamudioko kiroldegian

Gorka Estolaza
Miren Ibarluzea
Beñat Ugartetxea
Eneko Abasolo
Amaia Uribe
Mikel Galarza

2006-10-15 Sestaoko Musika etxean

Iñaki Iturrioz
Joseba Artza
Ander Elortegi
Itsaso Paia
Lander Ibarluzea
Peru Vidal

2006-10-22 Arriagako Lonbo aretoan

Oihana Bartra
Jabier Olibares
Urtzi Urrutikoetxea
Jon Barrocal
Jon Unanue
Olatz Ibarluzea

2006-10-29 Igorreko kultur etxean

Gorka Lazkano
Joseba Goienola
Onintza Enbeita
Iker Belaustegi
Ekaitz Larrazabal
Eñaut Intxaurreaga

2006-11-05 Aulestiko pilotalekuan

Oihane Enbeita
Ibon Ajuriagoegaskoa
Juanjo Respaldiza
Matxalen Zabaljauregi
Lander Gabixol
Ander Oleaga

Finalurrekoak:

2006-11-19 Gernika-Lumoko Jai-Alai kiroldegian

Arkaitz Estiballes
Xabier Paya
Gorka Ostolaza
Joseba Artza
Oihana Bartra
Juanjo Respaldiza

2006-11-26 Getxoko Getxo antzokian

Iratxe Ibarra
Onintza Enbeita
Fredri Paia
Oihane Enbeita
Joseba Goienola
Iñaki Iturrioz

2006-12-03 Durangoko Ezkurdi kiroldegian

Ibon Ajuriagoegaskoa
Etxahun Lekue
Igor Muniategi
Beñat Ugartetxea
Miren Ibarluzea
Gorka Lazkano

Finala:

2006-12-16 Bilboko Euskalduna Jauregian

Xabier Paya (txapelduna)
Etxahun Lekue
Iratxe Ibarra
Arkaitz Estiballes
Onintza Enbeita
Fredri Paia
Ibon Ajuriagoegaskoa
Igor Muniategi

Epaimahaia:

Abel Muniategi, Ainhoa Munitxa, Asier Ibaibarriaga,
Gaizka Amondarain, Iñaki Aurrekoetxea, Josu
Arroyo, Josu Telleria, Mirari Azula, Moises Enbeita.

Gai-jartzailleak:

Aitor Gorostiza, Bernardo Mandaluniz, Josu
Esnaola, Leire Aurrekoetxea, Leire Bilbao,
Maite Berriozabal, Oihane Unzalu, Saioa Amuriza,
Zuriñe Iarritu.

Antolatzailea:

Bizkaiko Bertsozale Elkarte.

Babesleak:

Bizkaiko Foru Aldundia eta BBK.

XXXVI. Nafarroako Bertsolari Txapelketa

Txapelketa bi fasetan burutu da: finalurrekoak eta finala.

Finalurrekoak:

2006-03-05 Etxarri-Aranazko kultur etxea

Estitxu Arozena

Erika Lagoma

Julio Soto

Juan Mari Lopez

Joseba Beltza

Oskar Estanga

2006-03-11 Leitzako zinema

Joxe Juan Zubieta “Etxabe”

Julen Zelaieta

Diego Riaño

Bittor Elizagoien

Migel Mari Elozegi

Oier Lakuntza

2006-03-18 Atarrabiako kultur etxea

Xabier Silveira

Jon Barberena

Iñigo Olaetxea

Iñigo Ibarra

Jon Elizetxe

Iñaki Aleman

Finala:

2006-04-01 Elizondoko Lur dantzalekua

Xabier Silveira (txapelduna)

Estitxu Arozena

Joxe Juan Zubieta “Etxabe”

Julen Zelaieta

Erika Lagoma

Jon Barberena

Julio Soto

Iñigo Olaetxea

Epai-mahaia: Gaizka Sarasola, Jon Abril, Joxe Urroz,
Mikel Bujanda, Saioa Mitxelena.

Gai-jartzaileak: Alaitz Rekondo, Josu Etxanobe, Manu Legarra.

Antolatzailea: Nafarroako Bertsozale Elkarte.

Babeslea: Nafarroako Gobernuko Vianako Printzea
erakundea.

Laguntzaile Nagusia: Nafarroako Aurrezki Kutxa.

2.- Eskolarteko txapelketak

Urtero bezala udaberrian jokatu ziren eskolarteko txapelketak, lehenik herrialdez herrialde eta gero Euskal Herri mailakoa. Hona emaitza:

Arabako Eskolarteko X. Txapelketa

Finala: Gaztetxoak:

2006-06-03 Gasteiz

Mikel Serrato (txapelduna)

Xabi Igoa (bigarren)

Gillermo Vegas

Antton Carrero

Gazteak:

2006-05-26 Amurrio

Izar Mendiguren (txapelduna)

Joseba Apaolaza (bigarren)

Ekaitz Samaniego

Xabier Lasa

Antolatzaileak: Arabako Bertsozale Elkarte eta Arabako Ikastolen Elkarte.

Bizkaiko eskolarteko XXIII. Txapelketa

Kanporaketak:

14 urte artekoak:

2006-05-19 Bermeo

14-16 urte artekoak:

2006-05-22 Markina-Xemein

17-18 urte artekoak:

2006-05-23 Ondarrua

Finala:

2006-06-02 Bilbo El Carmen Aretoa

Gaztetxoak:

Nerea Ibarzabal (txapelduna)

Imanol Uria (bigarren)

Nagore Beitia

Jone Ansotegi

Elene Lejarzegi

Ane Etxebarria

Gazteak:

Miren Amuriza (txapelduna)

Arrate Illaro (bigarren)

Itxaso Paia

Enea Pinillos

Jone Uria

Beñat Romero

Amaia Aurrekoetxea

Eñaut Uruburu

Antolatzailea:

Bizkaiko Ikastolen Elkarte

Gipuzkoako XXVI. Txapelketa

Kanporaketak:

2006-05-05 Hernani

2006-05-12 Zarautz

2006-05-19 Eskoriatza

2006-05-26 Urretxu

Finala:

2006-06-02 Oiartzun

Gaztetxoak:

Zumarraga-Urretxuko taldea (txapelduna)

Amaia Iturrioz Mikel Iturrioz, Eduarne

Plazaola, Iker Azpeitia,

Jon Ander Campos

Errezilgo taldea (Nagore Arzallus, Izaro
Zinkunegi, Eneritz Eizmendi)
Asteasuko taldea (Haritz Mujika, Ane Labaka,
Unai Mendizabal)
Alegia-Usurbilgo taldea (Ander Izeta, Ugaitz
Agirre, Imanol Irazustabarrena)

Gazteak: Oier Aipzurua (txapelduna)
Maialen Valverde (bigarren)
Asier Azpiroz
Arnaitz Lasarte
Ainhoa Mujika
Unai Gaztelumendi
Jokin Sudupe

Gai-jartzaile eta aurkezle: Andoni Egaña

Antolatzailea: Gipuzkoako Ikastolen Elkarte

Iparaldeko Eskolarteko XIII. Txapelketa

Kanporaketak: Gaztetxoak:

2006-05-15 Hendaia
2006-05-16 Donibane Garazi
2006-05-19 Miarritze

Finala:

Gaztetxoak:

2006-05-15 Miarritze
Kanbo A: Paxkal Iriart, Txomin Elozegi, Ugo
Carrere, Eztitxu Oillarburu.
Kanbo B: Maiana Irigoien, Ximun Cazaubon,
Antton Curutchet.
Garazi B: Bixente Luku, Mattin Luku, Iban
Falxa.
Hendaia C: Ilazki Otergo, Maddi Ane Txoperena,
Oneka Jauregi, Ihintza Palacin.

Gai-jartzaile eta aurkezlea: Karlos Aizpurua.

Epai-mahaia: Aitor Sarasua, Aitor Renteria, Eneko Bidegain.
Gazteak:

2006-05-27 Itsasu
Maddalen Arzallus (txapelduna)
Patxi Iriart (bigarren)
Kristiñe Txoperena
Elorri Ameztoi
Ekhi Erremundegi
Odei Barroso
Mizel Mateo
Maindi Murua
Gillen Hiribarren

Gai-jartzaile eta aurkezlea: Eneritz Zabaleta

Epai-mahaia: Beñat Soule, Eneko Bidegain, Mixe Itzaina.

Antolatzailea: Iparraldeko Bertsularien Lagunak.

Nafarroako Eskolarteko XXX. Txapelketa

Finala: 2006-05-27 Larraintza

Gaztetxoak:

Ioar Tainta (txapelduna)
Julen Baleztena
Josu Sanjurjo
Adur Iantzi
Gorka Sanjurjo
Ane Intxausti
Ixiar Baztarrika
Amaia Elizagoien
Haizea Beruete

Haizea Huarte
Amaia Baldes
Ametz Laskibar

Gai-jartzaile eta aurkezle: Joxema Leitza

Epai-mahaia: Ekintza Landa, Jon Barberena, Erika Lagoma.

Gazteak:

Alazne Untxalo (txapelduna)
Ekaitz Astiz
Aitor Arangoa
Aimar Karrika
Xabi Salvador
Ilazki Aleman
Garazi Taberna
Iker Gorosterrazu
Unai Artieda

Gai-jartzaile eta aurkezle: Alaitz Rekondo

Epai-mahaia: Gaizka Sarasola, Ekintza Landa.

Antolatzailea: Nafarroako Bertsozale Elkarte

XVII. Euskal Herriko Eskolarteko Txapelketa

Finala: 2006-06-24 Altsasu

Gaztetxoak:

Txomin Elozegi (txapelduna)
Nerea Ibarzabal
Imanol Uria
Amaia Iturrioz
Ane Labaka
Ximun Cazaubon

Mattin Luku
Bixente Luku
Josu Sanjurjo
Ioar Tainta
Gillen Negeloua
Johaiñe Sarraillet

Gazteak: Arrate Illaro (txapelduna)

Miren Amuriza
Oier Aizpurua
Hodei Iruretagoiena
Patxi Iriart
Mizel Mateo
Alazne Untxalo
Aitor Arangoa
Maddalen Arzallus

Gai-jartzailea: Estitxu Fernandez

Epai-mahaia: Joseba Santxo, Antton Kazabon, Eneko Bidegain, Erik Etxar, Jon Abril, Ekaitz Elorriaga. Idazkaria: Aitor Sarriegi.

Antolatzailea: Ikastolen Elkarte Bertsozale Elkartearen laguntzarekin.

3. Bat-bateko bertso sariketak:

V. Abra saria

Herria: Algorta (Getxo)
Antolatzailea: Algortako Bertsolari eskola
Mailak: Bakarra
Finala: 2006-02-25
Finalistak: Beñat Gaztelumendi (lehenengo),
Xumai Murua (bigarren), Alaia Martin,
Julio Soto, Beñat Vidal, Ibai Guridi.

IX. Argi Berri saria

Herria: Ordizia
Antolatzailea: Argi Berri elkarte
Mailak: Bakarra
Finala: 2006-03-25
Finalistak: Andere Arriolabengoa, Manu Goiogana,
Iban Urdangarin, Ander Lizarralde Jimeno,
Julio Soto, Aitor Urbieto.

Lehen biak Osinalde sarira pasa ziren: Iban Urdangarin eta Ander Lizarralde.

IX. Axari saria

Herria: Idiazabal
Antolatzailea: Axari elkarte
Mailak: Bakarra
Finala: 2006-03-10
Finalistak: Beñat Gaztelumendi, Arkaitz Oiartzabal,
Ibai Guridi, Erika Lagoma, Iker Agirre,
Eneritz Zabaleta.

Lehen biak Osinalde sarira pasa ziren: Beñat Gaztelumendi eta Arkaitz Oiartzabal.

VII. Aztiri saria

Herria: Gabiria
Antolatzailea: Aztiri elkarte
Mailak: Bakarra
Finala: 2006-03-18
Finalistak: Iñaki Iturrioz, Aitzol Barandiaran, Agin Rezola,
Xumai Murua, Alaia Martin, Unai Gijarro.

Lehen biak Osinalde sarira pasa ziren: Aitzol Barandiaran eta Alaia Martin.

XIV. BBK saria

Herria: Bizkaia
Antolatzailea: BBK, BBE, BIE
Mailak: A maila: 18 urte arte (1986ean jaiok barruan)
B maila: 18-23 urte (1981ean jaiok barruan)

Kanporaketak: 2006-03-07 Durango
2006-03-09 Bilbo
2006-03-14 Igorre
2006-03-15 Derio
2006-03-21 Arratzu
2006-03-22 Markina-Xemein

Finala: 2006-03-12 Bilbo

Sailkapena: 1. Durangaldea
2. Ipar-Uribe

Finalistak: Durangaldea:
A: Eñaut Uruburu, Xabi, Solaguren,
Miren Amuriza.
B: Ibai Guridi, Jon Unanue, Gorka Lazkano.

Ipar-Uribe:
A: Peru Vidal, Jone Uribe, Arrate Illaro.
B: Itxaso Paia, Iker Gangoiti, Beñat Vidal.

XI. Berritzu saria

Herria: Berriatua
Antolatzailea: Herriko bertsozale taldea
Mailak: Bakarra
Finala: 2006-09-15
Finalistak: Maddalen Arzallus (lehenengo), Odei Iruretagoiena (bigarren), Garikoitz Salcedo, Xabier Iturraspe, Aitor Beitia, Arrate Illaro, Izar Mendiguren, Alazne Untxalo.

IV. Bertsotan Bagare Bertsolari Gazteen Arabako saria

Herria: Araba
Antolatzailea: Arabako Bertsozale Elkarte
Mailak: Bakarra
Kanporaketak: 2006-11-24 Aramaio
2006-12-02 Zaitegi
2006-12-09 Urbina
Finala: 2006-12-14 Gasteiz
Finalistak: Jokin Labayen (lehenengo), Iñaki Viñaspre (bigarren), Manex Agirre, Egoitz Zelaia, Jon Elizetxe eta Enaitz Alustiza.

I. Erniarraitz saria

Herria: Azkoitia, Azpeitia, Zestua eta Zumaia.
Antolatzailea: Erniarraitz Bertsozale Elkarte
Mailak: Bakarra
Kanporaketak: 2006-02-10 Azkoitia
2006-02-17 Zumaia
2006-02-18 Errezil
Finala: 2006-02-24 Azpeitia
Finalistak: Iñaki Apalategi (lehengo), Gaztelumendi (bigarren), Alaia Martin, Beñat Alaitz Sarasola, Beñat Lizaso, Unai Muñoa.

II. Hernandorena saria

Herria: Lapurdi, Behe-nafarroa eta Zuberoa
Mailak: Bakarra
Kanporaketak: 2006-11-11 Larresoro
2006-11-11 Baigorri
2006-11-25 Maule
2006-12-02 Donibane Lohitzun
Finala: 2006-12-09 Aiherra
Finalistak: Joxe Anjel Aranburu, Maddalen Arzallus, Miren Amuriza, Xumai Murua, Beñat Gaztelumendi (lehenengo), Ander Lizarralde.

VIII. Iurretako Txapelketa

Herria: Iurreta
Antolatzailea: Iurretako bertso-eskola
Mailak: Bakarra
Finalistak: Txomin Magdalena, Peru Magdalena, Gorka Lazkano, Eneko Abasolo (txapelduna)

XXX. Lizardi saria

Herria: Zarautz
Antolatzailea: Udala
Mailak: Bakarra
Kanporaketak: 2006-08-28 Zarautz
2006-08-30 Zarautz
Finala: 2006-09-01 Zarautz
Finalistak: Ander Lizarralde Jimeno (lehenengo), Agin Rezola (bigarren), Xumai Murua, Unai Muñoa, Oier Aizpurua, Iban Urdangarin.

II. Mariano Izeta saria

Herria: Elizondo
Antolatzailea: Nafarroako Bertsozale Elkarte
Mailak: Bakarra
Finala: 2006-11-15
Finalistak: Oier Lakuntza (lehenengo), Jon Elizetxe (bigarren), Alazne Untxalo, Iker Iriarte, Garazi Taberna, Iker Gorosterrazu.

Oiartzungo txapelketa (binaka)

Herria: Oiartzun
Mailak: Bakarra
Kanporaketak: 2006-04-28
2006-05-06
2006-05-13
2006-05-19
Finala: 2006-05-27
Finalistak: Alaia Martin eta Karlos Aizpurua (lehengo),
Manu Goiogana eta Sustrai Colina,
Mirari Martiarena eta Jon Martin, Oroitz
Azurmendi eta Arkaitz Goikoetxea.

XXXIV. Osinalde saria

Herria: Gabiria
Mailak: Bakarra
Kanporaketak: 2006-03-25 Argi Berri
2006-03-10 Axari
2006-03-18 Aztiri
Finala: 2006-04-08
Finalistak: Beñat Gaztelumendi, Arkaitz Oiartzabal, Aitzol

Barandiaran, Alaia Martin, Iban Urdangarin
(lehenengo), Ander Lizarralde

V. Plazatik gaztetxera saria

Herria: Gipuzkoa
Antolatzailea: Mutriku eta Deba-beheko bertso eskolak,
Ondarroa, Deba, Soraluze eta Mutrikuko
gaztetxeak
Mailak: Bakarra
Kanporaketak: 2006-05-05 Ondarrua
2006-05-12 Deba
2006-05-19 Soraluze
Finala: 2006-05-27 Mutriku
Finalistak: Gorka Ostolaza (lehenengo), Beñat
Gaztelumendi (bigarren), Alaia Martin, Agin
Rezola, Joseba Gojenola, Gorka Labaien.

VIII. Txantxangorri saria (binaka)

Herria: Erreterria
Antolatzailea: Ereintza elkatea. Xenpelar Bertso-eskola
Mailak: Bakarra
Kanporaketak: 2006-07-08
Finala: 2006-07-08
Finalistak: Iker Goñi eta Manex Mujika(lehenengo), Josu
Oiartzabal eta Haritz Casabal (bigarren),
Ion Ansa eta Gorka Etxeberria, Aitor Albistur eta
Asier Etxeberria.

XIX. Xenpelar saria

Herria: Errenteria
Antolatzailea: Ereintza elkatea
Mailak: Bakarra
Kanporaketak: 2006-12-01
2006-12-05
Finala: 2006-12-08
Finalistak: Uxue Alberdi (lehenengo), Arkaitz Oiartzabal
(bigarren), Unai Muñoa, Ander Lizarralde,
Oihana Bartra, Beñat Gaztelumendi.

III. Urretxu-Zumarragako txapelketa

Herria: Urretxu eta Zumarraga
Antolatzailea: Urretxu eta Zumarragako bertso-eskola
Mailak: Bakarra
Kanporaketak: 2006-03-04
2006-03-10
2006-03-11
Finala: 2006-03-31
Sailkapena: Mihiluze taldea: Manex Mantxola, Asier
Azurmendi, Gorka Azkarate (lehenengo)
Beteranoak taldea: Iker Otegi, Juanjo Aranburu,
Joseba Segurola
Lasatarrak: Eli Lasa, Antton Fernandez,
Uxue Fernandez

VIII. Zumaiako txapelketa

Herria: Zumaia
Antolatzailea: Zumaiako bertso-eskola
Mailak: Bakarra
Finala: 2006-02-28
Finalistak: Maialen Velarde (lehenengo), Jose Joakin
Aizpurua (bigarren), Markel Peñalba,
Jokin Gijarro.

4. - Bertsopaper Lehiaketak

X. Arabako eskolarteko bertsolari txapelketa: bertso-paperak

Herria: Araba
Antolatzailea: Arabako Bertsozale Elkarte / Arabako Ikastolen
Elkatea
Mailak: A maila: 14 urte arte
Sarituak: A maila: 1. Xabi Igoa
2. Guillermo Vegas

XIX. Arrasate lehiaketa: bertso-paperak

Herria: Arrasate
Antolatzailea: AED
Mailak: A: 1992an jaiok
B: 1990-91an jaiok
c: 1989an jaiok
Sarituak: A: 1. Garazi Barberan “Maite zaitut”
B: 1. Amaia Sánchez “Hormaz beste aldera”
C: Hutsik

XXI. Basarri saria

Herria: Zarautz
Antolatzailea: Zarauzko udala. Euskara zerbitzua
Mailak: Bakarra
Sarituak: 1. Xabier Etxeberria “Uda giroan”
2. Mikel Arrillaga “Merkadilloa”

XXII. Bizkaiko eskolarteko txapelketa: bertso idatziak

Herria:	Bilbo
Antolatzailea:	Bizkaiko Ikastolen elkarte
Mailak:	A: LH 5. maila B: LH 6. maila C: DBH 1. maila D: DBH 2. maila E: DBH 3. maila F: DBH 4. mailatik 18 urtera
Sarituak:	A: 1. Xabier Olaskoaga 2. Klara Haiden B: 1. Nerea Ibarzabal 2. Alazne Arrazola C: 1. Imanol Uria 2. Elene Lejarzegi D: 1. Aiora Elortza 2. Oihane Garmendia E: 1. Xabier Iturraspe 2. Paula Leniz F: 1. Eñaut Uruburu 2. Miren Amuriza

XXVI. Gipuzkoako eskolarteko bertsolari txapelketa

Herria:	Donostia
Antolatzailea:	Gipuzkoako Ikastolen Elkarte
Mailak:	A: LH 2. zikloa B: LH 3. zikloa C: DB lehen zikloa: 12-14 urte bitarte D: DBH bigarren zikloa eta A DBHO: 14-18 urte bitarte

Sarituak:	A: 1. Olatz Leturiaga B: 1. Maddi Labaka C: 1. Amaia Iturrioz D: 1. Mikel Olaizola
-----------	---

VIII. Ibon Zavala bertso-paper lehiaketa

Herria:	Errenteria
Antolatzailea:	Lau Haizetara. Xenpelar bertso eskola
Mailak:	Bakarra
Sarituak:	1. Ane Labaka “Hurremarte Txurdi” 2. Amaia Iturrioz “Bazoaz berriro” 3. Aitzol Pikabea “Mundu krudel honetan sortua”

XIII. Iparraldeko bertsu paper lehiaketa

Herria:	Euskal Herriko Iparraldea
Antolatzailea:	Iparraldeko Bertsozale Elkarte
Mailak:	A: 3. urtea B: 4. urtea C: 5. urtea
Sarituak:	A: Txomin Bellecave, Gorka Rospide, Iban Eyherabide, Alaia Jauregi, Milène Trounday, Ihintza Etxeleku. B: Miren Oillarburu, Mikel Inda, Mikela Axuarena, Zuriñe Etxebarria, Elixia Aizpurua, Ana Buret. C: Allande Etxeberri, Ainhoa Lopez-Manterola, Joana Dagorret, Fanny Etxepare, Panpi Lasserre, Paul Moldarrigane.

Itziarko bertso-paper lehiaketa

Herria: Itziar (Deba)
Antolatzailea: Itziarko bertso-eskola eta Andutz Biltokia
Mailak: Bakarra
Sartuak: 1. Rikardo Idiakez ; 1. Josu Izagirre

III. Iurretako ipuin eta bertso paper lehiaketa

Herria: Iurreta
Antolatzailea: Udala
Mailak: A: BH 3. eta 4. maila
B: 17-18 urte
Sartuak: A : 1. Garazi Sarrionaindia “Nire maitea”
B: 1. 1. Eñaut Uruburu “Ama, zergatik...?”

IX. Joanito Dorronsoro bertsopaper lehiaketa

Herria: Zumaia
Antolatzailea: Zumaiko bertso-eskola
Mailak: Bakarra
Sartuak: 1. Eneko Dorronsoro
2. Maddi Gallastegi

XVII. Koldo Mitxelena literatur sariak: bertso-paperak

Herria: Donostia
Antolatzailea: Donostiako udalaren euskara patronatua
Mailak: B : 8-10 urte
C: 10-12 urte
D: 12-14 urte
E: 14-16 urte
F: 16-18 urte

Sartuak: B: Iñaki Gartzandia
C: Maddi Labaka
D: Ane Labaka
E: Kepa Matxain
F: Karmele Mitxelena

XIV. Lazkao Txiki bertso paper lehiaketa

Herria: Ordizia
Antolatzailea: Argi Berri elkarte
Mailak: A: 13 urte arte
B: 14-18 urte
C: 1984an edo aurretik jaiotakoentzat

Sartuak: A: 1. Amaia Iturrioz
2. Ane Agirre
3. Jone Alberdi
B: 1. Karmele Mitxelena “Nola biziko naiz orain”
2. Oier Aizpurua “Formulatzen”
3. Mikel Olaziola “Akabo!”,
Ainhoa Mujika “Askatasuna”
C: 1. Hutsik
2. Hutsik
3. Nikolas Zendoia “Basatxoritxo”

XVIII. Nafarroko eskolarteko bertsolari txapelketa

Herria: Nafarroa
Antolatzailea: Nafarroako Bertsozale Elkartea
Mailak: A maila: LH 3. eta 4.
B maila: LH 5. eta 6.
C maila: DBH 1. eta 2.
D maila: DBH 3. eta 4.

Sartuak: A maila: 1. Martxel Intxausti
2. Xavier Mayordomo

- B maila: 1. Haizea Beruete
2. Julen Arozena
C maila: 1. Maialen Belarra
2. Inaxio Perales
D maila: 1. Joseba Ezkurdia
2. Iker Gorosterrazu

IV. Neguko bertso-paper lehiaketa

- Herria: Beasain
Antolatzailea: Arrano Kultur Elkartea / Bertsoaren Beasaingo lagunak
Mailak: A maila: 2005ean 18 urte baino gutxiago
B maila: 2005ean 18 urte edo gehiago
Sartuak: A maila: 1. Silvia Etxaniz
B maila: 1. Iñaki Gurrutxaga eta Uxue Alberdi (bien artean banatu zen)

VI. Okelar saria

- Herria: Mutriku
Antolatzailea: Mutrikuko bertso-eskola
Mailak: A gazteak: 16 urte arte
B helduak: 16 urtetik gora
Sartuak: A: 1. Amaia Iturriotz “Marea beltza”
2. Ainhoa Mujika “Maitasunagatik”
B: 1. Josu Goikoetxea “Irizar eta Txanbelaren saioa. Urretxu 1963”
2. Alaia Martin ·Aldatuta”

III. Sabino Arana bertso paperen lehiaketa

- Herria: Bilbo
Antolatzailea: Sabino Arana Kultur Elkargoa
Mailak: A: LH 2. zikloa 3. eta 4. mailak
B: LH 3. zikloa 5. eta 6. mailak
C: DBH 1. ETA 2.
D: DBH 3.A ETA 4.A
Sartuak: A: 1. Paul Iruretagoiena
2. Bertol Murua
3. Oier Begiristain
B: 1. Jone Alberdi
2. Maialen Akizu
3. Manex Lazkano
C: 1. Elene Lejarzegi
2. Amaia Iturrioz
3. Imanol Irazustabarrena
D: 1. Xabier Iturraspe
2. Eneritz Arzallus
3. Izaro Zinkunegi

XII. San Andres bertso-paper lehiaketa

- Herria: Eibar
Antolatzailea: ... eta Kitto! Euskara taldea
Mailak: A: 14 urte arte
B: 14 urtetik aurrera
Sartuak: A: 1. Xabier Zubeldia
2. Ione Begiristain
B: 1. Ion Zubizarreta
2. Asier Garde

VIII. San Antontxu bertso-paper lehiaketa

Herria: Mungia
Antolatzailea: Mungiako Taket Bertsolaritza Alkartea
Mailak: A: Gazteak (18 urte arte)
B: Helduak (18 urtetik gora)
Sartuak: A: 1. Ainhoa Mujika
2. Aritz Garin
3. Karmele Mitxelena
B: 1. Joseba Santxo
2. Aitor Albistur
3. Abel Enbeita

XXII. Urretxu eta Zumarragako bertso-paper lehiaketa

Herria: Urretxu eta Zumarraga
Antolatzailea: Urretxu eta Zumarragako udalak
Mailak: A maila: L.H. 1. eta 2. maila
B maila: DBH 1. eta 2. maila
C maila: DBH 3. eta 4. maila
Sartuak: A : 1. Ane Agirre
2. Iker Azpeitia
B : 1. Amaia Iturrioz
2. Maialen Igartua
C: 1. Manex Mantxola
2. Maialen Torres

XV. Xabier Munibe Bertso Paper lehiaketa

Herria: Azkoitia
Antolatzailea: Udaberri eta Indarlan guraso elkarte
Mailak: A maila: DHB lehen zikloa
B maila: DHB bigarren zikloa

Sartuak: A: 1. Ainhoa Mujika “Baina zergatik?”
2. Jokin Sudupe “Alkohola eta abiadura”
3. Nekane Zinkunegi “Mutil bat gustuko, berarekin primeran moldatzen naiz, baina lagun eran soilik”
B: 1. Izaro Zinkunegi “Gerran familia eta herri-tarrak galdutako haurra naiz”
2. Maialen Artetxe “Bizitza lore baten petaloen artean”
3. Eneritz Eizmendi “Gazteegia zela ni osrtu eta utzi ninduen amari”

XVII. Zapirain anaiak bertso-paper lehiaketa

Herria: Errenteria
Antolatzailea: Lau Haizetara. Xenpelar bertso eskola
Mailak: Bakarra
Sartuak: 1. Nikolas Zendoia “MAndiolako Eskola”
2. Manu Goigana “Zuria zuritu”



*Bertso Eguna
(Donostia, 2006-01-28)
Argazkilaria: A. Elozegi*

**BAT-BATEKO
BERTSO HAUTATUAK**

AMURRIO (2006-01-07)

*Bertsolariak: A. Arzallus, A. Egaña, I. Elortza,
J. Maia, M. Lujanbio, A. Mendiluze, S. Colina
eta U. Iturriaga.*

Gai-emailea: Naroa Sasieta.

Amurrioko Udalak eta Aiarako Bertso Eskolak antolatutako saioa. Antzokian izan zen, ilunabarreko zazpitan. Giro bikaina sortu zen; erabat bete zen antzokia, 335 lagun bertaratu ziren, eta saio umoretsua eta atsegina atera zen.

U. Iturriaga-A. Egaña 

Gaia: Maritxuk eta Bartolok urteak daramatzate elkarrekin ezkondua, baina aspaldian Bartolo kezkatuta dago: Maritxu gero eta sarriago joaten da iturrira, eta gero eta gehiago tardatzen du buelta egiten.

Neurria: zortziko txikia

Doinua: *Dama gazte xarmant bat*

A. Egaña: Astean hiru aldiz
 gutxi gorabehera
 zoaz ene Maritxu
 iturri aldera.
 Zuzen egingo dizut
 daukadan galdera:
 ostadarra ikusten
 egoten al zera? (bis)

U. Iturriaga: Zuk badaukazu duda
baduzu marmarra;
nik ostera iturrira
sarri joan beharra.
Asko daude begira
okertzen dan marra
nik ez dut begiratzen
neu naz ostadarra. (bis)

A. Egaña: Beltza soilik dakusat
nik begiratuta
lehengo kolorea zuk
erretiratuta;
ur bila zertarako?
Mekauen Kalkuta
Etxean gaseosa
edaten degu-ta! (bis)

U. Iturriaga: Ta iturrian zer dagon
nork daki? Auskalo!
Ze pinutatik jausi
zinen zu Bartolo?
Argiñanok esango
lizuke kokolo
egon zaitetz mehe ta
jango duzula lo. (bis)

A. Egaña: Aspaldi ezkonduak
neretzat kaltea;
zure gogoko beti
haruntza joatea.
Asko aldatu zera
Maritxu maitea:
ezer ez esateko
ze borondatea! (bis)

U. Iturriaga: Azalduko dizut ta
zu lasaitu zaite:
lehen nere gogo denak
ohi zenitun bete;
hemendik ta handik heldu
gerri ta gerripe
ta orain ardo txuria
baino ez duzu maite! (bis)

A. Egaña: Hargatikan egin nahi
al didazu burla?
Ez naiz garai bateko
Bartolo mardula;
akatsa det sekula
ez nula kalkula
zuk'e ardo txuria
maitatzen dezula. (bis)

U. Iturriaga: Bartolo etor zaitte
senar onan gisan;
alde egin nahi didazu
zuk halako prisan!
Hor esan duzun hori
txerrikeri bat zan;
Bartolinen aurrean
holakoik ez esan! (bis)

ZUMAIA (2006-01-07)

*Bertsolariak: M. Arzallus, M. Amuriza,
U. Gijarro, B. Lizaso, U. Gaztelumendi
eta J. Zelaieta.*

Gai-emailea: Maddi Gallastegi.

Bertsolari gazteen saio hau Aita Mari zineman izan zen, gaueko hamar eta erdietan hasita. Aretoan entzule ugari, eta bertsotan egiteko giro goxoa.

U. Gijarro-U. Gaztelumendi

Gaia: Bata añorgarra da eta bestea, berriz, oikiarra; herri handiago bateko auzotarrak biak ere. Hala ere, zer aldarrikatua izango duzue.

Neurria: zortziko handia

Doinua: *Haize hegoak hurbiltzen ditu*

U. Gaztelumendi: Biak auzotar jaio ginen ta
biak auzotarrak berez.
Ni Donostian barruan edo
senti naiteke aldrebes;
ñoñostiarren herritik azkar
egin nahiko nuke ihes...
donostiarra izan naiteke
baina ñoñostiarra ez. (bis)

U. Gijarro: Herri txikiak sentitu ohi du
barrutik ta bihotzean;
beti egoten da pixkat aparte
eta harago ertzean.
Baina gauza bat eskatu nahi det
hasi nahi nuke eskean:
ez ditezela soilik gogora
inpuestoak kobratzean. (bis)

U. Gaztelumendi: Inpuestoekin badaukate bai
herriek mila aitzaki
ta kontra egin nahiko genuke
kontra bai baina egoki:
donostiarren aurkakoa naiz
ta hala izan naiz beti;
mugetan gertu egonagatik
nortasunean urruti (bis).

U. Gijarro: Hori esaten gabilta Unai
hainbat eta hainbat urte
herri txikiak beregan badu
ez dakit zenbat bertute;
neri burura hori etorri zait
ta kantatu dezu zuk'e:
herri txikiek haundiek baino
nortasun gehiago dute (bis).

U. Gaztelumendi: Gaur kantatzera etorria naiz
honaino Zumaiaraino.
Donostiarren buruan dago
nik ez dakit zenbat laino;
handik urruti joan nahi nuke
ahal dan urrutien, koño!
etxekeago bainaiz Zumaian
Donosti aldean baino (bis).

U. Gijarro: Pozgarria da leku denetan
bat gustora egotia;
pozgarria da herri txikiak
izatea bere tokia.
Arrazoi dezu eta alaitu
kantua ta bekokia
mapa denetan azal daitezen
Añorga eta Oikia (bis).

M. Amuriza-J. Zelaieta

Gaia: Miren Julenen jarraitzaile sutsua da. Gutun piloa idatzi dizkio,
baina erantzunik ez sekula. Gaur aurrez aurre daude. Zer ote du
Julenek?

Neurria: zortziko txikia
Doinua: *Kantatzera nijoa*

M. Amuriza: Edozer eingo neuke
mutil honen truke
nafarrek euren gauza
berezia dute;
igual karta guztiak
bidean galdute...
Nik zure kamioian
ibili nahi nuke (bis).

J. Zelaieta: Abiadura haundiko
trena zara benpin!¹
Hona etorri zara
kriston oihuekin;
nere kamioiari
laudorioka ekin
baina nere forroari
hozkarik ez egin (bis).

M. Amuriza: Zu ikusi ta pozik
jartzen naiz behinepin
langilea bazara
ta bertsolari fin;
nahita be kamioian
gure neuke ekin
ta gero frenazorik
ezingo da egin (bis).

J. Zelaieta: Eguraldi txarra da
gaur egin duena;
beraz ez montatzea
ez al da onena?
Fans kontua xeble
ez ote da dena?
Zu nirea eta ni
zure aitarena (bis).

M. Amuriza: Aita nahi omen duzu
alabaren orde
baina ez naiz isilduko
ni betiko legez.
Kamioian sartuta
gozo eta errez
arrankau barik gauza
asko egin leikez (bis).

J. Zelaieta: Nik bertan gauza pila
egina sarritan;
zu geldituko zera
horren inbiditan;
nere kamioi zaharra
ahantz zazu, utikan!
Martxa atrasa baitu
izorraturikan (bis).

(1) Behinik behin.

M. Amuriza: Hasi aurretik horri
ez diozu emongo;
lasai egon mutiko
nik ez zaitut jango!
Konformatu nirekin
holan zagoz ondo;
nire aita ez da zure
kamioira joango (bis).

B. Lizaso

Gaia: Abizena zer da, zama, ohorea, laguntza?

Neurria: zortziko handia

Doinua: *Haurtxo txikia negarrez dago I*

“Zu Lizasoren semea zera?”
sarri jendea galdezka;
orduan harro sentitu ohi naiz
ta egoten naiz barrezka.
Bertsotarako laguntzak ere
etxean ditut gainezka
baina kantuan hasitakoan
pisua besterik ez da.

Aita, aitona eta hirurok
sarri kantuan oparo;
tarteka behintzat deitzen didate
hortatik gustora nago.
Konparazio batzuk ordea
sentitzen naute arraro;
ahal dela Beñat izango nahi nuke
Lizaso baino lehenago.

OLARTZUN (2006-01-08)

*Bertsolariak: I. Elortza, U. Iturriaga, J. Maia,
J. Martin, X. Silveira, A. Egaña, M. Lujanbio eta
A. Arzallus.*

Gai-emailea: Saroi Jauregi.

Azken urteetan bezala Euskal presoak Euskal Herrira lelopean antolatutako jaialdia. Arratsaldeko seietan hasi zen, Elorsoro kiroldegia erabat beterik zela. Jende asko kanpoan geratu zen sarrerarik gabe.

M. Lujanbio-A. Arzallus 

Gaia: Erosketetan askotan egiten duzue topo. Harategian sartu zarete. Amets lehenengo eta Maialen ondoren. Beti bezala presaka dabilela, eta ea aurreratzen utziko ote diozun galdetu dizu Maialenek.

Neurria: zortziko txikia

Doinua: *Maritxu nora zoaz I*

A. Arzallus: Laugarren aldia da
elkartzen garela
eta berriro ere
ez hartu txartela.
Aurrera pasatu nahi
bestetan bezela;
barka zaidazu baina
zuk dezu gibela!

M. Lujanbio: Gibela jarri zaio
beira gibelari...
Urte askotan erosten
ari eta ari.
Eta zuk zenbat urte?
Juxtu hogeita bi;
errespeto pixka bat
esperientziari.

A. Arzallus: Ez nun hola espero
zure erantzunik
ulertu gabe zaude
lehen neri entzunik.
Gibela atzea da
Hendaian jardunik
atzean gelditzeko
esan nahi nizun nik.

M. Lujanbio: Nahiz ta euskera kontun
zabiltzan hain bapo
ez zera hain abila
harategirako.
Nik hemen egiten det
beti gastu asko;
zuk *jamon york* xerra bat
bokadillorako.

A. Arzallus: Pauso hoiekin ez nazazu
mesedez zapaldu!
Hitz bidea nahi dizut
bazpa're zabaldu:
kamiseta zahar hori
al zenuen saldu?
Ta semeak praktika
aprobatu al du?

M. Lujanbio: Neri kuerda ematen
aitzen zera usu:
“Zer moduz familia
seme ta lehengusu...?”
Esperientzidunari
hainbeste abusu...
olkiak² ordainetan
jasoko dituzu!

A. Arzallus: Oraintxe eroria
naiz ni disgustoan
nahiz eta ikasia
nintzen iazkoan;
olkiak ordainetan
eta ni sustoan;
aizu horrek zer esan
nahi du Gipuzkoan?

M. Lujanbio: Utz denbora pasatzen
ta ikusiko duzu
ustekabeen zerbait
iritsiko zaizu.
Harakin, mutiko hau
serbi zazu aizu;
behi eroena eman
baldin badaukazu!

A. Arzallus: Kaixo harakin jauna
zertan jarri teman?
Gaur gibel bat eraman
nahiko nuke hegan;
ea ba aproposa
topatu ahal dedan...
Beste ipurterre honi
rebista bat eman!

M. Lujanbio: Gibela eskatu du
ez balu bezala!
Nik badakit lehen ere
sobrako daukala.
Hurrengoan bihotza
proba zazu hala;
jakizu jandakotik
egiten generala.

A. Arzallus: Beti umore txarrez
beti inbiditan
ta ez didazu joko
berriz adarrikan!
Begira egongo naiz
bihar etxetikan
ta hona sartuko naiz
zure atzetikan.

M. Lujanbio: Bai baino oain ez hasi
hain azkar joaten;
aprobetxau behar zaitut
halakoren baten:
enkargutako poltsak
ze karga daukaten...
Mesedez lagun zazu
batzuk eramaten.

A. Arzallus: Boltsa hoiek lurtean
utzi berehala
eta hemen ahaztuko
balitu ojala!
Sei bertso bota ditu
lehen bost bezala...
Nik uste nuen kriston
presa zeneukala.

M. Lujanbio: Lehengusu ta famili
dena zera mintza
pasatzen ez uztea
zen zure baldintza.
Mukizu hauek danak
igualtsu dabilta:
beti berak behar du
azkeneko hitza!

X. Silveira-J. Martin

Gaia: Gaurko gazteek beste pertsona batzuk ezagutzeko arazoak
dituztela-eta ligatzeko ikastaroak ematen hasi dira. Zuek
horietako batean egin duzue topo.

Neurria: zortziko handia

Doinua: *Santa Barbara zure bizitza I*

X. Silveira: Nahiz parrandara sarri atera
lagunik ezin dut egin
eta gauero ezin aurkitu
zein den nere printze urdin.
Nere ama bai poztuko dela
enteratzean azkenin
bertsoez gaindi lagun direla
Silveira eta Jon Martin. (bis)

J. Martin: Ligatu nahi ta ezin ligatu
hala gabiltza beti gu
ta zure ama izan liteke
lehen urratsen testigu.
Bi aldiz gaude batera kantuz³
hurrengoarekin hiru;
nor bait bilatu nahi genuen ta
Sarioiek⁴ bilatu digu! (bis)

(3) Oiarzungo jaialdi honetan bertan, Jon Martin eta Xabier Silveira elkarrekin ari-
tuak ziren kantuan beste bertsoaldi batean.

(4) Gai-emailea da Saroi Jauregi.

X. Silveira: Ahaztu gaitezen izanez gero eduki ditugun pikez zeren aurrera begiratzea esperantza da gutxinez. Nik zorionsu egingo zaitut nere indar guttiz maitez; joder Egaña aizkolaria⁵ baldin bada, zergatik ez? (bis)

J. Martin: Mutil hau ez naiz ziur ote den bere buruaren jabe baina ikasgaiak izango ditu makina bat nobedade; nork ematen dit beldur gehiago jarriz gero parez pare Egaña aizkora batekin edo Silveira ta ezer gabe? (bis)

X. Silveira: Bueno ze kristo? Egin behar da lehen baino lehen aukeratu maitasuna ez baita guztia maiz plazerra da pekatu. Ni ez naiz neska baina naiz *la ostia* eta ez zaitez kejatu! Ta zu gutxinez ez zera neska zertan gehiago eskatu? (bis)

J. Martin: Egia esan beste zeozer espero nuen hemen ba! Baina holaxe izango nuen eguneko gai zerrenda. Hartu dezadan arnasa sakon ta saiatu nadin benga! Silveirarekin lortu ezkerdozeinekin lortzen da. (bis)

X. Silveira: Begira ez da errexa hola maitasuna gogortzea: *a punto* jarri aurretik ez da komeni egoskortzea. Ez naiz urrea, ez naiz zilarra gehien-gehienez brontzea... Ba bai begira zein errexa den edozeinekin lortzea. (bis)

J. Martin: Ez da urrea egia esan ta noski ez da zilarra; brontzea ere zalantzan nago gehienez ere txatarra. Nahiz ta mutila basatia den zikina eta zatarra nere etxean edukiko dut amaestratu beharra. (bis)

A. Arzallus

Gaia: Azken egunotan hainbat ebakuntza egin dizkiote Ariel Sharon Israelgo presidenteari. Ebakuntza horietan parte hartu duen zirujauetako bat zara.

Neurria: zazpi puntukoa

Doinua: *Neska zaharrak eta apaizak I / Historiaren hari zahar horri*

Orain artean lanean ari nintzen lasai eta goxo eta orain estu oso: lehen ministroa etorri zaigu nunbait ez dago eroso. (bis) Burmuina dauka odol jario gaitz txarren batek eraso; hori du bere arazo ta nola dauden mediku denak orain larrituta oso okerragoa da pentsatzea lehen ez zegoela gaixo. (bis)

(5) Aurreko gai batean Egañak aizkolariaren itxura zuela aipatu da.

Esterminatu nahi izan duzu
palestinarren arraza
balkoitik hain da erraza!
Kolonoz bete nahi zenituen
Zisjordania ta Gaza. (bis)
Intifada hau zuk sortu duzu
zuregatik odol jasa;
bi mila hildako pasa.
Zu ikusita nere aurrean
pentsatu dut neure kasa:
tiranoari ere iristen
zaiola azken arnasa. (bis)

Korbatadunak ere badabiltz
inguru hontan pasaian
odol jario usaian;
ministro batzuk atze horretan
beste hainbat hautagai han. (bis)
Mundu osoko argazkilari
pila bat hona talaian;
mila notizi jarraian....
Zenbat mediku egongo gara
gu operazio mahaietan
palestinaren bat odol jario
etortzen zaigun garaian? (bis)



Zumaiako bertso astea
(Zumaia, 2006-01-07)

Argazkilaria: Zumaiako Bertso Eskola

AZKOITIA (2006-01-14)

*Bertsolariak: A. Mendiluze, A. Egaña,
A. Arzallus, J. Maia, J. Uranga eta A. Agirre.*

Gai-emailea: Gorka Tolosa.

A. Egaña-A. Agirre

Gaia: Andoni eskolarteko txapelketetan aurkezle gisa ibiltzen da. Jo dezagun orain saio batean gaudela eta Amaiak bertan kantatu duela. Saioa bukatzean Andonik Amaia neskatoa ikusi du negar zotinka. Kezkatuta, Andoni berarengana joan da.

Neurria: zortziko handia

Doinua: *Haurtxo txikia negarrez dago I*

A. Egaña: Txapelketa bat gogorra dela
denok zenekiten aurrez;
burua jantzi behar txapelaz
txapela letra ta urrez.
Bertsotan txukun aritu zera
nahiz ez zeran jardun errez;
ene Amaia esan zaidazu
zergatik zauden negarrez.

A. Agirre: Zure ahotik nahiz eta entzun aritu naizela errez sekretu txiki bat det barruan ta askatuko det nekez: zuri begira eta zu berdin orain nago irriparrez; nere idoloa erakartzeko soilik ari naiz negarrez.

A. Egaña: Era hontako sorpresa batzuk izaten dira bizitzan; nere bidea jarraitu nahian hasia bertsoaritzan. Saiatu zaitez zeure nortasun ta ezaugarrien gerizan argi ta garbi esango dizut: idolorikan ez izan.

A. Agirre: Hamaika urte ta izarra naiz amonaren arabera. Harro igo naiz baina zapuztu samar jeitsi naiz behera. Nere burua ote eredu? Hori da nere galdera; igual zurea izan naiteke hemendik hoge urtera.

A. Egaña: Zeure buruai zergatik jarri horrenbeste konpromisu? Bertso urratsak oraindik ere asko geratzen zaizkizu. Egin irripar eta malkoak sukatu itzazu aizu baina kleenexik ez det ekarri *buffak* balio al dizu?⁶

A. Agirre: Bai bai ekarri esku artean estutzeko indarrean; zure firma bat eta bi musu nago eskatu beharrean. Zorion zantzu bat baino ez dago orain nere negarrean denen inbidi izango bainaiz ikaskideen aurrean.

A. Egaña: Hara noraino iritsi geran gabiltzala gabiltzala; tori firma bat, tori bi musu izan nahi det zerbitzala. Orain badaukat ospea eta orain badaukat itzala baina ez ahaztu zure adinean holakoxea nintzala.

A. Agirre: Hain sentibera eta hain goxo zergatik zera ipini? Lortu nahi nuna eskura daukat besterik ez zait komeni. Zure hitzekin, laudoriokin zenbat egi zenbat mami... Zentzu denetan zera txapeldun eskerrik asko Andoni.

J. Uranga

Gaia: Zu, Jokin, epaitegietan egona zara, eta zigor handi samarra jarri izan dizute. Badirudi orain gauza baretu dela, baina pertsona batek nola bizitzen ditu egun horiek?

Neurria: sei puntuko berdina
Doinua: *Gure herri ttiki hau da*

(6) Andoni Egañak lepoan *buffa* zeraman.

J. Uranga: Jentuza txarra ugari
dagoelako lurrean
nik'e deklaratu nuen
epailearen aurrean;
ta hamaika kezka izan
nuen ilunabarrean
baina ezin nuen etsi
horren modu koldarrean;
nahiz justiziak askotan
hartzen gaitun indarrean
beti gu indartzen gera
bera indartu beharrean.(bis)

Epaitegira bidea
zigun norbaitek erreztu
ta bere kaka guztia
behar izan gendun erreztu⁷.
Baina kanpoko jendeak
zenbat gintuen babestu...
Sinetsi egin dezaket
baina ezin nuen amestu.
Egiz esaten dizuet
ez nengoela hain estu;
kontzientzia lasai duenak
ezeren beldurrik ez du.(bis)

Guk ezer ez gendun egin
ez ginen portatu grabe;
guri bai egin ziguten
batere lotsarik gabe.
Beti zurikeriatan
isilik eta suabe
jende horren jokabidea
noski ez da nobedade!
Gure aurretik handikan
paseak asko badaude
ta zoritxarrez gu ez gera
izango azkenak ere.(bis)

ALEGIA (2006-01-21)

Bertsolariak: Amaia Agirre eta Aitor Mendiluze.

Gai-emailea: Beñat Garmendia

Zazpi astoren gainean bertso-eskolak antolatuta bertso-afaria izan zen Intxurre Elkartearen. Bertsolariak luze aritu ziren, bai librean eta baita gaiak emanda ere. Bertan afaltzen ari ziren bertso-eskolako gazteek ere izan zuten bertsotan aritzeko parada.

Neurria: hamarreko txikia

Doinua: *Lagundurikan danoi I*

A. Mendiluze: Geurea bota degu
eta ez besteena
baina nola kontatu
ulertzen ez dena?
Zerbaitegatik hustu
nahi degu barrena
ta egia galdetzea
Amaia onena:
zer moduz pasa dezu
lehengo udazkena?

(7) Erreztatu, erratzez garbitu.

A. Agirre: Txapelketai zor zaio
mila errespeto;
bi hilabete inguru
beraren menpeko;
estu-estu neuzkan nik
aurre ta atzeko
nola guztia neukan
han irabazteko...
Nahi baino okerrago ta
nahi baino hobeto.

A. Mendiluze: Betiko esaera
zerorren ahotan
lehenago ere entzun
deguna askotan.
Benga ba busti zaitte
Amaia gaurko hontan;
ondo aritu zera
ederki bertsotan
eta zer eman dizu
ta ze preziotan?

A. Agirre: Ni triste nagoenik
ez zazula uste;
nahiz finalak baduen
hamaika bertute
nahiz horren ametsetan
pasa hainbat urte
nik gauza onenekin
nago ta ez uste
jenden animoekin
gelditu nahi nuke.

A. Mendiluze: Zeinen gozo motza den
animoarena!
Errez irabazi ta
errez galtzen dena;
zeuretik jardun behar
berriro hurrena
zeuk arakatu behar
zerorren barrena
zure iritzia da
balio duena.

A. Agirre: Ba bai erabat lasai
daukat nik barrena
beste aukera bat heldu
liteke hurrena.
Badet barruan poza
zergatik ez? Pena;
zu zirikatzen 're
badaukat baimena:
zuk ere ez zenun lortu
nahi zenuen dena.

A. Mendiluze: Animoso zegoen
nere ingurua;
askok ikusten zuen
postu segurua;
nik astindu nahi nuen
neronen burua
ta nahiz ta latza izan
lortzeko modua
nik gutxinez bete det
nere helburua.

A. Agirre: Zure helburua zan
oso printzipala
eta bete zenuen
nola edo hala;
baina helburu soila
ote zen finala?
Erronka bota zenun
bertan berehala;
behintzat kanpotik zera
Egañan iguala.

A. Mendiluze: Ilean bai baina ez det
barrenean faltik;
serio esaten det
bistan da zergatik.
Han hiru on kantatu
nituen badakit
eta lasai atera
nintzen ni bertatik;
merezi zuen haiek
kantatzeagatik.

A. Agirre: Zu ahalegindu zinan
ahal zendun guztian
eta asmatu zendun
modu egokian
nahiz zimurrak nabarmen
izan bekokian
tatxa handirik ez da
zure aitzakian
lau urte barru nahi det
zu zeunden tokian.



*San Antontxu jaiak
(Mungia, 2006-01-15)*

Argazkia: Mungiako Taket bertso alkartea

DONOSTIA (2006-01-28)

Bertsolariak: Jesus Alberdi Egileor, Gregorio Larrañaga Mañukorta, K. Lizaso, T. Garmendia, I. Lazkao, J. Agirre, J. Lizaso, P. Etxeberria, J.L. Gorrotxategi, J. Azpillaga.

Gai-emaileak: I. Esoain, X. Sukia eta G. Tolosa.⁸
Aurkezlea: Laxaro Azkune.

Bertsozale Elkartek urtero antolatzen duen Bertso Egunekeki-taldi nagusia. Kursalen izan zen, arratsaldeko seietan, mila eta bostehun lagun inguru bertan zirela.

Mañukorta-K. Lizaso-T. Garmendia 

Gaia: Konta iezaiguzue zer nola izaten ziren garai batean auzolaneko kontuak.

Neurria: zortziko handia
Doinua: *Hasiko al naiz hasiko al naiz*

Mañukorta: Gure garaian izan genduzen
egundoko historiak;
laixa⁹ horrekin ereiten ziran
artuak eta gariak
ta horren ondoren sortutzen ziran
basarriko janariak;
amairik ere ez zun izaten
ordun gendun umoriak.

(8) Hirukote honek antzerki bidez jartzen zituen gaiak. Garai bateko egoera irudikatzen zuten antzerki bidez, eta bertsolariek horren inguruan kantatzen zuten.

(9) Laia, baserriko tresna.

T. Garmendia: Azaroaren azken aldera
eguna etorriarik alai
eta gariak egiteko're
etorritzen zala garai;
auzolanean bildutzen ginan
atxur, hortz-biko eta lai;
soldata haundirik ez gendun baina
alkartasun ederra bai.

K. Lizaso: Gu lehen hiru zahar soro lanean
ta orain berriz bi gazte¹⁰
hemen dabilta kanta ta builak
jaia bihurturik aste;
eze askorik egingo ez dala
hori besteik ez det uste;
hutsa litzake eingo balute
berak jateko hainbeste!

Mañukorta: Auzolanetan egun batzuek
hain zuzenduta jarriak;
ardorik gabe erateko ziran
ura, sagardo gorriak
eta heltzean babarrun batzuk
ondo egosten jarriak...
Bide hortatik zaindu genduzen
gaurko gure basarriak.


T. Garmendia: Azaroaren azkenerako
erein behar zan garia
San Juanetan etorri zedin
oso uzta ugaria.
Hemen norbaitek galde lezake
zer izaten zan saria;
pixkana hola moldatutzen zan
eguneroko ogia.

K. Lizaso: Zerbait egingo al dute biok
hasi diraden kasuan?
Alkar hartuta alkarri buila
biok ere erosuan.
Egun batian batek bestean
hanka laiakin jo zuan;
etxian ez dute egiten ta
nola ingo dute auzuan!

Mañukorta: Hamar bat ordu izardiz bustiz
laia zaharrakin serio
apal onduan hizketa gozoz
bazan zenbait amodio.
Udaberrian fruta berriak
ia goraino io
gaur eguneko aurrerapenak
bat ere ez dute balio.

T. Garmendia: Lurra lehenengo baneatuta
ereiten ziren haziak
itxaropena hortikan gendun
geroko irabaziak;
eguneroko ogia gendun
Jaungoikoari graziak;
pentsa hori ez dutela izaten
gosea duten guziak.

K. Lizaso: Laian gogotik aritzen dira
gure iloba paria;
lurra irauli ta ondorean
botzen diote karia;
behar bezela nahastu dedilen
pasatze'iote haria.
Gizaldiz gizaldiz hola izandu
da beti laboraria.

J. Lizaso-P. Etxeberria-J.L. Gorrotxategi 

Lehen puntua emanda

Neurria: zortziko txikia

Doinua: *Mando baten gainean I*

(10) Bertsoladi honen aurreko aurkezpena Xabier Sukiak eta Gorka Tolosak egin zuten; laia lana irudikatu zuten.

L. Azkune: Lizaso ta bertsoa ez dabiltz aparte;

J. Lizaso: hortan daramazkigu auskalo zenbat urte! Oaindik herri batzutan hartzen degu parte; zahartu naizela baina estimatzen naute.

L. Azkune: Agurtzen al zaituzte neskatxa gazteak?

J. Lizaso: Bihotza kontsolatzen dit hoiek ikusteak; hoiei beira daramazkit jai eta asteak; danak merezi ditu aitona tristeak.

L. Azkune: Bertso-eskolan zara gazteen eredu;

P. Etxeberria: hori ere norbaitek mundura zabaldu. Haien laguna naiz ni ta ez ditut nahi galdu; aurrera segiko diet Jainkoak nahi badu.

L. Azkune: Eroso al zabilta gazteen artean?

P. Etxeberria: Aitona zaharra naiz ni bai haien tartean baina maite naute ta berekin batean luzaro ibili nahi det ahal dan bitartean.

L. Azkune: Dena kontatu al dek hire liburuan?

J.L. Gorrotxategi: Gogoan nituanak han jarri nituan. Kontatutzeko beti zerbait da munduan beste bat idazteko aina det buruan.

L. Azkune: Nolako begirada hire buzoari?

J.L. Gorrotxategi: Zazpi-zortzi botoiko traje urdinari; tristuraz beteta agur egin nion hari hori gertatzen zaio langile finari.

J.L. Gorrotxategi

Gaia: 1967. urtean, soldadutzatik etorri eta 22 urterekin txapelketa nagusiko finalean aritu zinen bertsotan. Gailurrera iristen denean zein amets edukitzen ditu buruan bertsolari gazteak?

Neurria: hamarreko handia
Doinua: *Lurraren pean sar nindaiteke*

Gaztetan neuri pasatakoa kontatzen behar det hasi: finalerako txartela nuan aurretikan irabazi; Donostiara etorri nintzan soldaduzkatik ihesi. Guztia urdin ikusten dezu nahiz ta bi begiak itxi; hamar zerala pentsatzen dezu nahiz zazpira ez iritsi (bis).

Urte hoiekin izaten dezu
onena zeran ustea
baina usteak erdia ustel
eta hori da tristeia.
Nahiz eta gauza ederra degun
ametsekin sinistea
gauza zaila da urte hoiekin
gailurrera iristea
eta zailago heldutakoan
mailari goian eustea (bis).

I. Lazkano-J. Agirre

Librean egin zuten, taberna bateko barran, eserleku banatan eserita; eta garai bateko taberna kontuetatik abiatu ziren.

Neurria: zortziko handia
Doinua: *Hasiko al naiz hasiko al naiz*

I. Lazkano: Kaixo lagun zahar aspaldikoa
zer moduz Joxe Oranda?
Lehenago entzule ginaden baino
gure ordua orain da;
nahiko eroso sentitzen gera
egia garbi esanda
lehenago ere bertso mundura
tabernan sartu ginan da.

J. Agirre: Bai gizona bai lehenen saioa
guk tabernan egin gendun;
batak bestea zapaldu nahian
ez ginan hizketan jardun;
iluntze hartan egin ginan gu
bizi guztirako lagun
eta zutikan gabiltzan arte
holaxe iraun dezagun!

I. Lazkano: Lekua inork jakin nahi badu:
Azpeitiko Etxezuri;
esan dezunez mintzatu ginan
alkarrentzat nahiko zuri
baina geroztik sartua degu
elkarri hainbeste ziri;
hainbat urtean kantatu degu
makina bat alukeri!

J. Agirre: Gazte jendea kontua sarri
izaten da nabarmena;
alukeriak esan ta entzun
hor izan degu kemena.
Izan gerana aitortutzeak
nei ez dit ematen pena
eta eleiza baino gehiago
maite genuen taberna.

I. Lazkano: Nahiz gurasoak bultzatzen zuten
elizan debozioan
gu gustorago izaten ginan
tabernakin sozioan;
ofizioa ikasi gendun
tabernako sesioan;
oraindik ere igartzen zaigu
degun edukazioan.

J. Agirre: Nahiz berotasun haundirik ez zun
gure fedearen suak
garai haietan modan genitun
eleiza ta errezuak;
apaizak oso gogorak ziran
ta etxean gurasuak;
eleiza joaten ez baginaden
sortzen ziran arazuak.

I. Lazkano: Nahiz konfesaio¹¹ barruan sartu edo pulpitora irten jesukristonak esaten beste gauzaetan ez zekiten; guziok ginan pekatariak ta guziok astakirten; hala ere eskerrak kaso haundirik ez geniela egiten.

J. Agirre: Gazte denbora izan genduen nahiko triste pasatua nahiz ta sasoia eduki arren nahiko ondo osatua; orduan gendun rejimena zan benetan abusatua zahartu ta gero pena bat daukat: gutxi aprobeztatua.

I. Lazkano: Sasoiko geunden ta beti ginan jolastutzeko desiran; ahal dan sarrina juntatu ere mostradore baten jiran; trago batzuek ondo eginda gero bertsoen segiran... Garai bateko bertso eskolak taberna zahar haiek ziran.

J. Agirre: Egia da bai tabernan beti pozez eta atseginez laineza pixkat hartutzen gendun tragoxka batzuk eginez; ez det esango aldi askotan egiten gendunez gainez baina batzutan ibiltzen ginan zuzen ibili ezinez.

I. Lazkano: Ez det esango eskola hartaz oso harro ez gaudenik baina halako pena bat edo kezka bat ere badet nik: emakumeak nola ez zuten tabernarako baimenik ez zan bertsoetan ordun izaten Amaiaik ta Maialenik.

J. Agirre: Garai haietan emakumeak ez ote zuten kemenik? Gaur egunean ez zaigu falta hortik bertsolari onik; gaurkoan ere hemen ez dago Amaia ta Maialenik baina ez behintzat inork pentsatu gu haien aurka gaudenik.

I. Lazkano: Inoiz entzuten zutenerako gure bertso zalaparta berehalaxe gerturatzen zan ganberro talde galanta; gaur bezelaxe guziak arrak ta emakumeak falta... Ia mutilzahar gelditu ginan bertsozalaritza zala-ta!

J. Agirre: Eta mutilzahar geratzeak'e guri ematen zigun lotsa; aurren'e negu gogor hasi da elurra eta izotza; osasunatik juxtu zinala zabaldua baitzan hotsa aizu Lazkano lagun zahar maite zer moduz dezu bihotza?

(11) Konfesionario.

I. Lazkano: Nere ustetan ederki nago
bihotza dadukat ondo;
odola txukun bonbeatzen du
ta maitasunean sendo;
eufori hontan emazteari
nola ez diot esango
aurrerantzean andre bakarra
ez al dan gutxi izango.

J. Agirre: Hori entzunda jarri liteke
andrea minberatua;
nere ustetan bide txukuna
ez dezu aukeratua;
karrozeria ondo daukazu
motorra reparatua...
Puxka bateko aitona zaharra
zu bazera geratua.

I. Lazkano: Nere bihotzez sentitutzean
une hontan indartua
halako sendi haundi bateaz
nauzue gogoratua;
Euskadi osoko bertsozaleak
fameli bedeinkatua;
beste bost bihotz banitu ere
badago nor maitatua!

J. Agirre: Ikusitzen da oraingoz behintzat
nahiko ondo zuazela
ta pasa diran estuasunak
behingoz ahaztu ditezela.
Nor maitatua badaukagu bai
zuk esan dezun bezela;
nola ikusten dan geu ere oraindik
estimatzen gaituztela.

DONOSTIA (2006-01-28)

*Bertsolariak: J. Uria, A. Illaro, K. Txoperena,
J. Zelaieta, J. Uranga, J.M. Irazu, X. Silveira,
U. Iturriaga, I. Paya, M. Amuriza, M. Belardi,
M. Artetxe, O. Bartra, A. Egaña,
M. Mendizabal, J. Maia eta M. Lujanbio.*

Gai-emailea: Unai Elizasu.

Arratsaldeko ekitaldia bezala afaria eta afalosteko jaialdia ere
Kursaalean izan ziren. Urtero bezala bertsozaleen festa handia izan
zen eta jantokian oso giro beroa sortu zen. Bertsolarien taldean gazte-
ak izan ziren nagusi. Oholtza gainean ez ezik kupeletan ere ez zen
bertsorik faltarik izan.

J.M. Irazu-X. Silveira-U. Iturriaga

Gaia: Diote gizartearen ehuneko hamarrea tabakoaren ondorioz hiltzen
dela. Beraz ehuneko laurogeita hamarrea ez da tabakoaren
eraginez hiltzen. Beraz zergatik hiltzen da jendea?

Neurria: zortziko handia

Doinua: *Anai-arrebak hementxe nator*

X. Silveira: Denok dakigu inor ez dela
jaio bizitza guziko
ta jaio bada ingurukoek
lasai ez diote utziko.
Nahiz zigarroak akatzen ditun
hainbat neska ta mutiko
holako gaiak jartzen dituna (bis)
ez du tabakoak hilko.

U. Iturriaga: Munduan bada hainbat desgrazi
uholde, lehorte siku
edo elurte bat edo haizetea
bidean mila istripu...
Ehuneko hamarrak bihar edo etzi
nikotinak hilko gaitu
ta ehuneko larogeita hamar (bis)
inbidiak hiltzen ditu.

J.M. Irazu: Jende mordoia seguru asko
inbidiak eramanak
ta beste asko hil ohi ditunak
bideak ez bada lanak;
edadeak'e hil lezakeela
hainbeste jenden esanak
ta okerrenak izaten dira (bis)
aspertuta hiltzen diranak.

X. Silveira: Maiz tabakoa izan den arren
bizi garenen ukendu
erretzaileak hil aurretikan
ez dira sarri omendu.
Nik arrazoia dudala uste dut
eta ez baldin badut kendu:
tabakoak hiltzen ez duena (bis)
Guardia Zibilak hiltzen du.

U. Iturriaga: Bada beste bat igual hartzen du
bere aitonaren korbata
eta ondoren sama estutu
gogor saka eta saka;
puñal batekin sabela zabal
janarazten dizu kaka;
ez arduratu hoiek baitira (bis)
bakarrik ehuneko bata.

J.M. Irazu: Bizimodua atera behar
ehuneko larogeita hamarrak
ta lanbideak xurgatzen ditu
izerdiak ta indarrak;
bertsoak ere eskatu arren
halako betebeharrak
gaur bezelako egunak dira (bis)
hiltzen ez duten bakarrak.

X. Silveira: Bizi izan dut arnas estua
hastearekin soilik dantzan
imajinatu arnas estuka
*pasacalles*¹² dantzan plazan.
Irazuk ia-ia esan du
ta azkenean ez du esan;
nik behintzat erretzen segiko dut (bis)
lanak akatu ez nazan.

U. Iturriaga: Azken batean bakoitzak ditu
bere lege ta baldintzak
ze hil zintzake estatutuak
ta baita bertsolaritzak;
edo hil zaitzake gehiegi horrek
edo bizimodu hitsak
edo autoak edo PNVk... (bis)
Azken batean bizitzak.

(12) Kalejira

J.M. Irazu: Filosofia haundi samarra
bota dezu nerekin
behin bakarrikan esan dezu ta
azkar ez det ikasiko.
Silveirak erre behar du gehio
lanak ez duela hilko
zure onduan dabilena're (bis)
ez da ehun urte biziko.

X. Silveira: Jo Jexux Mari ba Unai dabil
sekula baino Unai;
bizitza berak hiltzen gaitu ta
azkenean ze arraio!
Ba ez nago zurekin ados eta
zuzenketa honekin nahio:
autoari ta PNVri (bis)
heriotza deitzen zaio.

U. Iturriaga: Azken batean gurea dugu
hilkutxa edo paketea
kaltegarria dala jakinda
hainbat euro jakitea
baina hain txarra izango al da
zigarrotxo baten kea?
Ze erakundek gomendatzen du (bis)
euskalduna izatea?

J.M. Irazu: Hoi norbere esku egongo da ba?
Gainerakoan akabo!
Bizitza eta heriotzana
pasa degu tragoz trago
afalondo hau pasa dezagun
geroz eta gustorago
zerk hiltzen gaitun garrantzitsu da (bis)
zerk bizi gaitun gehiago.

J. Maia-M. Lujanbio

Gaia: Ez al duzue mamu bat entzuten? (Galdera horren atzetik,
2005eko Txapelketa Nagusiko sintonia kantatu zuen Unai
Elizasuk).

Neurria: zortziko handia
Doinua: *Zeru altuan zegoen Jaunak*

J. Maia: Egia da bai mamu bat dabil
bertsozaleengan alai
Barakaldotik ihes eginda
oraindik egin nahirik jai.
Sintonia bat daukat barruan
gure bertso berrien zai:
alde batera ahaztu nahi nuke
baina ez nuke ahaztu nahi.

M. Lujanbio: Boteka dabil bolatxo hori
arren, gelditu ta lotu!
Lepo gaineko bola hau ere
aldatu dela aitortu:
ia azalean tinta beltzeko
letra batzuk zaizkit sortu
ortu, portu ta *lortu*-kin hasi
ta azkenean agortu.¹³

J. Maia: *Mortu* ta *nortu* zion pelotak
ta oraindik ez dago isil
nik *erregela* esan nahi nuen
ta *ergela*-kin ze misil!¹⁴
Sintonia hori berriz entzunda
ezin naiz sentitu trankil
zuhaitzak ez du lorarik eman
zu zer moduz nere makil?¹⁵

(13) Ortu, nortu, sortu, lortu... bezalako hitzak Txapelketa Nagusiko irudia zen bola horretan agertzen ziren hitzetako batzuk dira.

(14) Jon Maiak finalean "erregela" esan ordez "ergela" esan zuen.

(15) Jon Maiak eta Maialen Lujanbiok finalean elkarrekin egin zuten ofizioan zuhaitza eta esola izan ziren. Jon Maia zuhaixka eta Maialen Lujanbio, berriz, zuhaitzari zuzen mantentzen eta eusten laguntzen dion makila.

M. Lujanbio: Ai hesolaren bizitza ezin
baitzen gehiagorik luza
gaur ere ez daukat zure enborra
zure grazi ta gorputza:
hesola lehor, hesola ihar
eta lepo gaina hutsa
lepoan bola txiki horrekin naiz
paperezko txupatxusa.

J. Maia: Zu txupatxusa ta ni zuhaitza
hoietzek gure graduak
nahiz txupatxusak gehiago ematen
duen gaur nere buruak.
Andonirekin akordatzen naiz
infernu eta zeruak
amai eskerrak ematen ere
ez zigun utzi aluak.¹⁶

M. Lujanbio: Eta tipoak zeukan azala
tipoak zeukan patxara!
Ta gu atzean han eserita
ta kokilduen gisara.
Gure txapela berak jaztea
asumitu degu jada
gure agurrak berak eitea
hoi da gehiegizkoa da!

J. Maia: Egia da bai nik ere zuri
hori galdetu nahi nizun
doinu berria atera zendun
sermoi eta elizkizun
eta ni ere saiatu nintzan
baina aizu Maritxuntxun
galdetu nahi det ia planetak
lerratu ote zaizkizun.¹⁷

M. Lujanbio: Planetak nahiko aldrebestuta
topatu nitun haseran
gero ohartu nintzan beatzi
gutxi zirala aukeran
planeta berrin bila hor nabil
esploratzaileen eran
ia euskaldun ergel galdun¹⁸ bat
han bilatu dezakedan.

J. Maia: Lehen bezelaxe ergela naiz ni
hortan egon zaite trankil
zuk uste ez arren saio horretan
jardun nintzen nahikoa hil
egia esan emaitza ere
izan nun nahiko borobil:
zortzigarrenak ematen duen
penaren kontura nabil.

M. Lujanbio: Baina bi mila eta bostean
ibili zera hain bero
zure kantu bat irratiatan
entzuten da egunero;
disko bat ere egin zenuen
eta liburu bat gero
burla gehiegi izango zan ia
BECen irabazi ezker.

J. Maia: Egia da bai sortu zitekeen
sekulako kataplasma
eta horrela ezin da jakin
zein den zinez nere arma.
Kantu, liburu eta bertsoa
ni zein naizen ezin asma
sintonia hori mamua bada
ni izan ninteke fantasma.

(16) Andoni Egañak txapela finalista guztien amei eskaini zien.

(17) Maialenek azkeneko agurrean kantatu zuen ez zela bere eguna izan eta planetak ondo *alineatu* gabe zeuzkala.

(18) Jon Maiak “euskaldunaren ergela” kantatu zuen “euskaldunaren erregela” kantatu nahi zuen lekuan.

M. Lujanbio: Nere ondoko hau bezelako
ez dago beste bi kasu
beti aurrera ta beti gora
egiten dun zernahi pausu.
Denak emaitza ematen dio
nahiz ez saiatu jo ta su
ikutzen duna urre bihurtzen du
arren laztandu nazazu.

J. Maia: Hainbeste lore entzute hutsaz
beldurtua naiz nabarmen
dena urrea bihurtze omen det
dena zuzen eta orden.
Ai, Maialentxo zu laztantzeko
eskatu didazu lehen
eskerrik asko nik ere asko
maite zaitut zu Maialen.



*Bertso Eguna
(Donostia, 2006-01-28)*

Argazkilaria: A. Elozegi

ZEANURI (2006-01-29)

*Bertsolariak: A. Egaña, J. Maia, E. Intxaurraga,
M. Lujanbio eta A. Arzallus.*

Gai-emailea: Jabi Olibares.

Zenauriko pilotalekuan izan zen, arratsalde. Entzule asko eta giro polita.

E. Intxaurraga-A. Egaña-I. Elortza

Gaia: Arratiako bertsolaritzaren alde lan asko egin zuen Basilio Pujana hil zen iaz.

Neurria: zortziko handia
Doinua: *Pello Joxepe tabernan dela I*

A. Egaña: Mingarria izan zen Basilioi
adio esan beharra;
hainbat urtetan erakutsia
bere bertsotako garra.
Hiru txapeldun hauek badugu
ospea eta aparra
baina benetan Basilio zen
txapela zeukan bakararra.

I. Elortza: Txapelerako bide hasera
gogoratzen dot primeran
Orozkon gendun larogeita hamar
urtearen bukaeran
zortzikoan zan ofiziotan
ondo, txarto ez dakit zelan...
Txapelketan nik lehen saioa
berarekin egin neban.

E. Intxaurraga: Basilio be *krak*¹⁹ haundi bat zan
egongo zarie ados
belaunaldiak egonak dira
berai entzuteko gogoz.
Orain bera be entzuten dago
ez dogu ahaztu inoz;
zure arnasa joan zan baina
bertsoak airean dagoz.

A. Egaña: Gerra garaiko relikia bat
egizale nabarmena
Basiliokin hitz egiteak
ematen zigun kemena.
Ezagutu zun bere aurretik
bertsoak zekarren dena
gazte jendea bide berriak
ulertzen jakin zuena.

I. Elortza: Zeanin²⁰ jaio ta bizi izana
Bilbo aldeko Tibolin
gerran gudari izan genduen
eta kanteran behargin;
gu arakutzen ibili gara
ta horrek emoten dausku min:
azkenengoko elkarriketa
ezin izan geuntsan egin.

E. Intxaurraga: Ni ere hemen nabil bertsoan
ni naz bere oinordea
berbaz benetan arteza zan ta
bertsoan zein dotorea!
Nik ha ez neban asko ezagutu
esan behar dot ordea:
bertsolari lez ona zan baina
pertsone legez hobea.



1, 2, 3... Inaxito!!
(Errenteria, 2006-03-14)

Argazkilaria: M. Mariskal

(19) Maisu.
(20) Zeanurin.

ZESTOA (2006-02-04)

Bertsolariak: A. Egaña eta S. Lizaso

Jesus Iribar *Olalde* eta Manuel Olaizola Uztapide II.a omentzeko antolatutako afaria. Santa eskean hogeita hainbat urtez kantuan ibiltzeagatik egin zitzaizen omenaldia. Aretoa erabat bete zen eta saio polita atera zen.

S. Lizaso-A. Egaña

Neurria: hamarreko handia
Doinua: *Mutil koxkor bat itsuaurreko I*

S. Lizaso: Hasi gaitzen berriz kantari
alperrik gaude bestela.
Aitortu behar bertso giroa
hemen hutsala ez dela;
ahal baldin bada igo nahi degu
lehengo saioan nibela;
gogoan izan Manuel zaharran
jaioterrian gaudela;
saia gaitzen bera aurrean
baldin balego bezela. (bis)

A. Egaña: Pixka batean zai egona naiz
erantzunik ba ote dan;
ez degu eta geuk segitzea
mesede degu aukeran.
Mingaina errez dijoa orain
ta ideak erdi hegan;
lehen totalka hasiagatik
oraintxe gaude primeran;
gu iluntzean argitzen gera
Manuel zaharraren eran. (bis)

S. Lizaso: Hainbat urtean herririk herri
bertsolari zerbitzala;
haren bertsoek sarri askotan
argitzen zuten itzala.
Gure artizar beti izan da
gabiltzala gabiltzala.
Ez dago hemen baina gogoan
alde batera normala;
nun dan ez dakit dagon tokian
gurekin goza dezala. (bis)

A. Egaña: Seguru nago gozatuko du
bertsoa zun begi-nini;
bertsotatikan abiatuta
sortuaz zenbait harmoni.
Azken txapelak Uztapideren
izena modan ipini;
bat baino gehiok galdetu ohi dit
Uztapide zer, Andoni?
Konparaketa entzute hutsaz
lotsatu egiten naiz ni. (bis)

S. Lizaso: Hemen bakoitzak ahal duen arte
egiten du historia.
Joan zan baina hark zuen fama
ez dago ez eroria;
haren ordezeko zein izango ta
Andoni hauxe dotoria.
Txapelen mailan zuk hautsi dezu
hark zuen kategoria;
zuk autopista bihurtu dezu
hark egin zuen bidia. (bis)

A. Egaña: Baina Sebastian pentsatze hutsaz
zer-nolako hotzikara!
Konparaketan hasi al zera
kazetarien gisara?
Manuel manta izan zitekeen
ni gehienera izara;
zuk hartutako konparaketa
ez det albora nahi laga:
autopistarik ez da egiten
biderik ez baldin bada. (bis)

S. Lizaso: Aitortzen degu Manuel zaharrak
zitula hainbeste dohai;
bertsolaritza berpizteko ere
bera nola izan zen gai.
Errespetoa ta miresmena
guk badizkiou Zestoai
eta beste bi aitona ere
ez nituzke ahaztu nahi:
nere aitona hemengoa zen
Andonirena ere bai. (bis)

A. Egaña: Eta lekuko izan liteke
gure abizenen hotsa:
hemen Lizaso bertakoa da
Egaña ez da arrotza;
gure bertsoak beraz Zestoan
izan zun bere jaiotza.
Segi bagenu gure aitonen
ofizioen morrontza
zuk txistulari behar zenuke
eta nik berriz arotza. (bis)

S. Lizaso: Gorputz txikiko aitona omen
burua ez zuen arina;
festa giroa han-hemen sortzen
egite omen ahalegina;
erromeria erromeik eza
ez baita gauza berdina;
txistua eta danbolinakin
abila omen zen baina
eskerrak berak ondo jo zuen
amonaren danbolina.(bis)

A. Egaña: Ai pieza hori joko zuen ba
redoble ta guzti zuzen;
zuen aitona festetarako
izango zuen hainbat sen;
hazia berak ipini baina
famili baten almazen...
Zalantzatxo bat sortu didazu
galdetuko dizut ozen:
aitona horren txikia bazan
raza noiz meyoratu zen? (bis)

S. Lizaso: Hazi txikiak baratza ona
ez du izaten kaltera;
Txillarramendin bilatu omen zun
hazi jartzeko aukera
eta geroztik arraza behintzat
ez da joan goitik behera;
beste bat degu nere buruan
darabilkiten galdera:
aita hemengoa ama gertukoa
seme rusoa²¹ atera. (bis)

A. Egaña: *Generazio* ona izango zen
lehenbiziko txandakua
Txillarramendin haize freskoak
pixkat erasandakua;
aitona zendun langile fina
hala da esandakua;
aita're gizon langilea bai
gutxitan etzandakua
eta zu berriz umetatikan
nahi aina izandakua. (bis)

Elkar zirikatzen luzaro jarraitu zuten, harik eta beste gairen bati
heldu zioten arte.

(21) Joxe Lizasori "Rusoa" esaten diote.

BEASAIN (2006-02-11)

Bertsolariak: X. Amuriza eta A. Egaña

Arrano Elkartean urtero antolatzen duten bertso-afaria. Aurreko urteetan baino jende gutxiago elkartu zen, baina oso giro onean egin zen bertsoa. Lan handia eta ona egin zuten bertsolariek. Asmakizunen jolasean ere ibili ziren: bertsotan pistak ematen zituzten bertsolariek, eta entzuleek zer hitz zen asmatu behar zuten.

Neurria: zortziko handia

Doinua: *Kantore berri xarmant batzuek*

X. Amuriza: Afalondoan kontu-kontari
hemen geunden oso lasa
eta nahi baino bizkorragoa
denbora baitzaigu pasa
lanean hasi behar degula
hartu nahi nuke arnasa;
aurea ere libratu dute
beraz gurea da plaza. (bis)

A. Egaña: Gabon lehenengo ta on daigula!
Berrogei lagun inguru;
berrogeita hamar izan gintezke
ta zu ta ni buruz buru;
entzuten al den ez den entzuten
ez nago oso seguru;
gaur egunean mikrofonoa
ere birtuala dugu. (bis)

X. Amuriza: Mikrofonoa moskeatu da
zerbait adierazi nahita
eta Andonik hasi dunari
ni hemen nator jarraika.
Hik buruz buru diok Andoni
ez al huen jo nahi gaita?
Gorputzez gorputz esan dezagun
burua dudazko baita. (bis)

A. Egaña: Orain denetik entzun liteke
doinua eta zarata;
nik buruz buru aipatze hutsaz
sartua ote dut hanka?
Zuk bururikan ene Xabier
inola ez dezu falta;
buru bat behintzat izan behar dezu
buru gogorra zera-ta! (bis)

X. Amuriza: Seinaleren bat aurkitu duzu
nire buru gogorrean;
bulto pixka bat badaukadala
nago aitortu beharrean.
Maiz aurkitu naiz ridikulo bat
egiteko indarrean;
egitekotan egin dezagun
bi kamera hoien aurrean. (bis)

A. Egaña: Gure aurrean kamarak daude
hauxe da hau panorama!
Zuk parregarri geratutzeko
beldurra dezu ai ama!
Uxatu hori beti bezela
burutuko dezu lana;
zu omen zera gure artetik
gutxien zahartu zerana. (bis)

X. Amuriza: Ez dago gaizki piropo hori
entzunak ditut hainbeste;
behin honezkero ez naiz joango
piropo hobeen eske.
Gutxien zahartu naizela eta
badut hainbeste sineste;
ni naiz gutxien zahartu naizena
ta gutxien naizen gazte. (bis)

A. Egaña: Nik botatako ateraldia
 zuk hartu loreztat edo
 baina Egaña bihurria da
 badakizu honezkero;
 nere hitzetan gauza goxorik
 Amuriza ez espero:
 fosilek fosil segitzen dute
 behin fosildu eta gero. (bis)

X. Amuriza: Bizkaian bazen pertsonaje bat
 izena zuen Hamalau;
 munduan bira egin zuen ta
 gure memorian dirau.
 Fosildu banaiz zahartu banaiz...
 zer katramila da ba hau?
 Zahartzen segitu beharko diat
 inork akatzen ez banau. (bis)

A. Egaña: Hara Xabier nun piztu zaigun
 sagardoaren usaian!
 Saioa gogoz hasi ote dun
 neroni nengon ezbaian
 baina nolako gerrero planta
 azaldu dun orain mahaian!
 Kasta bikaina erakusten du
 ziztatzen duten garaian. (bis)

X. Amuriza: Ziztatzekotan ta gogo haundiz
 heldu gaituk Beasaina;
 kezka badiat emango degun
 itxoiten duten tamaina.
 Entzuleetan batzuk bazeudek
 moldatzekoak gu aina;
 gaizki esan diat, barka; “Gu” hortan
 hi ez haiz sartzen Egaña. (bis)

A. Egaña: Disimuloan aipatu dezu
 nere laugarren txapela;
 nik gutasuna hartzen det aintzat
 ez naiz halako txepela.
 Baina nolanahi gaur entzun zazu
 maiz esan dedan bezela
 nere nitasun dizdizarian
 iturburu zu zinela. (bis)

X. Amuriza: Izan nitekeen iturburua
 edo zerbaiten atea
 ta gertatu da Egaña sua
 eta ni naizela kea.
 Segitu ezak bosgarrenera
 puskatu arte katea
 legezko baita asko daukanak
 gehiago nahi izatea. (bis)

A. Egaña: Zuk esandako arrazoi horrek
 baditu bi-hiru gako:
 anbizioa ez da sanoa
 hala aitortu beharko;
 laugarrenoa pozik hartu det
 ez laugarrena delako
 baizikan eta nun ta Bizkaian
 diferentea zelako. (bis)

X. Amuriza: *Hazaina* hori han gertatzeaz
 oso harroturik nago
 ta esan nuen “Mutiko horrek
 jantziko ditu gehiago”.
 Esaera da “Edadeakin
 gizakia okerrago”
 ta hontan berriz esaera da
 “Zaharrago ta Egaño”. (bis)

A. Egaña: Esaera hori balizkoa da
 balizkoa ta hala're
 oraindik ere senti ninteke
 gizon gazte baten pare.
 Mutikoana eskertzen dizut
 inungo dudarik gabe;
 klaro Xabier gure artean
 hogei bat urte badaude. (bis)

X. Amuriza: Hogei urteko aldea dago
hoiek hitz haundiak dira;
nik bi txapel ta hau lauren jabe
ta hona hemen begira;
oreka ere egin daiteke
eguzkitik ilargira
nere buruko ile batzuek
zurera joango balira. (bis)

A. Egaña: Ezinezkoa zure lehenengo
txapel gabe iristea;
nik laugarrena ezin nun jantzi
hori da nere ustea.
Bale, ileak banatu ezker
ez da seinale tristea;
konforme nago ta onartzen det
hiruna txapel uztea. (bis)

LEZO (2006-02-11)

*Bertsolariak: A. Agirre, A. Mendiluze,
I. Gurrutxaga eta M. Lujanbio.*

Gai-emailea: Unai Elizasu.

Lezoko Bertso Eskolak antolatutako jaialdia, gauean izan zen.
Areto txikia eta goxoa.

A. Agirre-I. Gurrutxaga 

Gaia: Zuek hotel batean egiten duzue topo asteazkenero arratsaldeko
bost eta erdietan. Zuen bikoteengandik ihesi joaten zarete. Gaur
ere elkartu zarete. Biluztu zarete, ohean sartu, baina gaur ez
duzue gogorik.

Neurria: hamarreko txikia
Doinua: *Antton eta Maria*

A. Agirre: Hamalagarren gelan
ta hamalagarrenez
biok elkartu gera
gaur ez irriparrez.
Nahiz ta beti aurkitu
sasoian indarrez
proposamena aldatu
behar degu errez:
bertsotan eingo al degu
bertxortan in orde? (bis)

I. Gurrutxaga: Kuartora sartu eta
biluztu segitun
zapatilak ateko
alfonbran han nitun;
zuri begira jarri
biok kopetilun;
bertsotan hasteana
holakorik inun!
Lehen haserako puntu
hobeak zenitun! (bis)

A. Agirre: Mejoratzen nijoa
gainera topera;
gogor erantzun dezu
hitzen arabera.
Nik ere ez det maite
zure sexokera;
ai, barkatu! Esan nahi nun
zure bertsokera;
lekutan gelditu zan
zure habanera! (bis)

I. Gurrutxaga: Nahiz ta etorri naizen
itxura lasaian
karta guztiak laster
jarri dizkit mahaian.
Konfiantza gehiago
neukan nik Amaian.
Habanera kontuak
holako garaian...
ez al ditun nahiago
sei koplak jarraian? (bis)

A. Agirre: Benga hasi gaitezen
berriz jo ta kea;
kolpetik aldatu zait
neukan aldartea.
Kopla txiki bat badet
konforma zaitea;
potoa ez al degu
bitan esatea?
Ez zait inporta ohean
poto egitea. (bis)

I. Gurrutxaga: Poto bat egiteko
hainbeste enpeño!
Garai batean ginen
ohian bi *estraño*
baina horretaraino
eta egundaino
bertsolariak gera
bertsolari joño!
Rollo gehiago daukan
Elizasuk²² baino. (bis)

A. Agirre: Elizasun *rolloa*
egin zazu bere;
Mendiluzen bertso bat
egin nahi det nere;
kartzelako gai baten
gendun alafede!
Ba omen zan gogoa
bota zuen trebe
baina sentimentua
falta da hemen ere. (bis)

I. Gurrutxaga: Ez dut hontan utziko
nik gaurko ezbaia
guztia argitzeko
bada ta garaia.
Morboa falta zaigu
morboa Amaia;
Aitor aipatu eta
hobe ekartzea ia
gutxienez jarriko
digulako gaia! (bis)

(21) Unai Elizasu, gai-emailea.

LEGAZPI (2006-02-17)

Bertsolariak: U. Iturriaga eta M.Lujanbio.

Gai-emailea: Asier Iriondo.

Legazpiko Bertso-Olariak bertso eskolak antolatutako afaria. Ohi bezala Lau-bide jatetxean izan zen. Giro bikaina, eta oso saio ona egin zuten bi bertsolariek. Lehen zatian librean eta gero Iriondok gaiak emanda aritu zen. Libreko saioaren lagin bat jaso dugu hemen.

U. Iturriaga-M. Lujanbio

Neurria: zortziko handia

Doinua: *Ari naizela ari naizela*

U. Iturriaga: Bueno jan dugu gure postrea
ta *entrecot* kixkalia;
amaitu zaigu elkarrizketa
ta egonaldi estalia.
Jakin gabe ezin baikenuen
segi gure ibilia;
ia zer moduz dagoen gure
Legazpiko familia.

M. Lujanbio: Ai Legazpiko famili hori
litekeen dotoreena
baldin begira jarri ezker
bi mahai hauetan barrena.
Zenbat urte da dexente bada
hona etortzen garena?
Urteak pasa dirala baino
berdin samar dago dena.

U. Iturriaga: Hemen ez da gehiegi aldatzen
bakoitzak daukan papela:
ez Bitorren berriketa ta ez
ta Juan Karlosen txapela;
berriro ere kantatzen dugu
guk hemen zutik gaudela...
erregearen aurrean inoiz
edo Legazpin bestela.

M. Lujanbio: Urtero-urtero fidel gatoz ta
falloik in gabe sekula;
horren poz haundia ematen dula
ezin degu disimula.
Elizan gisan honek hartu du
errespeto bat mardula;
nik pentsatzen det bakoitzak bere
aulkia izango dula.

U. Iturriaga: Tokia bera jentea bera
tradizioa da lege
iraganaren pisuak nola
baduen nahiko botere;
ez aldatzea ez dago gaizki
batzutan horren xeble...
ez aldatzarren ez dute aldatu
ezta gaurko kartela ere!

M. Lujanbio: Kartela ere betiko bera
ipini digute hara!
Ta urteekin kolorea're
ajatua dauka jada;
hirugarrena da gatozena
hirugarrena marka da!
Ta historian ze kontatua
nahiko *bakerada* bada.

U. Iturriaga: Hiru hamarkada hemen badela
horrenbeste adiskide;
hiru hamarkada gu gabiltzala
gure bertso kantuz libre;
hiru hamarkada gure etxea
bihurtu dela Lau Bide;
gu hemen gaude eta zuloan
Basarri ta Uztapide.

M. Lujanbio: Horiek biak hil al ziran ba?
Ez naiz enteratu aizu!
Baina esaten baldin badezu
segika joango natzaizu;
hiru hamarkada hona etortzen
eta etortzen darraizu;
aurrena etorri zinanetikan
kaskoa urdindu zaizu.

U. Iturriaga: Hori esaten dit Maialenek
hori esaten dit amak;
akabo nire garai bateko
bertsolari gazte famak!
Azken batean nire kaskoa
beti neurekin daramat;
ideia jenial bakoitzagatik
ateratzen zait kana bat.

M. Lujanbio: Hortaz zuritzen baldin bazaizu
negozio ona da hori;
beraz burmuinak bete dituzu
ta idea onez lodi
baina aurrera pasako dira
gero urte bat edo bi
ta baietz gero ideakiko
ile bat behera erori!

U. Iturriaga: Aizu Maialen badakit jada
umegorri ez naizena
kartel askotan pasatuxea
dagola nire izena
baina horregatik ez dut egiten
bertso bidea problema.
Aizu Maialen galderatxo bat:
nola zara hain morena?

M. Lujanbio: Zergatik naizen horren morena?
Esango dizut: badakit;
hortan eragin izaten dute
buru barruko burmuin bik;
nere idea onak pentsatzen
buruak sua hartzen dit
ta horregatik gero ileak
erreta irteten zaizkit.

U. Iturriaga: Horrelakorik sekula ez nuen
ETBn ere aditu
nahiz ta Elhuyarren programa horrek
bere ehungarrena kunplitu.
Maialenek esan duen hori
ondo behar da aditu;
ez da bakarrik azkarra dela
gainera bi burmuin ditu.

M. Lujanbio: Neronek ere bi burmuin ditut
humano denen antzera
ta zuk ere bai baino motza izan
ta konturatu ez zera;
bertsolarien dohaia zer dan
heldu gera azaltzera;
Hitzetik Hortzera're laister da
Burmuinetik Adatsera.

U. Iturriaga: Ai neska honen bertsoa entzuten
ez naiz sekula nekatzen!
Sasoi batean igual Txirrita
maila altukoa izan zen
baina bi burmuin ditun neska bat
gaur ta hemen inprobisatzen...
nik ere bi buru dauzkat baina
behekoak ez du pentsatzen.

M. Lujanbio: Bi burmuin ditu batek bakarrik
eiten dio berriketa;
bi buru ditu ta ez bi burmuin
okertu egin naiz eta.
Zu're beltz zaude nere ileak lez
jarri ezkerre arreta;
kontua atera behar al degu
zuk zer daukazun erreta?

U. Iturriaga: Erretzea gauza normala da
bizi baldin bada bero;
nire gorputza beltza dago ta
horrela bada hala bego!
Bi buru ditut baina alperrak
direnik ez esan gero!
Ni baino lehenok jeikitzen baita
egunero-egunero.

M. Lujanbio: Zein dan azkarra zein dan motela hain argi ez da geratu eta mesedez teoria bat zehatzagoa eratu; zure aurretik jeikitzen dala hortaz gera enteratu baino pena da gero gauero berriz zukin oheratu.

U. Iturriaga: Gauza ederra da Maialen zure alboan gaur ikastea sarri tokatzen baitzaigu guri ikasi eta ahaztea; nik ez dakit nola esplikatuz ez dut teori askea; azaldu'idazu batak zergatik anulatzen dun bestea.

M. Lujanbio: Berak ez daki ta nik azaldu gauz hori normala al zen? Saiatuko naiz baldin bazabiltz pixkat adimena galtzen: batak zergatik ez dun bestea anulatzen ta itzaltzen? Bada beste horrek ez dulako bata hori anulatzen.

U. Iturriaga: Barkatu baina niretzat ziren igual kontzeptu gehiegi; hilda dago ta ezingo diot deitu igual Einsteineri. Baina aurreko bertsoan bota ditut nitaz hainbat egi ta jakin nahi dut ia berdintsu pasatzen zaizuen zueri.

M. Lujanbio: Matematika edo fisika esan dedana hori da baina ondolik galdera are konplikatugoa tira; guk zer daukagun esplikatzea oso zaila da begira: nola esan? Hori ententitzeko hiru burmuin behar dira.

U. Iturriaga: Ta gu sinpleak ta ententitzeko hiru burmuin behar dira; zeuk esan duzu eta jarriko nintzaizuke ni begira; e berdin m zati c horra Einsteinena argi da baina azaldu zaidazu Maialen ia c hori ze osti da?

M. Lujanbio: Gorputzai buruz ari bazinan hortaz bazan enbidoa; garbi ta argi esplikatuz erantzuna hor dijoa: mc ber bi berdin auskalo ez det ulertu tiroa; azken finean galdera hori beti da erlatiboa.

U. Iturriaga: Nik alde batetik tak egin dut eta honek bestetik tik ; orain bere erantzunan kontra reaktionatzea dagokit; eta mc eta hainbeste letra barrutik eta kanpotik... Alfabetoa jakin badakit ta hori halere ez dakit.

M. Lujanbio: Guk ere ez degu alfabeto asko eta egon zaite lasai; matematikak gurekin eta guk berarekin degu jai; gero fisika ta gero Einstein aipatu dizkiguzu ai! Nik mc hori zer dan ez dakit MCC akaso bai.

BERGARA (2006-02-18)

Bertsolariak: J. Agirre eta A. Arzallus.

Gai-emailea: Ainhoa Agirreazaldegia.

Artatse Elkarteak urte antolatzen du bertso afaria, eta aurten bi bertsolari hauek gonbidatu zituzten. Laurogeiren bat entzule elkartu ziren afaritan. Oso giro ona eta saio polita. Lehenbiziko zatia librean egin zuten, eta bigarren zatian Ainhoa Agirreazaldegik eman zizkien gaiak.

Joxeren adinari, trebetasunei eta ajei buruz luze jardun ondoren, gazte denboraz galdezka hasi zitzaion Amets Joxeri.

J. Agirre-A. Arzallus 

Neurria: zortziko handia

Doinua: *Komeni zaigun ixtoria bat I*

A. Arzallus : Norbere zorrak kitatzen hemen
bakoitza dabil behinepin;
hala ere beste gauza bat dago
hemengo lagun honekin.
Guk oraingoa ezautzen degu
lehengoaz nahi nuke jakin:
zu nolakoa izango zinen
hoita hiru urterekin.

J. Agirre: Beraz hogeita hiru urtekin
ni ote nitzan nolakua?
Hau jakin nahian aurkitutzen da
nere aldamenekua;
orain tripa're badaukat baina
orduak nitzan flakua
pixka-pixka bat motxagua ta
ia zu bezelakua.

A. Arzallus : Eta badakit jaio zinala
baserri paraje baten
gaur egunean nola holako
asko ez diran izaten;
guk *play stationak* eta mobilak
dauzkagu maiz esku arten...
jakin nahi nuke zuen garaian
nola jolasten zinaten.

J. Agirre: Erantzuteko Amets maitea
ez naiz era kobardian
holakoetan dakizkigunak
nola esan behar dian:
gure jolasak izaten ziran
atxurrean ta sardian;
seguru asko ez dezu jakingo
erreminta hoiek zer dian!

A. Arzallus : Nola sekula ez naizen izan
baserritar neurrikoa
guk diferente estutu degu
bizkarra ta gerrikoa;
sardea zer dan ez dakit asko
horra egia mutikoa
eta atxurra ezagutzen det
baino ez baserrikoa.

J. Agirre: Gizon honekin nola ez liteke
gaur aitona zaharra poztu!
Gure arteko lagun arte hau
ez dadila aldrebestu!
Itxura danez atxurrarekin
eskarmentu haundirik ez du;
kertena nundik sartutzen zaion
ez dakiela apustu!

A. Arzallus: Kertenik ere ba al du bada?
Ez nekin, ze demonio!
Honek esaten duenarekin
ez zaitezte asko fio!
Nik zenbat gauza dakizkidan gaur
antzemango ote dio?
Behintzat badakit morroi joateko
nik ez dedala balio.

J. Agirre: Borondateko mutila zera
eta altura bikaina;
morrontzarako ere balio
behar zenduke nik aina;
orain artean lan kontu hortan
zu zerade ez jakina:
ederki asko txupatu dezu
aita ta amak egina!

A. Arzallus: Txupatu det bai ta zergatik dan
nunbait ez dezu ulertzen;
zaila da baina saiatuko naiz
ni zergatia agertzen:
horiek naute bai diruz eta
bai janez ere mantentzen;
zerbait eskura eman ezkerok
nik eskurik ez det kentzen.

J. Agirre: Ematen dana hartzeko beraz
dadukazu jeniua;
hortarako haiek ere behar dute
poza ta amodiua
eta nik berriz gazte denbora
pasatu nun seriua;
desgrazirikan haundiena det
Patxin denboran jaiua.

A. Arzallus: Ez nun ezautu haren larrua
kopeta eta azala
ta gero ere ezagutzetik
nornahik babestu nazala!
Haren denboran jaiok zinela
ta penetan zabiltzala?
Baina pozikan haundina dezu
hura aspaldi hil zala.

J. Agirre: Nik esan behar nuen gauza bat
etorri zaizu burura
baina oraindik gauzak dabilta
ia orduko modura;
halakoen baten ezkutatu zan
aitona tximista hura!
Bainan orandik bizirik dago
utzi zuen ditadura.



*Batzar Nagusia
(Agurain, 2006-02-25)*

Argazkia: X.D.Z.

ZALDIBIA (2006-03-03)

Bertsolariak: A. Arzallus, A. Egaña eta I. Murua.

Goierrri Lanbide Eskolako ikasleek ikasketa amaierako bidaiarako dirua biltzeko antolatutako bertso afaria. Ikasleak ziren ia gehienak. Aretoa beteta erabat, eta giro beroa. Saio luzea eta ona izan zen. Dena librean egin zuten.

Neurria: zortziko handia

Doinua: *Zazpi ahizparen gai den oihala*

A. Arzallus: Ordua da ta hemen lanari beharko diogu ekin; hara Andoni, hara Iñaki poz bat badaukat behinepin: denak gazteak edo ia denak ta badakizue jakin lehenengo aldiz jardungo gera gure adinkideekin.

A. Egaña: Lehenengo “Gabon” esan nahi nuke “On daigula!”kin batera; hemen adinan batatz besteko gezurrezkoik ez atera! Afaldu degu ta bertsoetako desberdin eseri gera: xilofono bat ematen degu gaztetik zaharrena.

I. Murua: Beraz zaharrena ni nazutela Egaña esaten ari da; Amets daukagu mutil koxkorra nahiz luze gorputzan jira; Andoni berriz burusoildua nahiz ta ez zaion kupira; hura gazteentzat ariko da ta ni berriz zaharrei begira.

A. Arzallus: Zahar eta gazte gazte eta zahar zergatik sortu problemak? Ez pentsa gero zale finenak maiz direnik gazteenak! Neri sarritan pasa izan zait hala agindu dit senak Ametsen bueltan ere amonak ibili dira gehienak.

A. Egaña: Hemen Zaldibin gaur lortu degu sekulako elkarte: gazteentzako Amets gertatu liteke tipo bete ta zaharrentzako izango omen da Iñaki Muruak botea; nik zer arraio egin behar det iragarkien tartea?

I. Murua: Erdi mailako adinekoa sasoi lanai heltzeko; lau txapelekin Egaña ez dago oaindik burua galtzeko; erdi-erdian jarria degu txapeldun haundi antzeko. Zer ingo dezu! Onena zera denei adarra jotzeko.

A. Arzallus: Ez gazte ez zahar eta orduan denei kantatu ezin ba; iragarkien tartearekin jarri nahi nukeela ginda; lau txapelen jabe da bai guztiok gaude jakinda ta hori ere lortzen omen da marketin asko eginda.

A. Egaña: Aizazu Amets zu gaur bezela
ni ere izana gazte
eta txapelen bila izandu
det hamaika buruhauste!
Ilea handik pixkat laburtea
patrozinadore eske...
Dena marketin kontua bada
zu ere hasi zintezke.

I. Murua: Honek marketin asko egin du
antzematen dan modura;
bertsolaritza behintzat jaso du
maila apaletik zerura;
ez dakit nola piura honekin
lortu dun bere helmuga!
Wazemankeko abildadea du
ta Burusoiltxon itxura.

A. Arzallus: Itxurarekin sortu litezke
majina bat desengaino!
Begiraiozu puru erretzen
dena puru ke ta laino;
Murua berriz konparatuaz
etorri da honeraino...
Mister Properren antz gehiago du
burusoiltxorena baino.

A. Egaña: Egañarekin adarra jotzen
hasi zerate ostera
baina Murua tentatutzea
hobe genuke ospera!
Eskolan honek bi asignatura
emateko du aukera:
alde batetik pena ematen du
eta besteetan euskera.

I. Murua: Bukaera ez zait gustatu baina
polita zendun hasera;
egia da bai maisu moduan
noa ni beti atzera.
Beittu gaurkoan zer gertatu dan
ta konturatuko zera:
egunez greba egin dutenak
gauean datoz klasera.

A. Arzallus: Orduan lana egiten dute
behar denean atsedena;
seguru asko berriz grebakin
hasiko da astelehena.
Filosofia omen bestea
hori da entzun detena;
filosofia irakasleek
maiz ematen dute pena.

A. Egaña: Filosofoak izan behar du
ideia zailen jostuna;
gogoan daukat Platon leizea
ta irudian oihartzuna.
Murua ere holako zerbait
izango du bai entzuna;
nola arraio azalduko du
berak ulertzen ez duna?

I. Murua: Erdi-erditik asmatu dezu
ez zaude tipo motela!
Wingenstein dela edo Descartes
edota Platon hor dela;
bestela berriz aipatzen degu
Nizstchen Jainkoan eskela;
esaten dute Ramon²³ ta biok
burutik jota gaudela.

A. Arzallus: Ni beldurtu naiz Descartes eta
Nizstche zuk hemen aipatzean;
nik Platonena bakarrik dakit
beste horiek ezean.
Egaña ere nunbait sartu zen
Platon haundian leizean;
zuk'e arreta nik bezelaxe
lehendabiziko klasean!

A. Egaña: Bigarrenera ere joan nintzen
ez zaite horrela ari!
Nik bezelaxe maisu jaunak'e
jakingo du bai ugari;
inork galdera eginez gero
problema latza da hori;
begiratu bat ematen dio
El Mundo de Sofiari.

(23) Ramon Amundarain, Goierriko Lanbide Eskolako irakaslea da, eta afaltiarren artean zegoen.

I. Murua: Bueno hortan' e aritzen naiz ba horretara banijoa baina Ametsen Platon kontua ez zait iruitu nahikoa; nahiz ta arretaz pasatu zuen klase bat lehenbizikoa berak ez daki oraindik baina Dionisos dauka Jainkoa.

A. Arzallus: Erantzuteko oraintxe jarri didazu garbi aukera: zuk Dionisos aipatu dezu ta hori zein kristo ote da? Jainkoa dala ez da Jainkoa harritu nauzu kolpera; barka zaidazu ni oaindik ez naiz kobazulotik atera.

A. Egaña: Neroni ere gaur aurkitzen naiz kobazuloan bezala Muruan lehengo bertsoa ulertzen egin arren eginahala; zerbait esan dit ta belarria luzatuagatik hala juxtu-juxtuan ulertuko diot ardoana Paco dala.

I. Murua: Inauteritan Baco Jainkoa gazte guztiek gogora ta Dionisosek bere garaian Egaña zuen aztora; Amets hau berriz koban oraindik dabil behera eta gora... koba haundin bat ez baldin bada makurtuta egongo da.

Elkar zirikatzen eta tentatzen jardun ondoren, beste hainbat gai jorratu zituzten.

ZEGAMA (2006-03-10)

*Bertsolariak: I. Zubeldia, A. Arzallus[♪]
eta S. Colina.*

Zegamako Gaztetxeak antolatutako bertso afaria. Afariaren aurretik bertso-triki-poteoa egin zuten herriko tabernetan zehar. Afaltiar gehienak gazteak, eta giro ona. Librean egin zuten saio guztia.

Neurria: zortziko handia
Doinua: *Ari naizela ari naizela*

S. Colina: Kozkaik ez dezu egiten baina tonua dezu zeruan; dardara ere nabaritzen da kristaletan ta zoruan; ahal baldin bada kanta ezazu sehaska kanten moduan hau telebistan pasako baita siestarako orduan.²⁴

A. Arzallus: Sustraik ez daki gaur nolakoak darabilzkin inguruan! Hemen siesta noiz egiten dan ibili det nik buruan; igande atsalde ordubietan hain juxtu mahai inguruan; hauentzat hori ez al da izango jeikitzerako orduan?

(24) Hitzetik Hortzerako kamerak saioa grabatzen ari ziren.

I. Zubeldia: Noski orduan jaikitzen gera ta odola irakiten. Aitatxok hala esaten digu “Atzo’re goiz hitzen irten!”. Herri honetan nola dagoen nik ez dakit zenbat kirten gure etxean builarik gabe ez da siesta egiten.

S. Colina: Juergara irtenda ez da izango honelako zakur zaharrik baina goizean kukurrukuka etxean bada oilarrik! Goizean goizik eginez gero hau bezelako marmarrik zuen etxean ez da izango despertadore beharrik!

A. Arzallus: Entzun dedanez nere ondokoak bi etxe dauzka sopra’re;²⁵ bueno Zegaman bera ta gurasoak Beasainen bizi dirade. Ta hire aita baldin ta badek hire ahotsaren jabe Beasainetik hots egingo dik bat’e telefonoik gabe.

I. Zubeldia: Beraz etxeak inork ez zeuzkak inguru hontan nik aina; hala ta guztiz neurririk gabe mugitzen diat mingaina. Nere aitatxo ez dek Lizaso ta noski ez dek Egaña; hala’re zurrunka majo eiten dik ahots bajua dik baina!

S. Colina: Parre besterik ezin det egin Zubeldiaren kerizan nahiz eta beti saiatzen naizen kontraesanen peskisan; honek kabiak asko daduzka ia-ia kukuan gisan; kukurrukua ere egiten du nahiz eta belea izan.

A. Arzallus: Ez dakit zein dan nik honek daukan talentuan jatorria baina ondoan kantatu behar da bada istilu gorria. Biak batean elkartzen ditu dotore dago jarria: panderistaren ahotsa eta bertsolari etorria.

I. Zubeldia: Ne barrioa beti izan da hegaztien parajea: usoak ulu eta oilarrak... badago nahiko kejea!²⁶ Lotarakoan eteten badit resaka edo ajea... zeozergatik erosi nuen hogeita biko riflea!

(25) Sobre’re: Goierrri aldean erabiltzen den hitza da, eta “dirudienez”, “antza” esan nahi du.

(26) Keja, kexa.

AZPEITIA (2006-03-17)

*Bertsolariak: X. Silveira, J. Maia, O. Enbeita,
A. Arzallus, Ministro eta A. Agirre.*

Gai-emailea: Haritz Arzallus.

Azpeitiko gaztetxean izan zen, gaueko hamar eta erdietan. Aretoa jendez leporaino beterik, eta bertsoarako giro egokia. Baleko saioa atera zen, baina ez zen ona izan.

J. Maia 

Gaia: Hiru urte dira Irakeko inbasioa hasi zela. Irakiar bat zara, erresistentziako militantea. Fusila hartuta etxetik kanpora zoazela “Nora zoaz?” galdetu dizu alabak.

Neurria: sei puntukoa

Doinua: *Hiru urte pasatu dira*²⁷

Hiru urte pasatu dira
baina ematen du mila.
Ordutik zenbat odol huste
eta zenbat iskanbila!
Bihotz barruan amorrua
eta eskuan fusila;
ezin det sinistu herri hau
jadanik dagonik hila;
hargatik banoa gerrara
lasai egon neskatila;
gerrara nijoa alaba
baina pakean bila. (bis)

(27) Arratsalde horretan bertan irratiari entzun zuen Bob Marleyren doinu ezagun bat plazaratu zuen. Molde berezia du: 9/8 silabako sei puntu. Hirugarren bertsoan 9/8 egin beharrean 9/9ko bi puntu sortu zituen; ez da harritzekoa, ordea, kantatzen zuen lehen aldia zela aintzat harturik.

Haundiak txikia jaten du
mundu honen erregela
eta guri tokatzen zaigu
txikiaren papela.
Hiru urtez mantendu gera
ta nola segi horrela
geure etxeetan sartuta
beti bildurrez gaudela?
Ulertu zaidazu alaba
ez naiz hain aita ergela
eta hil egin behar banaute
borrokan hil nazatela! (bis)

“Ez zaitetz joan hain itsua!”
sarritan dute esaten
baina nik ezin dut ikasi
zama astun hau eramaten.
Iaz ez genuen lortu ta
ez dugu lortuko aurten
baina berriz jeikiko gera
hoiek ulertu dezaten;
banoa alaba kalera
dudan guztia ematen
zuek noizbait bizi zaitetzten
herri zabal ta libre baten. (bis)



*Bertsoaren Beasaingo Lagunek antolatutako saioa
(Beasain, 2006-03-17)*

Argazkilaria: N. Erkiaga

ZESTOA (2006-03-18)

*Bertsolariak: A. Egaña, J. Uranga, S. Colina,
O. Alberdi, A. Mendiluze eta S. Lizaso.*

Gai-emailea: Mieltxo Aiertza.

Bertso eskolak urtero antolatzen duen bertso jaialdia.
Pilotalekuan izan zen, gaueko hamar eta erdietan hasita. Saioaren
aurretik Kupela musika taldeak lau pieza jo zituen.

J. Uranga- S. Lizaso

Gaia: Liburutegi ezagun bat erre da. Uranga eta Sebastian bi liburu
dira. Liburuzainak Uranga liburua gorde egin du, balio
handikoa delako; Sebastian, ordea, ez.

Neurria: zortziko handia

Doinua: *Haize hegoak hurbiltzen ditu*

J. Uranga: Esan ziguten gure lekua
hor erretzen ari zela.
Guztiak bota ta gorde naute
ni reliki bat bezela
eta zu berriz zakarretara
ze gauza lizun ustela!
A ze putada liburu maite
suak erre ez zintuela! (bis)

S. Lizaso: Sute batekin gu ateratzen
jardun ziren afanean
ni bota eta zu bakarrikan
gorderikan azkenean;
reliki gisa gorde zaituzte
kutxa baten barrenean
txarrena ere ona baitegu
bakarrikan dagonean. (bis)

J. Uranga: Txarrena ere ona omen da
horregatik nago lasai;
apal honetan jarraituko det
nik irakurlearen zai
eta zu berriz zakarretara
bota zaituzte gaur *porai*
gaur egunean Biblia inork
ez baitu irakurri nahi. (bis)

S. Lizaso: Ondo irakurriz nigandik ere
zerbait liteke atera
baina akaso zure zortea
agian zeure kaltera.
Bitatik baten nik nahiago det
eman didaten aukera:
ni reziklatu egingo naute
ta zu ustelduko zera. (bis)

J. Uranga: Usteldu arte hala ta guztiz
egongo naiz bero-bero
eta jendeak irakurriko
nau ni ia egunero.
Rezikatzea hobea denik
ez zazu arren espero:
hortako soilik balio dezu
bi mila urte ta gero! (bis)

S. Lizaso: Nerea joan da eta horrekin
ez naiz hasiko ezbaian
bainan zu ere alperrik zabiltz
gehiegi luzitu nahian;
irakurtzeko zu egunero
ez zera egongo mahaian:
liburuzainak hartuko zaitu
hautsak kentzeko garaian. (bis)

J. Uranga-S. Colina

Gaia: Bake prozesu baten atarian omen gaude. Jokin kazetariak
artikulu bat idatzi du egunkari batean. Sustraik eguneroko
moduan artikulu hori irakurri du eta oso minduta sentitu da.

Neurria: hamarreko txikia
Doinua: *Hamalau heriotzena*

S. Colina: Ai ene zenbat ohar
eta zenbat nota
aipatuaz manifak
ta kale borroka!
Ezker abertzalean
ustezko porrota;
zertan zabiltz gezurrak
bota eta bota
ia zurea ez den
herriaren kontra?

J. Uranga: Euskal Herrian bizi
dugun panorama
nere ustetan ere
bada nahiko drama;
baina kazetariok
beti dugun plana
ba al dakizu gazte
zein den nire lana?
Paperean jartzea
ikusten dedana.

S. Colina: Portugaleten agur
esan nahi Igorri²⁸
eta Baltzak gainetik
ertzainak igorri;
gainera pakerako
ez ziren etorri.
Hor gaude bisaiaik beltz
ta ipurdiak gorri;
esan zaidazu nola
deitzen zaion horri?

J. Uranga: Nere langintza omen da
zure ustez ganga.
Kalean denak dabiltz
dinbi eta danba
eta Portugaleten
izan zen eztanda
baina ez nintzen joan
egia esanda
lagunekin bazkari
ba izan nuan da.

S. Colina: Badaude mila ahots
ta mila eztarri
izan nahi luketenak
geroan euskarri
ta zuk uzten dituzu
beti parregarri;
herriari lagundu
asko eta sarri
ta lagundu ezean
trabarik ez jarri.

J. Uranga: Kontuak idaztea
da nere ardura
egunkari batean
ez lege ez muga;
haserre omen zaude
gaur nere kontura
ta ez izatekotan
haserre ta duda
erosi irakurri
nahi zenuen hura.

(28) Igor Angulo, Cuencako kartzelan hilik agertu zen euskal preso.

IGORRE (2006-03-19)

*Bertsolariak: I. Elortza, U. Iturriaga, A. Arzallus,
J. Maia, M. Lujanbio eta S. Lizaso.*

Gai-emailea: Saioa Amuriza.

San Josetako XV. bertso jaialdia. Frontoian izan zen, 18:30ean.
Ohi bezala, Arratiako Bertso Eskolak antolatu zuen.

I. Elortza-A. Arzallus

Gaia: Zuek biok euskara batua ez zegoen garaiko bi bertsolari zarete.

Neurria: zortziko handia

Doinua: *Zeru altuan zegoen Jaunak*

I. Elortza: Hizkuntza bakar bat ei daukagu
baina euskalkiak hiru-lau;
nahiz berba batzuk ezagutuaz
joan urteak pasau arau
Durangon jaio nintzen ni eta
barriz Hendaiakoa hau;
erdia aittu egiten dautset
ta erdia imajinau.

A. Arzallus: Nere eskuara baztertu eta
ez naiz Igorrera jinen
baina halere deus erran gabe
ez dut hemen aldeginen;
orain dena da “Gara” ta “Gaude”
dena da finetan finen
baina baturik ez zenean ere
untsa konprenitzen ginen.

I. Elortza: Antza ederto ibilten ginen
gu baturik ez zanean;
gitxienean hori aittu dot
zure lapur esanean;
arrazoi dozu lehen be igualtsu
ibilten ginen lanean
baina oin hobeto esplikatzen naz
zure herrira noanean.

A. Arzallus: Ene herrira joaiten zira
ta ez duzu deus oker joko;
euskaldun zaharrak ezautzen ditu
mila bazter eta xoko.
Guk gureari euts dezaiogun
ta gerokoak geroko!
Aro onarekin ikusten dira
Irati eta Anbotu.

I. Elortza: Aditza adostu ta hiru-lau berba
holan saihestu problemak;
halan gainditu genduzen nonok
ipinitako eskemak;
oin batuari gehitzen dautseguz
gure berba politenak;
gipuzkoarrak dira kolore
barik gelditu direnak.

A. Arzallus: Gipuzkera da nunahi aditzen
gipuzkera omen moda;
galdu zaizkigu gure aditzak
ta gure aditzen denbora.
Gipuzko hori bazter dezagun
zerbait egin beharko da;
zubi bat egin behar ginuke
Hendaiaatik Durangora.

S. Lizaso-J. Maia

Gaia: Zu, Sebastian, zortzi urteko mutikoa zara. Zure logelan sartu
zarenean, Jon, aita, zure itsulapikoa eskuetan duela harrapatu
duzu.

Neurria: zortziko txikia
Doinua: *Nere senarrarekin I*

S. Lizaso: Ez nuen pentsatuko
holako gauzikan!
Egin nahi dezun horrek
ez dauka hitzikan!
Aita nei ez eragin
zuk zorigaitzikan;
hori ez da zurea
nerea baizikan. (bis)

J. Maia: Isil-isilik eman
nahi nitun pausoak
baina umeak beti
dira kuriosoak.
Tripako mina zeukan
zure txerriak
ta kendu egin dizkiot
txanpon potoloak. (bis)

S. Lizaso: Buztinezkoa da ta
tripa mintzen zaila;
harrapatu dut eta
hainbat iskanbila...
Horra kolpetik jaitzi
nere aitan maila:
txarri haundia dator
txarritxoan bila. (bis)

J. Maia: Txerri haundia aita
baina tira, tira!
Ez zaite hasi negarrez
txerriai begira;
aldatu egin dizut
txanponen segida:
txiki-txikiak baina
hauek asko dira. (bis)

S. Lizaso: Aita uste al dezu
tontoa naizela?
Ni engainatzerikan
ez dezu horrela;
dirutan izateko
nahi dezun nibela
astero pixkat gorde
semeak bezela. (bis)

J. Maia: Hipotekakin dugu
horrenbeste pisu!
Zerga guzti hoiekin
zenbat amenazu!
Kendu dizudala ta
negarrez zaude zu;
haunditzen zeranean
ulertuko dezu. (bis)

S. Lizaso: Txikitan ere banaiz
ni ulertzeko gai
eta kutsatzerikan
aita ez nuke nahi
eta bide hortatik
ez zazula jarrai:
zeu hipotekatuta
semea ere bai. (bis)

J. Maia: Seme pelma hau daukat
kexan eta kexan
beti dago pagaren
eske ta promesan;
ez det ezer egingo
hola hartu dezan.
Ah eta amatxori
ezertxo ez esan! (bis)



*Bertso bazkaria
(Zaitegi, 2006-03-25)*

Argazkia: X.D.Z.

MENDEXA (2006-03-26)

*Bertsolariak: A.M. Peñagarikano, I. Elortza, U.
Iturriaga, A. Egaña, S. Lizaso eta S. Colina.*

Gai-emailea: Iratxe Ibarra.

Urte batzuetako etenaldiaren ondoren, jaialdia antolatu zuten berriro Mendexan. Igande arratsaldean izan zen, pilotalekua entzulez beterik zela.

A.M. Peñagarikano-S. Lizaso-I. Elortza

Gaia: ETaren su etena. Zer moduz hartu duzue?

Neurria: zortziko handia
Doinua: *Balentin Berriotxoarena*

A.M. Peñagarikano: Joan dan astean somatzen genun
zurrumuru nabarmena
eta hara non gero egia
lehen zurrumuru zena!
Beste konturik ez dago orain
ETak duen su etena;
lehen etsia hartuta nengon
oain badut itxaropena. (bis)

I. Elortza: Baina oindino ezin pentsatu
dana joakunik bikain
nahiz ta bagaren indarrak batu
ta aurrera egiteko lain;
orain bi aste baino hobeto
egia da gagoz orain;
berri on bat entzun eta ni nago
hobeak noz helduko zain. (bis)

S. Lizaso: Azken astea etorri zaigu
albiste onen karraio;
holakoari irrifarra ere
bere kasaka darraio.
Itxaropenai zabaldu arren
hemen ate edo leiho
begira dena ohartu ezean
kinuak ez du balio. (bis)

A.M. Peñagarikano: Oraindik ere aipatzen dute
askok Lizarra-Garazi;
izanez ere garai haietan
zenbat traba eta sasi!
Esaten dute gertatu zenaz
badagola zer ikasi;
orain hasi da jaiotzen eta
ez gaitezen hiltzen hasi. (bis)

I. Elortza: Egi-egizko soluzinoa
hori da gure helburu;
dana polita ez da izango
mundua beti da mundu!
Larogei eta hamazortziko
ikasgaiak hor ditugu;
hoba izango da joatea
astiro baina suguru. (bis)

S. Lizaso: ETak esan du ez omen dula
erabiliko indarririk;
horrekin soilik ezin bukatu
herri zahar honen negarrik.
Zapaterok'e mugitu behar
ez dago esan beharrik;
su eten orok ez du balio
alde batetik bakarrik. (bis)

A.M. Peñagarikano-S. Colina

Gaia: Azkenaldian gazteen artean ohitura bihurtu da lokaletan
geratzea. Sustrai, zu, jokaera hori duen hamasei urteko gaztea
zara. Peña, berriz, lehengo ohitura zaharrean parrandan
tabernetan jarraitzen duena.

Neurria: hamarreko txikia
Doinua: *Espanian behera*

A.M. Peñagarikano: Ez zabiltzala ondo
nago ohartuta;
ez al zera sentitzen
pixkat aspertuta?
Zu jota ote zauden
nago bildurtuta;
goazen kalerik kale
tragoak hartuta...
Zer egiten dezu ba
lokalan sartuta? (bis)

S. Colina: Lokalean sartzea
noiztik da delitu?
Nere ustetan badu
nahikoa meritu;
bertan sofán eseri
ta lasai gelditu...
Kalerantza tragota
zertako abitu?
Hantxe tragoak zeinek
ordainduko ditu? (bis)

A.M. Peñagarikano: Holako egoerarik
ezin leike jazo;
animatu zaitez zu
ta burua jaso
trago batzuk hartzea
ona baita oso.
Aizu ikusten zaitut
ta mesedez ixo
askatasuna eskatzen
eta beti preso. (bis)

S. Colina: Nola hartuko ditut
tabernan bi trago?
Nola ibiliko naiz
pikaro-pikaro?
Nola astakeritan
kaleak igaro?
Alper-alperrik nabil
kondenauta nago:
gehitxo hitz egiten dun
atso asko dago. (bis)

A.M. Peñagarikano: Nola ibiltzen geran
zuk hartu gogoan
ta arren lokalera
zu ez zaitez joan!
Hobeto ibiltzen da
lagunen beroan
batzuek ekarri ta
besteak eroan;
holaxe egoten da
kirkila zuloan. (bis)

S. Colina: Ta kirkilak ez badu
zulotik irten nahi
zuk atera arazten
ez al daukazu jai?
Beti zabiltz tabernan
beti zabiltz *porai*;
a ze alkohol kiratsa
ze zigarro usai...
Zu ez zara aldatu
baina garaia bai. (bis)

A.M. Peñagarikano: Gauza asko galdu dezu
galdu adorea
eta ia galdu dezu
zeure ohorea.
Nola egon daiteke
zuloan gordea?
Aurpegia ez daukazu
nik baino hobea;
horregatik daukazu
kaiku kolorea. (bis)

S. Colina: Astean zein jaietan
zuk beti parranda
ta etxera bueltatu
ohi zara edanda
zeneukan sos apurra
tragotan emanda.
Ez egin lagunarte
baten propaganda
berroita bi urtekin
ezkondu zinan da! (bis)

ELIZONDO (2006-04-01)

Nafarroako Bertsolari Txapelketaren finala.
Txapeldunaren agurra

X. Silveira

Neurria: neurri luzekoa

Doinua: *Haizea dator ifarraldetik II*

Lehenik eta behin musu goxo bat
eta besarkada bana
kartzel, erbeste zein su-eteneko
anaia-arrebengana;
euren baimenaz egin nahi nuke
senak eskatzen didana
ta nola egin... jo, nola egin
inoiz irten ez zaidana?
Printzesa bati sarritan bihotzez
erran izan diodana:
zarela mundu honetan gehien
gehien maitatzen dudana;
zarela nere bertsoen oina
nere bizitzako dama;
zarela inoiz gainetik kendu
ezin izango den zama;
aitarena dut izena eta
zurea nahi dut izana.
Eman gabeko musuen partez
txapela zuretzat ama.



*Nafarroako Bertsolari Txapelketa
(Elizondo, 2006-04-01)*

Argazkia: A. Elozegi

ZEGAMA (2006-04-02)

*Bertsolariak: M. Lujanbio, A. Egaña,
U. Iturriaga, I. Elortza, A. Mendiluze, S. Colina,
A. Arzallus eta J. Maia.*

Gai-emailea: Saroi Jauregi.

Herriko pilotalekuan izan zen, arratsaldeko sei eta erdietan.
Entzule asko eta oso giro beroa. Hasieran saio epel hasi zen, baina
bizi-bizi bukatu zen.

I. Elortza-U. Iturriaga-M. Lujanbio-A. Egaña

Gaia: Politika kontuak pil-pilean dabilta azkenaldi honetan, batez ere
ETAk duela hamar egun su etena iragarri zuenetik.
Konponbidea ekarriko omen duen elkarrizketa mahaiaren lau
hankak zarete. Zer itxura hartzen diozue etorkizunari?

Neurria: zortziko handia

Doinua: *Zazpi ahizparen gai den oihala*

I. Elortza: Oso hitz politikak entzuten dira
demokrazia, bakea...
baina hoietan gauza errezena
izaten da esatea;
oraindik ere politikoeak
badaukate hutsartea...
Nahi dut mahaipean dabilen gaia
mahai gainera eramatea.

U. Iturriaga: Mahai garrantzitsu ta haundi baten
eusteko lau hanka gara;
tinko eutsi nahi diogu honi
hortan ari gara jada:
ni naiz presoen laugarren hanka
zailena naiz beharbada;
kontraesana badirudi ere
mugitzeko ordua da.

M. Lujanbio: Nahiz mahaia beti dagon geldirik
aurrerantz behar da bultza;
badu koloka ta beharko du
gizartearen laguntza.
Lau hanka haritz itxurakoak
distiratsua geruza
baino beldur naiz lauetatik bat
ez ote dan barren hutsa.

A. Egaña: Izatekotan mahaiak behar du
gizartearen ekimen;
hankak zerratu nahi dituztenak
batzuk badira nabarmen;
besteren batzuk aitzaki gisan
hau, hori, hura ta zeren...
Erretratuan azaldu nahi dun
jende gehiegi da hemen.

I. Elortza: Ondo gatazka luzea da hau
ez dira berrogei urte!
Orain artean hiru hankako
mahaia aurkeztu digute:
lurraldetasun, burujabetza
ta akordioa hitz truke...
Erori ez dadin laugarren hanka
herritarrek behar dute.

U. Iturriaga: Askoren kezka da non ta nola
behar gaituzten gu koka.
Nire ustetan hori ordea
dugu alperreko bronka;
ez du ajola ez du balio
fotoak bota ta bota
mahai gainean parrez agertzea
ta mahaipean ostikoka.

M. Lujanbio: Lau hanka gerala laurok baino
hanka hutsa da alperrik;
gure gaina hartua du hainbat
legedik eta aldarrik.
Taula behar degu borobila
ez da karratu beharrik;
hala ez da alderdirik izango
erdigune bat bakarrik.

A. Egaña: Gure mahaia da gure herrian
borondatean islada;
horrexegatik herriak berak
behar ginduzke anpara.
Lau hankatik bat laburtu eta
kolokan jartzen bagara
libururen bat sartu azpian
historikoa ahal bada.



*Mendexako jaietako saioa
(Mendexa, 2006-03-26)*

Argazkilaria: N. Erkiaga

ABADIÑO (2006-04-28)

*Bertsolariak: A. Mendiluze, S. Colina,
M. Lujanbio eta Mañukorta.*

Gai-emailea: Beñat Ugartetxea.

Errota kultur etxe berrian izan zen jaialdia, gaueko hamarretan
hasita. Sanprudentzio jaiak ospatzen zituzten Matienan. Aretoa erabat
beteta eta giro polita.

S. Colina-A. Mendiluze

Gaia: Zuek biok mendi tontor bat igo duzue elkarri lotuta. Gora iritsi
eta irrist egin ondoren, bakoitza alde banatara erori zarete. Ez duzue
elkar ikusten, baina elkar entzun bai.

Neurria: hamarreko txikia

Doinua: *Lagundurikan danoi I*

A. Mendiluze: Abiatu ginen ta
jarraitu jarraitu
tontorraren konkistak
mereziko baitu;
baina pauso bakoitza
ezin ondo zaitu
eta azkenerako
arreta lasaitu;
orain mendiak berak
konkistatu gaitu.

S. Colina: Mendian gora joan
gara tirri-tarra
ta nahigabe gertatu
zaigu ezbeharra;
orain nahiz elkarrerri
guk eman bizkarra
goian buelta-bueltaka
dabil putretzarra
ta hemendik aurrera
panorama txarra.

A. Mendiluze: Mendiraino gogoak
berez eramanda
arimak beti baitu
kontuen demanda.
Abiatu jarraitu
ta kolpetik danba!
Orain aieka bana
ta biok etzanda
baina pauso okerra
norena izan da?

S. Colina: Aitor ze ajola du
norena den kulpa?
Gurea izango baita
heriotz arrunta;
barnean gorde ditut
milaka kontu ta
hobe hil baino lehen
denak aitortuta:
beti egon naiz zurekin
enamoratuta.

A. Mendiluze: Hori da kontzientzia
kolpez arintzea!
Lasai ordaina ez da
laguna mintzea;
tokatu da bakoitza
libre ibiltzea
eta hauxe kasua
kolpetik heltzea
maitaminduta eta
lotuta hiltzea.

S. Colina: Mendian gora joan
ginen bi atleta
eta amildegian
bihurtu poeta.
Nik hitzez bota dizut
nere hausnarketa;
esan maite nauzula
kauen la puñeta!
Total gaur berdin-berdin
hilko gara eta.

A. Mendiluze: Hiltzeko zertan dezu
hainbeste interes?
Utzi ta sokatiran
ahalegindu zaitetz!
Agian salbatzea
lor daiteke errez
ta salbatzen bagera
bi lagunene legez
ikusiko da hortaz
hitz egin edo ez.

S. Colina: Nahiz ta orain gabiltzan
gertu ta aparte
ta hala egon behar gendun
heriotzera arte
hor elikoptero bat
buelbaka jo ta ke
eta bonberoena
dugu baldinbaite!
Jada ez gara hilko
ta ez zaitut maite.

DURANGO (2006-05-07)

*Bertsolariak: A. Egaña, U. Iturriaga, I. Elortza,
A. Arzallus, S. Colina, M. Lujanbio,
J. Maia eta A. Mendiluze.*

Aurkezlea: Saroi Jauregi.

Gai-emaileak: Asier Ibaibarriaga, Josu Goikoetxea, Unai Elizasu,
Saroi Jauregi, Naroa Sasieta, Alaitz Rekondo eta Inazio Usarralde.

Hitzetik Hortzera bertso programak denboraldiko azken saioa
grabatzeko urtero antolatzen duen bertso bazkaria izan zen
Durangoko Plateruena kafe antzokian. Bertsozale asko elkartu ziren,
baina giro hotz samarra bertsoan egiteko.

A. Mendiluze 

Gaia: Demagun zeure buruaren disezioa egin duzula. Mahai batean
dituzu zure mihia, zure garuna, zure begiak, zure burmuinak eta
zure bihotza.

Neurria: hamarrek handia
Doinua: *Hil da Canovas, fuera Canovas*

Nere organo hauen aurrean
bat aukeratu beharko.
Zuek bezela nik pentsatu det
ez daudela horren bapo;
bihotza hartu aurrean eta
pentsatu det kanporako:
“Bale ondo da badabil baina
ez da ona neuretzako
sentitu nahiko nukeenarentzat
txikiegia delako”. (bis)

Beste bat kendu beharko eta
aukeran zenbat ahalegin...
Aukeratu nahi ta aukeratu
beharko bi begi urdin;
egia da bai serbitu naute
beti egoki beti fin
baina malkorik ez dute eta
nahiz eta izan nahiko min
malko gabeko begi hoiekin
ezin da farrerik egin. (bis)

Hain serioa zergatik izan?
Zertan hainbeste aitzaki?
Erdi bromatan baina mingaina
kentzea det erabaki;
neri begira egon direnek
esan izan dute beti
bertsoan bertan hasiagatik
joaten naizela urruti;
beraz mingainak *fallo* bat badu:
geldi egoten ez daki.

Neurria: hamarreko txikia
Doinua: *Agur sagar beltzeran*

Nere bost organoak
eskuen titere
aukeratu beharko
zein dedan mesede;
baina zenbat beldur ta
zenbat kezka lege...
Garuna zertan kendu
dudan alafede!
Honek ez du balio
aukerako ere!

Neurria: hamarreko handia
Doinua: *Mundu honetan halako gauzak*

Doinuak eta hitzak lotzeko
beti arnasari tira;
behar zena ta behar zenean
eduki banu sikira!
Baina birika lehor hauekin
iritsi naiz urrutira
eta bat gorde behar baldin badet
neretzat ere hori da
azken arnasa eman dezadan
itsasoari begira.

U. Iturriaga-A. Egaña

Gaia: Jorge Oteiza zenaren izanaren bi alderdiak zarete. Andoni alderdi alaia eta Unai alderdi gogorra, triste, isila.

Neurria: zortziko handia
Doinua: *Hasiko al naiz hasiko al naiz*

A. Egaña: Nere arerio haunditsuena
Joseba Arregi izan da;
toki ederrean egin zun gure
kulturaren propaganda.
Akabatu ez nuke nahi hori
egia garbi esanda;
seguru asko aski izango da
kazkarreko bat emanda.

U. Iturriaga: Izen bat entzun ta gelditu naz
oineztu baten moduan;
Joseba Arregi edo Satanas
aingeru hil bat munduan;
arretaik bape jarri ez ebana
nire lanen inguruan...
Nik hutsuneak kajetan eta
beste batzuek buruan.

A. Egaña: Beste argazki bat Txillidarekin
neu nengoela hiltzear
adiskidetzat aldetik baina
geunden juxtu eta mehar;
gezur irudi hori irten zen
albistegietan zehar;
zutikan ezin ginan egon ta
zedozerri heldu behar!

U. Iturriaga: Bi kokolo lez batu gintuen
biok larogei urtean
nahiz ta barruan bihotz-bihotzez
gorroto neban artean;
heldu beharra fotografoek
utzi beharko pakean...
Kauen! Pistola kendu eustien
ospital txarri batean.

A. Egaña: Behingoagatik hil nintzan baina
mintzoa badut hala're;
nere atzetik utzi nituen
hainbat obra ta ondare;
haietxek bere kargu hartu nahiz
gehienak putreen pare
baina ni gizon ona naiz eta
denak barkatuta daude.

U. Iturriaga: Hil ta be oindino etorten jataz
nire azkeneko uneak
Gasteiz hiruko Naparroai eman
nire sorkuntza xumeak
gero saldu ta prostituitu
lanaren inguruneak.
Kntuz ibili berpiztuko naz
frankista putakumeak!

M. Lujanbio-I. Elortza

Gaia: Kantu herrikoi batek niri pena handia ematen dit. Kantua dio:
Anttoni, Anttoni ate ondoan nago ni. Ai, Antton, ai Antton... Ez,
ez. Aski da. Bada garaia barrura sartzeko.

Neurria: Sei puntuko motza

Doinua: *Aresoarren bandera/ Aizak hi mutil mainontzi*

M. Lujanbio: Hamar urteko boladan
balkoi azpiko pasadan
hor ibili da jira ta bueltan
sarri nere traban;
berriz ate joka dan-dan!
Zabaldu arrapaladan
ta ia ez dakit zu Antton zeran
edo beste bat dan. (bis)

I. Elortza: Hauxe ez neban espero
neu be nago erdi ero;
bueno Anttoni a(g)indu egizu
zer egin behar dan edo...
Zure atean portero
banintza eta balego
atea joten baino ez dakit
urteok ta gero. (bis)

M. Lujanbio: Beraz atea jotzeko
entrenatuta ta peto...
Segi horretan zure intentu
eta gainontzeko;
ez al zabiltz Antton seko
inpaziente antzeko?
Ilea hazteko zai nengoen ni
trentzak botatzeko. (bis)

I. Elortza: Herri kantuen kaso
da kaso bat kurioa;
igual hementxe hasi liteke
iraultza osoa;
zuk eman duzu pausoa
ta bai momentu gozoa;
igual konpondu egingo dugu
euskal arazoa. (bis)

M. Lujanbio: Gu hori konpontzeko gai
ez gera eta ez det nahi;
nik nahiago det konponbide eman
kontu intimoai:
atea ireki ta ai!
Gainera datorkit lasai...
Ate atzean ez ate atzean ez!
Baino ganbaran bai. (bis)

I. Elortza:
Ganbaran bai mila neke...
Benetan posible ete?
Gure arazoa konponduko da
gozo eta merke.
Bestea jarri zait tente
sortuko da ehunka jente:
lehenengo Antoni, gero Anthoine ta
gero Antoñete. (bis)



*Arabako Bertsolari Txapelketa
(Gasteiz, 2006-05-27)*

Argazkilaria: E. Sanz

GASTEIZ (2006-05-27)

Arabako Bertsolari Txapelketaren finala.
Txapeldunaren agurra

Zigor Enbeita

Neurria: hamarreko handia
Doinua: *Lurraren pean sar nindaiteke*

Hiru hilabetetregua hura
argitu zutela;
hiru hilabete pake bidean
herria abiatu zela;
hiru hilabete hara denbora
pasa egin zaigu bela
baina tamalez gauza larregi
ditugu lehen bezela:
euskal presoez beterik dago
Espainian hainbat kartzela;
senideentzat kilometroak
eta destinu krudela:
Heurentzat dira nire txaloak
eurentzat nire txapela. (bis)

ARRASATE (2006-06-17)

*Bertsolariak: I. Ibarra, U. Iturriaga, J. Labayen,
S. Colina eta M. Lujanbio.*

Gai-emailea: Lierni Altuna.

AED elkarteak antolatutako jaialdia, Monterron parkean, gaueko hamar eta erdietan.

J. Labayen-U. Iturriaga

Gaia: Zuek operatu berri zareten bi transexual zarete. Gaur taberna bateko komunetan egin duzue topo. Biok ez dakizue zein komunetan sartu.

Neurria: zortziko handia

Doinua: *Haize hegoak hurbiltzen ditu*

U. Iturriaga: Behingo batean iritsi zaigu desio gendun eguna.
Orain aukera egin behar ta gure garunen *run-runa*;
zuk hartu zazu mutilena ta nik berriz nesken komuna
zuk iragana ikus dezazun eta nik etorkizuna. (bis)

J. Labayen: Baina atzean utzi nahi nuke lagun iragan horrena;
damutzen hasi da kontzientzia baina ez zaitez izan pelma;
hemen aldarrri egin behar da geure eskubideena
jarriz komunak neska, mutila eta transexualena. (bis)

U. Iturriaga: Neu nabil gaizki edo bestela zerbait oker dabil hemen.
Aizu Julene garai batean biok gizonezko ginen ta gona bako pertsona baten irudia hor WCen
baina zu ez zaude oso seguru zertako operatu zaren. (bis)

J. Labayen: Ni operatu egin nintzen bai dakit gogo nuela
ta gaur zalantzan egon beharra ez al da gauza krudela?
Ezin da ibili komun batean duda ta muda horrela;
kantoi batean egin dezagun garai batean bezela! (bis)

U. Iturriaga: Zuri neurona guztiak kolpez funditu zaizkizu chika;
atea behingoz zabaldu zaigu lehen zegoena itxita.
Txisa egiteko egin badugu eztabaida eta zita
barkatu baina txisa txisa da zutunik edo jarrita. (bis)

J. Labayen: Bota didazun arrazoi hori
filosofia da aizu
eta gainera onartuko dut
ez du egiten enbarazu.
Barrura noa txisa egitera
egin behar dizut kasu
baina bakarrik ez dut sartu nahi
lagunduko al didazu? (bis)

Ni ez naz izan igual zugana
ama lez horren gertuko;
harek zenbat min sortu eban han
nire ama da lekuko.
Baina aurrera jo behar dogu
ez gara ez kikilduko.
Harriak berak aitortu deutsu
nik hau kantatu orduko
gure herriak sekula santan
ez zaituela ahaztuko.

I. Ibarra

Gaia: Klean oinez zoazela Gerra Zibilean hildakoen oroigarri
aurretik pasa zara, eta zure amonaren izena irakurri duzu.

Neurria: hamarreko handia
Doinua: *Gure aurreko guraso zaharrak*

Urte haietan odol ugari
ta ugariago mina;
kontau eustien edo ein eben
horretako ahalegina.
Orduz geroztik gure historia
ez da izango bardina
eta gauza bat badot barruan
sortzen deustana samina:
beste hainbeste gazten moduan
zu ezagutu ezina.

Gure artean be ez zan izan
garai haretan bakerik
eta herriko famili asko
gelditu zan apurturik.
Halan da guztiz zuk ez zenduan
izan ezeren errurik
baina zelako ondorioak
holako hainbat gertakarik:
ama lotu zan erdi umezurtz
ta ni historia barik.

HERNANI (2006-06-26)

*Bertsolariak: X. Paya, U. Iturriaga,
B. Gaztelumendi, M. Lujanbio eta J.M. Irazu.*

Gai-emailea: Gorka Tolosa.

Atsegindegiko aterpean izan zen, euria egiten zuela eta, arratsaleko zazpi eta erdietan. Elur Txori elkarteak antolatu zuen.

S. Lizaso-M. Lujanbio

Gaia: Andoni Egañari entzun nion bertsolaritza aldatuz doala eta entzulea ere bai. Egin jaialdi ezberdinen eta entzulearen erradiografia bat.

Neurria: zortziko handia

Doinua: *Kantore berri xarmant batzuek*

S. Lizaso: Plazarik plaza iristen gera
gu ohore horrenbestetan;
inoiz edo behin bertso afaritan
edo herriko festetan;
momentu denak hain ezberdinak
baitira nere ustetan
betegarriak gera batzutan
osagarriak bestetan. (bis)

M. Lujanbio: Ta gaurkoa da kasu horien
adibide borobila:
Euskal Herrian politikako
kontuez dakigu pila;
Atsegindegin bertso saioa
originala dedila
publikoa baino gehio dirudi
konzentrazio isila. (bis)

S. Lizaso: Bertsolarien lana da beti
bertsoan sua piztea
ahalikan eta dotoreena
kontatuaz albistea;
baina alperrik ateraldia
hitz-joko edo txistea
saiatu arren lortzen ez bada
zuengana iristea. (bis)

M. Lujanbio: Ta festetako bertso saiotan
zenbat zarata guztira!
Iskinan txoznak ta txurroera
tiobibok jira-bira;
haurrak aurrean ta jolasean
dibertitzea desira;
gaur ez baino igual egunen baten
zaleak izango dira. (bis)

S. Lizaso: Horretarako gure ametsak
behar dira borobildu
eta aukera daukagunean
zer dala eta isildu?
Gaztediaren gupil eroa
maldan ez bedi amildu!
Helduak zaintzen saia gaitezen
eta gazteak hurbildu. (bis)

M. Lujanbio: Atsegindegi jendez bete da
ta hori ez da debalde;
denak propio etorri dira
bertso entzutean alde;
kale nagusin ta andre kalean
parranda ohi da goi ta behe
askok bertsoak entzuten ditu
batere bila joan gabe. (bis)

LASARTE-ORIA (2006-06-29)

*Bertsolariak: A. Arzallus, P. Etxeberria,
A. Otamendi, M. Lujanbio, J.M. Irazu
eta A. Egaña.*

Gai-emailea: U. Muñoa.

San Pedro egunarekin ohitura bihurtu dute Lasarten jaialdi hau egitea. Manuel Lekuona Kultur Etxean izan zen, gaueko hamarretan.

*P. Etxeberria-A. Otamendi- A. Arzallus-
M. Lujanbio- J.M. Irazu-A. Egaña*

Gaia: Une politiko garrantzitsua bizi dugu herri honetan. Nola bizi ote dute prozesu hori Euskal Herriko sentsibilitate desberdinek? Patxi, 80 urteko euskalduna. Andoni Otamendi, politikari kasurik egiten ez dion gaztea. Amets, urtetan mehatxatua bizi izan dena. Andoni Egaña, ETAkidea. Irazu, 20 urte kartzelan daramatzen euskal herritarra, eta Maialen, senarrak jipoitzen duen emakumea. Zer doinutan kantatu behar duzuen nik esango dizuet.

Neurria: zortziko handia

Doinua: *Ari naizela ari naizela*

P. Etxeberria: Hirurogeita hamabost urte daduzkat bete-betean;
gora-behera asko ikxi ditut bizitzan orain artean
eta geroko hara nik gaur zer eskatuko nizukean:
ikusiko nahiko nukeela hau're:
Euskal Herri hau pakean.

Neurria: zazpi puntukoa

Doinua: *Neska zaharrak eta apaizak I*

A. Otamendi: Lehengo batean oso tristerik ni neu sartu nintzen lota asko ikusirik jota
telebistak'e hainbat irudi nola zizkiguten bota.
Politikoak ere ikusten ditut nik gaur alkar kontra;
ez dezaidatela konta egia esan pelikula hoiek ez naute jartzen bor-borka
Españak galdu zun ezkeroztik ezer ez baitzait inporta. (bis)

Neurria: bederatzi puntukoa

Doinua: *Nere gorputza dardarka daukat/ Zure koadro bat egin nahi nuen*

A. Arzallus: Hiru bizkarzain nere atzetik pausora segi ta segi;
begi askotan irakurri dut: ETA, Batasuna, Segi...
Hau konpontzea zaila zegoen zaila baina ez zailegi;
eta kalera ateratzea bilakatu zait zilegi.
Gaurtik aurrera ez naiz biziko bizkarra emanda deneri;
beldurrik gabe ezeri mahai baten buelta eseri;
bi hanka dauzkat bi esku dauzkat bi belarri ta bi begi;
poz ematen dit begiratzeak denei aurpegiz aurpegi.

Neurria: bederatzi puntukoa
Doinua: *Munduko ilunabarra*

A. Egaña: Gogor jardun gendun gidan
ez dakit dena berri dan
amets txarrenen kupiran
ziegan lagun bat dilindan.
Geure etxera bueltatu nahia
hala're ez erretiran;
gure herria ikusi nahian
zorionez kalejiran;
aritu gera askatasuna
ta pakearen desiran;
ez degu etsi pakea txatxu ta
gezurtero baten jiran;
zerbaitegatik bizi gera ta
zerbaitengatik hil ziran. (bis)

Neurria: zortzi puntukoa
Doinua: *Baserrian jaio nintzan / Habanera*

J.M. Irazu: Pistola eskuan nula
amestu askatasuna
ta gero bizi erdia
amets gaiztoetan juna;
hogeitun beste hamar
nere opari kuttuna;
paretean idatzia
irtengo naizen eguna...
Argel, Lizarra-Garazi
zer da gelditu zaiguna?
Oraindik ere zalantzan
dakusat etorkizuna;
argia badatorrela
azken boladan entzuna;
printza batek ez du argitzen
hogeitun urteko iluna!

Neurria: zortzi puntukoa
Doinua: *Animoak ta eupadak*

M. Lujanbio: Zer-nolako mamia den
halakoxe eskola;
etxe itsak gizarte bat
zornea dariola;
zer da terrorismoa? Hau
hau ez dute deitzen hola;
senarraren ukabila
eta zapata zola. (bis)
Otegik dio seduzitu
ein beharra dagola;
Zapaterok talantea
Josu Jonek kontrola.
Nik etxean ikusi dut
ez pantailan odola;
bi bihotz ezin konpondu
ta bi gizarte nola (bis).

*P. Etxeberria-A. Otamendi- A. Arzallus-
M. Lujanbio- J.M. Irazu*

Lehen puntua emanda, nahi duenak erantzun.

Neurria: zortziko txikia
Doinua: *Haizeak bidali du*

U. Muñoa: Nere kartilan ez da
gehiago kabitzen;

P. Etxeberria: sobre dana nei eman
ez al dek aditzen?
Nik lagunduko diat
patrika arintzen;
ia zerbait txanpenez
osatutzen naizen.

U. Muñoa: Zure amets guztiak
beteko balira...

A. Arzallus: Ai zenbat txiste nere
izenan harira;
Amets eta ametsak
ez nahastea tira
nik oraintxe daukadan
ametsa hori da.

U. Muñoa: Lehen gaztea nintzen
eta orain aita;

J.M. Irazu: uste nun nik bestea
nahiko zula aipa
baino neretzat txanda
jarraika-jarraika
gaztea zahartzea
legezkoa baita.

U. Muñoa: Bertsolari gazteak
kantatu nahi dute

A. Otamendi: guk baditugulako
hainbeste bertute;
zuk'e abildarea
daukazula uste
ta zuk ere txiki bat
bota behar zenduke.

U. Muñoa: Garai batean zeunden
bertsolari onak;

P. Etxeberria: asko dira hemendik
aspalditxo jonak
baino oraindik ere
bizi dira sonak;
gutxi izaten dira
halako gizonak.

U. Muñoa: Txirrita bizi balitz
zer esango luke?

M. Lujanbio: Maiteko ninduenik
ez det asko uste;
ordutik pasa dira
larogein bat urte;
igual kaskarrekon bat
emango liguke.

U. Muñoa: Kartzeletan badago
gazte jende pranko

A. Arzallus: beti itxaropenak
utzita biharko;
guk ahal degun neurrira
lagundu beharko
segidan ikusteko
kartzelatik kanpo.



*Bizkaiko Bertsozale Gazteen egunean "Emetik bertso-kabareta"
(Larrabetzu, 2006-04-08)*

Argazkia: O.Enbeita

USURBIL (2006-07-01)

*Bertsolariak: A. Egaña, A. Arzallus, M. Lujanbio,
J.M. Irazu, S. Colina eta J. Sorozabal.*

Gai-emailea: Joxe Mari Izeta.

Santa Ixabel jaietan urtero antolatzen duten jaialdia. Pilotalekuan izan zen, gaueko hamar eta erdietan.

J. Sorozabal-J.M. Irazu

Gaia: Jokin, gurasoen etxetik joan egin behar duzula pentsatu duzu. Etxe koxkor bat bilatu duzu errentan. Dena prestatu samar zenuela uste zenuen, baina jatordua iritsi denean, gaizki ikusi duzu zure burua. Amona Jexuxarengana joan zara porru patatak nola egiten diren galdetzera.

Neurria: zortziko handia

Doinua: *Emazte baten bihotz xamurra I*

J. Sorozabal: Kaixo amona gaurko honetan
nola degun larunbata
afari on bat preparatzeko
motiborik ez da falta.
Zuk erakutsi behar didazu
neretzako zaila da-ta;
aurrena eosten ze jarri behar da
porrua edo patata?

J.M. Irazu: Lehendabiziko nere biloba
behar da egosten jarri;
irakin on bat eman ez gero
badaki denaren berri;
lehenik porrua, gero patata
ta gero nahastu elkarri
baina on-onak jate ezker
amonangana etorri.

J. Sorozabal: Banekien bai hau ona zala
ez zan besteik sinisterik
baina ez pentsa neure burua
hortaino abandonatzerik.
Zuk ba al daukazu sukaldetikan
katxaroren bat uzterik?
Etxe horretan ez det aurkitzen
mikroondas bat besterik.

J.M. Irazu: *Mikroondasak* jarri al zaitu
janerako ezinian?
Garai batian gu ez genbiltzan
gaurko modu berdian;
jana azkarra txarra izaten da
zaude horren jakinian;
itxurazkoak egite ezker
ekonomikan gainian.

J. Sorozabal: Uda beroa daramagu ta
hori ez da nere plana;
bero hauekin sua piztea
izaten da nahiko lana.
Gero bigarren platera eske
hemen nator zuregana;
ze jarriko det zeozer merkea
ta errez egiten dana?

J.M. Irazu: Espagetiak gauza gehiegi
ez al da amonantzako?
Nik babarrunak ta gixatuak
jo izan ditut ontzako;
nik zer kontseju eman bihar det
nere bilobarentzako?
Lagun koxkorrik ez al daukazu
afaria prestatzeko?

M. Lujanbio 🎵

Gaia: Duela hiru hilabete harreman bat hasi zenuen zure senarra ez den beste batekin. Denbora aurrera doa, eta senarrari esan behar diozula pentsatu duzu, baina zuzenean ausartzen ez, eta telefonoz mezu bat uztea pentsatu duzu. Ahalik eta minik gutxien eginda esan nahi diozu.

Neurria: hamarreko handia
Doinua: *Hil da Canovas, fuera Canovas*

Bat, bi ta hiru tonu jo ditu
etxean ez da izango;
kontestadoreen utzi beharko det
ze xeobre, ze arraro!
Zera, ba, kaixo, bueno, ba, ni naiz
zera dizut gaur esango;
badakit asko maite nauzula
ni hortaz seguru nago;
nik lehen ainaxe maite zaitut zu
baino ez lehen baino gehiago.

Zurrumbilo bat etorri baita
nere estomago erdira
zergatik eta zertarako den
ez det bereizten guztira.
Zuk badakizu zer den gogoa,
maitasuna ta desira;
munduan ere gizon bakar bat
ez da existitzen ta tira;
bihotzak dauzka lau gela eta
begiak ere bi dira.

Ba, alegia, esan nahi nizun
jarri badezu arreta:
nere burua eta bihotza
dabilta buelta ta buelta;
nere sabela ez dagoela
bat bakarrantzat gordeta;
besteren batek sortu didala
gogoa eta apeta
baina deitu zuk deia garesti
irtengo da bestela eta.



*Euskararen eguneko bertso saioa
(Muxika, 2006-07-02)*

Argazkilaria: Z. Enbeita

DIMA (2006-07-02)

*Bertsolariak: E. Lekue, A. Mendiluze,
J. Uranga eta E. Intxaurrea.*

Gai-emailea: Eñaut Intxaurrea.

Plazan izan zen, arratsaldeko seietan, Kultura Batzordeak antolatuta.

A. Mendiluze

Gaia: Zure bikotekidearen erasoak sufritzen dituzu. Berrero ere sukaldean negarrez zaude.

Neurria: hamarreko handia
Doinua: *Lurrarenpean sar nindaiteke*

Maite nauela esan dezake
zerbait esateagatik;
nahiz ta ez jaso esaldi onik
bere bi ezpainetatik
datorrenean bildurtzen naiz ni
bistakoa da zergatik;
ezin duela hori ekidin
hori ere ondo dakit
ta berriz ere negarrez nabil
nigatik ta beragatik. (bis)

Gauean gogor baldin badator
biharamunean triste;
gauean kolpez hartzen nau eta
goizetan barkamen eske.
Horrela segi ote daiteke?
baiezkorik ez det uste;
baina zer egin ote nezake?
Bihotzek lotzen gaituzte;
braz berataz errukitzen naiz
neure buruaz hainbeste. (bis)

Noizbait baietza eman genuen
familikoak lekuko;
pentsatzen nuen arroxaz zena
ez zela inoiz aldatuko
baina beltzera jo zuen denak
eskua jaso orduko.
Eta gaur ere ezingo dio
ardoari egin uko;
berriz jotzera etorriko zait
baina ez nau aurkituko. (bis)



*San Ferminetako bertso saioa
(Lesaka, 2006-07-07)*

Argazkilaria: O. Aranburu

MUNGIA (2006-07-07)

Bertsolariak: B. Ugartetxea eta Mañukorta

Gai-emailea: Iñaki Beitia.

San Pedro jaien barruan txosnetan izan zen bertso bazkaria. Lehenbiziko zatian librean aritu ziren, eta ondoren gai-emailearen esanetara.

B. Ugartetxea-Mañukorta

Gaia: Anne Igartiburu libre dagoela-eta zuen buruaren propaganda egitea pentsatu duzue.

Neurria: zortziko txikia
Doinua: *Haizeak bidali du*

Mañukorta: Garai baten hori zen
 neskatxa umila;
 argia ta leiala
 gure sorobila;
 ezkondu eta orain
 beste baten bila...
 Mañukorta ona da
 zuretzat mutila.

B. Ugartetxea: Nik sekretu bat daukat
 praketan gordea;
 mutilori ematen
 digu ohorea;
 luze samarra eta
 beltza kolorea
 ta Mañuren aldean
 mutil dotorea.

Mañukorta: Propagandan gabiltza
 zertako ukatu?
 Gauza onik ezin da
 honela trukatu;
 lehenbizi bi gauetan
 biok aprobatu
 ta gero onena nor dan
 zeuk aukeratu.

B. Ugartetxea: Zu beti itsusi ta
 ni beti dotore;
 gainera jolasetan
 ausart eta trebe
 laztanak egitea
 baita nere lege;
 hori berak badaki
 probatu gabe're!

Mañukorta: Beraz laguna horra
 zuretzako plana;
 nola ematen ez daki
 ezpainetan laztana...
 Mañukorta da hemen
 gaur suplente dana
 baina etorriko zera
 berriz neregana!

B. Ugartetxea: Mañu soilik bertsoan
 da oso abila;
 beste guzti horretan
 erdi inutila;
 askozaz hobe da
 alboko mutila...
 honek gerria gogor
 ta makal zakila.

LEZAMA (2006-07-09)

*Bertsolariak: S. Colina, I. Elortza,
A. Arzallus eta E. Lekue.*

Gai-emailea: A. Estiballes.

Goitiolatzan izan zen jaialdia, auzoko landan, arratsaldeko zazpi eta erdietan. Lezama bizirik izan zen antolatzailea, jai egitarauaren barruan.

S. Colina-I. Elortza-A. Arzallus-E. Lekue

Gaia: Orain dela bi ordu etxean zeundeten sofán etzanda, eta hona etortzeko gogorik gabe. Kantatu benetan zuen burutik pasa zaizuen agur hori. Benetan pentsatzen zenuten hori.

Neurria: zortziko handia

Doinua: *Kantore berri xarmant batzuek*

S. Colina: Tourra ikusten nengoen lasai
telebistan ze turrada!
Siesta eginez ze lasaitasun
ze logura, ze patxara!
Gaurkoan ere bertso tara joan
botatzera bi txorrada
mapa mundian agertzen ez den
auzo txiki batetara. (bis)

E. Lekue: Gogorik ez ta irribarrea
erakusten hemen gabiltz;
gaur da finala ta niri horrek
zelan ez eiten daust diz-diz
baina kantatu egin behar dot
Goitioltzan bestetan aldiz;
saioa aurreratu egingo eben
España sailkatu balitz! (bis)

A. Arzallus: Ah ba nik neukan kriston gogoia
ta ilusio itzela!
“Gaur egin behar dut saio haundi bat
erantz dezaten txapela”;
noiz abituko pentsatzen nengon
ohe gainean nengoela...
Ez da hala baina kantatu behar da
halaxe balitz bezela. (bis)

I. Elortza: Bertso saioa suspenditzeko
domeka aspergarri baten
inoiz desastre naturalen bat
txarra be ez da izaten;
lainoak batzen dabiz zeruan
uda sargoria aurten
ta desiatzen nago kristoren
kazkabarra hasi daiten. (bis)

ALTZO (2006-07-30)

*Bertsolariak: M. Lujanbio, A. Egaña, A. Sarriegi,
I. Elortza, J.M. Irazu eta U. Iturriaga.*

Gai-jartzailea: Altzoko bertsozaleak.

Gai-emailea: Manuel Olano.

Saninazio jaietan ohikoa den jaialdia. Jai Batzordeak antolatzen du Udalaren babesean. Gaueko hamar eta erdietan izan zen, pilotalekuan; entzule asko.

U. Iturriaga-A. Sarriegi

Gaia: Laugarren edo bosgarren mendekoak izan daitezkeen aurkikuntzak egin dituzte Iruña-Veleian. Hainbeste urte igaro, eta han aurkitu dituzte euskarazko hitz hauek: jan, lo, edan... Ez al da kurioa?

Neurria: zortziko handia

Doinua: *Zazpi ahizparen gai den oihala*

U. Iturriaga: Oso gustoko daukat Manuel
gaia zuk zeuk ipinia;
akabo izerdia ta lana
ta euskaldunen harmonia!
Ta akabo Sabinon mitoak
ta euskaldunon agonia!
Aldarrikatu dezagun lehengo
euskaldun Babilonia!

A. Sarriegi: Nik ere berdin bat egiten det
zure aldarrikapenetan;
ohiturak asko aldatu dira
gaur egun mundu honetan
baina euskalduna ez da aldatu
mende guzti horietan
eta horrela segi dezala
beste hamabost mendetan!

U. Iturriaga: Imajinatzen dut debekatu
egingo zutela lana
lurretik berez irtengo zana
bestela zerutik mana
egongo zela ardo gozoa
ta sobera marihuana...
Noizbait denboran atzera itea
horixe da nahi dudana.

A. Sarriegi: *Edan, jan ta lo* atera dira
beraz ezer ez da falta
baina hala're Arantzadiri
eskaera bat aparta:
ez al da hobe dauden harriak
beren horretan lagata?
Beste harri bat altxatu ezker
lana aterako da-ta!

U. Iturriaga: Gure herrian sufrimentuan
gainean beti bi bele;
apaiz jantzita izan ditugu
orain ein bezate ele!
Siglekin bizi izan gara ta
hala laburtzen dut bale:
pikutara JEL sasi kristaua
ta gora EJJ!

A. Sarriegi: Harri ugari altxatu arren
sekretua ez da atera;
guztiok geure egina degu
pozik ta danok batera.
Altzon frontoian “Edan, jan ta lo”
goazen pintada egitera
ta igual berdin altxako dute
hemendik mila urtera.

A. Sarriegi

Gaia: Uda partean badakigu ura jenero preziatua dela. Badakigu ez dela alferrik galdu behar, neurrian gastatu behar dela eta abar. Dirudienez, Altzoko Udalak ere horrelako zerbait pentsatuko zuen, ideia distiratsuren bat izan du, eta hemendik aurrera Altzoko herritarrok ura orain arte ordaindu dugunaren bikoitza ordaindu beharko dugu.

Neurria: hamarreko handia
Doinua: *Aita izena kanta beharrak*

Berdin da izan herri erdian
berdin da izan auzoan
ura gorantza doala beraz
eta Manu erasoan.
Nahiz ta kontua zuk ez aipatu
batere modu goxoan
ta altxotarrak ezin gastatu
urik modu erosoan
bizitza gora dihoa Manu
Altzon ta mundu osoan. (bis)

Baina keba, ez, hau ez da dena
ez naiz ibili hain trebe;
zeinek ote du tasak horrela
igotzeko aina botere?
Horretarako hainbeste pleno
erabaki eta lege;
lehengoa broma izan da eta
entzun, egizu mesede:
laister kobratu egingo dute
arnasten deguna ere. (bis)

Eta hiler o sei hilez behin
kuota polit bat sari;
guk ere sarri jasotzen degu
holako hainbat opari
baina begira jarririk orain
juxtu Altzoko herriari;
holako gauzak gertatzen dira
mundu honetan ugari
botere pixkat emanez gero
tokatzen ez zaionari. (bis)

BILBO (2006-08-20)

*Bertsolariak: A. Agirre, A. Egaña,
I. Elortza eta A. Arzallus.*

Gai-emailea: Uxue Alberdi.

Bilboko Aste Nagusian Santutxuko Bertso Eskolak antolatzen dituen bertso saioretako bat. Santiago plazan izan zen, eguerdiko ordu batean. Bero egiten zuen, baina entzule asko elkartu zen bertsolariak entzutera.

A. Agirre-I. Elortza

Gaia: Zuek bi farola zarete. Amaia, zure argitan mozkor bat dago bere buruari eutsi ezinda; eta Igorren argitan, berriz, prostituta bat.

Neurria: hamarreko txikia

Doinua: *Espanian behera*

A. Agirre: Moxkor bat nere beheran
jira eta bira;
goitik ez da ederra
buruan distira!
Hemendik ez da joango
oso urrutira.
Argipean biena
hala're argi da:
besten baten argitan
elkartuko dira. (bis)

I. Elortza: Prostituta hor dabil
bat eta bestera
berdin biharamuna
ta berdin bezpera;
nigana egiten du
hamaika ostera;
argipean jarria
malkoren bat behera
ta berriz ilunetan
lana egitera. (bis)

A. Agirre: Mozkorra pasatzea
ote helburua?
Baina etorkizuna
ez du segurua;
ezpain artean dauka
oraindik purua
baina pasako duna
hau da apurua!
Ezer saldu aurretik
galdu du burua. (bis)

I. Elortza: Baina gizarte hontan
zer ez da eromen?
Errespetuzko jente
bat hor zehar omen
prostitutarengana
gozatuz gozoen.
Baina berak lan hoiek
atundu ondoren
moxkorraren kantua
dauka gustuko. (bis)

A. Agirre: Burua lau metrotan
ez zaio kabitzen;
zurea ere ez da
hain lasai ibiltzen
norbera ta besteak
ahal dala zerbitzen...
Lan errexa dutenik
ez zait iruditzen
zureak etzaten ta
nereak jaikitzen. (bis)

I. Elortza: Nerea etzaten da
suabe-suabe
gaua iluntzen bada
farolaren pare;
goiz argitzea berriz
deskantsu seinale
eta etxera joaten
da ha bare-bare
gabaz hartutakoei
agur egin gabe. (bis)

BILBO (2006-08-26)

*Bertsolariak: J. Uranga, S. Lizaso,
A.M. Peñagarikano eta J. Maia.*

Gai-emailea: Jon Eizmendi.

Bilboko Aste Nagusian Santutxuko Bertso Eskolak antolatzen dituen bertso saioetako bat. Santiago plazan, eguerdiko ordu batean.

J. Uranga-S. Lizaso

Gaia: Jokin gauero atera da ligatzeko asmoz, baina beti porrot egin du. Gaur, Sebastian aitari aholku eske joan da.

Neurria: zortziko txikia

Doinua: *Dama gazte xarmant bat*

J. Uranga: Nesketan egitea
bakarrik nahi nuen
baina neretzat ezer
ez al dago hemen?
Adierazi zaidazu
berandu baino lehen
gure amarekin nola
ligatu zenuen. (bis)

S. Lizaso: Orduan ez zen izan
hainbat zeremoni
festatan bagenuen
nahi hainbat harmoni...
Bide hura hartzerik
ez zaizu komeni:
zure amatxok berak
ligatu nindun ni. (bis)

J. Uranga: Bilbon aldrebes gabiltz
gutxi gorabehera;
neskak ikusi ezker
hor dago aukera;
bertsotan joaten naiz
beraien aurrera
ta erantzuten didate
“*Yo no sé euskera*”. (bis)

S. Lizaso: Bilbon denetik dago
behar zenduke jakin;
utzi bertsoak eta
bide onari ekin.
Arazorik ez dadin
hor hizkuntzarekin
erreza dadukazu
kinuka hitz egin. (bis)

J. Uranga: Ulertu nahi ez dunai
zertako hitz egin?
Hizkuntza guztiekin
det gaur nik huts egin;
neska txoro hauekin
ezin da ezer egin...
Konformatu beharko det
Marijaiarekin. (bis)

S. Lizaso: Saiatu gehiagokin
akabo bestela!
Esaten dizut seme
esna zaitezela;
badakizu harremanak
puska daitezkeela...
Goxo-goxo igurtzi
basoak bezela. (bis)

S. Lizaso-A.M. Peñagarikano

Gaia: Peña atzo gauean juergan atera zen, eta goizeko bostetan autoa
hartzera doala hor ikusi du autoaren aurrean etzanda Sebastian
punka neska bati muxuka. Paretik kentzeko esan dionean,
haserretu egin da.

Neurria: lauko handia
Doinua: *Kontu barri bat suzedidu da II*

A.M. Peñagarikano: Ikusten zaituztet hor muxuka
zeinen ongi zabilzaten
bainan gutxienez utz zaidazu
nere kotxea eramaten.

S. Lizaso: Kotxea eraman nahi badezu
zuk atzekaldera bota;
neri pakean utzi zaidazu
ondo aparkauta nago-ta!

A.M. Peñagarikano: Eta gainera berak arrazoi
“*¡Oye tu! ¿Que pasa tio?*”
Nere kotxea hartu behar det
utz zaidazu mekauden dio!

S. Lizaso: Berrito diot joan nahi badezu
bota zazula atzera!
Nere gainetik pasatzen hasiz
irauli egingo zera!

- A.M. Peñagarikano: Muxu ematen egiten dezu
hemen zure ahalegina;
nahiago nuke deskuidatuta
erori egingo bazina!
- S. Lizaso: Hemen muxuka nabilelako
zu ez zaitez egon lasai;
muxu ematen badakit baina
ostiak ematen ere bai.
- A.M. Peñagarikano: Ginebrarekin hartuko zuen
honek nahiko Coca Cola;
gizarajoa ez da ohartzen
neskatxa lotan dagola!
- S. Lizaso: Neskatxari ez dio antzeman
nahiz eta egon begira.
Ez dago lotan zure aurrean
plantak egiten ari da.
- A.M. Peñagarikano: Eta azkenean triumfatu det
triumfatu det dedio!
Nerekin disputan ari zala
esnatu ta alde egin dio.
- S. Lizaso: Arrazoi dezu neska joan da
nerekin hainbat zorigaitz
baina zuk ez daukazu joaterik
baldin mugitzen ez banaiz.
- A.M. Peñagarikano: Ta ba al dakizu? Nahiko lekua
badaukat portamaletan;
benga zatoz ta sartu zaite hor
ta lo egin zazu bertan!
- S. Lizaso: Konforme, sartuko naiz horrunta
ados bazaude tratuan;
Getxon bizi naiz ta esna nazazu
etxera heldutakuan.

HONDARRABIA (2006-09-02)

*Bertsolariak: S. Colina, J.M. Irazu,
J. Maia eta A. Egaña.*

Gai-emailea: Unai Elizasu.

Santiago kalean izan zen, gaueko hamar eta erdietan. Gai guztiak
arraunarekin zerikusia zuten testuingurutik abiatuta jarri zituen.
Hondarribiko trainerua Kontxa estropadatik kanpora geratu berri zen,
baina jendeak ondo erantzun zuen eta giro ona sortu zen.

S. Colina-J.M. Irazu-J. Maia-A. Egaña

Gaia: Laurok irteeran zaudete, estatxari fuerte helduta Aurrean duzue
helburua. Imajinatu Euskal Herria zaretela. Helburu hori
iristeko, entrenamendu asko egin behar da alde z aurretik. Gure
herriak nahikoa gai ba ote du helburu hori lortzeko?

Neurria: zortziko handia

Doinua: *Kantore berri xarmant batzuek*

S. Colina: Gure herria nahiz ez den izan
batasunaren barruti
gauza batzutan nahiz ez dun izan
ez beldur ta ez erruki
nahiz helburuak eta helmuga
geratzen diren urruti
aspalditikan hilda zegoen
gairik ez balu eduki. (bis)

J.M. Irazu: Baina samurra ez zela izango denak zeuden antzemanda; pixkana gauzak bere onera azken boladan bistan da. Heldu estatxai aurrera beira geure helburuei demanda baino helburua lortu al leike lau kaletatik joanda? (bis)

A. Egaña: Traineru hontan zer gertatzen den ezin liteke sinetsi: patrioiak sarri esaten digu “Hautsi mutilak hor hautsi!”; hala're askok egiten dute daukaguntxoari eutsi... Hemen serie gehiegi dago ta serio oso gutxi. (bis)

J. Maia: Ta badakigu traineru artean beti dagoela gerra; utzi dezagun fibra kontua ta utzi poliesterra; hartu dezagun txalupatxo bat egurrezkoa ederra... polikiago joango da baina hartuko du lur bazterra. (bis)

S. Colina: Gure egurrezko txalupa hontan bada nahikoa jardute; lau kaletatik ezer lortzerik nahiz nik'e ez dudan uste gu entrenatzen gabiltza beti aroz aro urtez urte ta azkenean bandera beti besteek jasotzen dute. (bis)

J.M. Irazu: Baina bandera irabazteko asmotan hainbeste urte... hasera eta azken ziaboga nik behintzat hala nahi nuke; honek Kontxakin badauka antza ez zazutela ez uste: geurean ere epaile batzuk izorratu nahi gaituzte. (bis)

A. Egaña: Nahiz eta ados jarri behar degun bateko eta besteko demokrazia aski degunik ez dezute ba usteko? Kantabriako presidentea nik esana berresteko egosialdi bat falta zaiona normalera iristeko. (bis)

J. Maia: Kanpo aldetik iristen dira hamaika probokazio baina errua beti h aizeai jartzeak ez du balio. Guk arraunean egiten degu ez dakit zenbat sesio; zoritxarrean denok ez dugu bandera bera desio. (bis)

A. Egaña-J. Maia

Gaia: Andoni, Jon, Zarautz, Zumaia. Euforiko, pozez txorutzen daude biak, baina Hondarrabian gaude. Jolas bat egingo dugu. Ea nork disimulatzen duen ondoen euforia hori, hemengo jendea mindu gabe.

Neurria: zortziko handia

Doinua: *Goizean goizik jeiki ninduzun I*

A. Egaña: Lehenengo aldiz tokatu zaigu
Kontxara sartzeko txanda.
Hauei lehenata tokatzen zaie
ta guri bigarren tanda.
Hau po-po-poza hauxe da poza
egia garbi esanda;
ez kaso egin po-po-po hoiek
bozina hotsak ziran da.

J. Maia: Eta ni berriz ohian egon naiz
nekatuta nahiko grabe;
bitarte hontan gertatu omen
dira zenbait nobedade;
kalean ez dut askorik entzun
etxean ere suabe.
Gaur *Teleberrin* esan dutenez
bihar estropadak daude.

A. Egaña: Osaba bat dut adinez luze
entrenatzaile gainera;
*Enbatarekin*²⁸ hogeitun urtean
beti gora eta behera;
aspalditxoan osasunetik
juxtu zebilena bera
baina berpiztu egin ez da ba
ostegunetik aurrera!²⁹

J. Maia: Zer esango det? Esku artean
goizez hartu dut papela;
irakurri det baju dagola
pantano askoren nibela;
arrandegian ere ikusi dut
atuna merketu dela.
A! Ta uste det bihar goizean
estropadak badaudela.

A. Egaña: Bihar goizean estropada bai
entzun dezu eta tira;
Acuariumean jende mordoxka
bildu liteke guztira;
Hondarribitik inor balego
telebistatik begira
Astilleroren zalerik ez da
urdirik denak Zarautz dira.

J. Maia: Jendeak ez du desberdinduko
eta neuk ere ez dakit;
hemen jendea ez da enteratu
hortaz ez du entzun tutik.
Akenaldian gorritz nabil ni
gorritz hemendik ta hortik
baina gaurkoan beltzez jantzi naiz
ez det esango zergatik.

(28) Enbata Zarauzko traineruaren izena da.

(29) Larunbatean izan zen jaialdi hau, eta bi egun lehenago, ostegunean, jokatu zen Kotxako estropadara sailkatzeko kanporaketa.

ORDIZIA (2006-09-09)

*Bertsolariak: B. Gorostidi, I. Zubeldia,
M. Lujanbio, I. Apalategi, A. Sarriegi
eta I. Elortza.*

Gai-emailea: Inazio Usarralde.

Euskal Jaietan urtero antolatzen duten saioa. Herriko antzokian izan zen, gaueko hamar eta erdietan. Entzule mordoxka eta baleko saioa, oro har. Ez zuten lortu giroa lehertzerik, baina egon ere ez zegoen erraza, jendea patxadan eserita baitzegoen eta bero handia egiten baitzuen.

M. Lujanbio 

Gaia: Gaur egun badirudi gehiengoak zer egin, horrela mugitzen garela. Gehiengoak hala uste du, gehiengoak hala egiten du... Besterik ez da agertzen egunkarietan ere. Baina kanta itzazu Maialen gutxiengoa izatearen plazerak.

Neurria: hamarreko handia
Doinua: *Hil da Canovas fuera Canovas*

Norbera bada bakarra baino
besteak beti gehiago;
disimuloan ta artaldean
joatea igual nahiago.
Baina batzutan gutxiengoan
gaude ta ordun akabo!
Gutxiengoak beti amets bat
dauka gerorako klaro;
eta amets bat bizi duena
beti bizi-bizi dago.

Euskal Herria da adibide bat
estatuaren arteko argi
ta Euskal Herri barruan ere
gutxiengoak nabari;
contracorriente dihoan harek
bidea luze ta haundi
baina pauso oro izan dezake
plazer txikitxo bat sari:
bere buruai fidela dela
ez besteren esanari.

Mundiala ta globala baita
egungo mundu ankerra
amen esaten ez duen hura
peligrosoa, okerra;
bide nagusi hori baino're
politago da bazterra;
gutxiengoa izatea da
benetan zaila den gerra;
hain zuzen ere zaila delako
da bide hori ederra.

B. Gorostidi-M. Lujanbio

Gaia: Bixente, aipa itzazu maitasunaren indarra galtzeko arriskuak.
Eta Maialenek maitasuna indartzeko bideak.

Neurria: zortziko handia
Doinua: *Loreak udan ihintza bezela I*

B. Gorostidi: Berritan dena eder, polita
nunahitik dena freskura
baino bi urte, hiru-lau urte
hortxe jarri leike muga;
oso ezaguna ia ohikoa
bihurtzen da abentura
ta maitasuna bukatu ohi da
bihurtzen bada ohitura.

M. Lujanbio: Beraz ohitura tarteko bada
lehengo beroa epela;
lehengo irrifarra nekea eta
lehengo indarra txepela;
eunero-eunero sentitzekotan
lehen egunean bezela
eunero-eunero pentsatu behar da
azkena izan leikela.

B. Gorostidi: Gaur opari bat egingo diot
berandu naiz baino benga;
detailtxo bat lore txiki bat
lanetik garaiz irtenda.
Baino gerora gaur utzi ingo det
orain urruti da denda.
Gauza tikiak aha ztu ezker
goitik behera erortzen da.

M. Lujanbio: Gerta liteke zozer zana
jartzea barru hutseko;
gerta liteke ia berandu
izatea damutzeko
baina opariak hobe da egin
pozez gogotsu antzeko
ez konpromisoz ta gogoz kontra
gabeziak betetzeko.

B. Gorostidi: Zein polita den lehen egunetan
bere altzoan urtzea!
Zein polita den biak batera
ta bide bera hartzea!
Baino denborak ahaztura dakar
ta hor hasten da trantzea;
lehen guretzako guztia zena
norbait arrunt bihurtzea.

M. Lujanbio: Egun guziak antzeko dira
hori omen da kontua;
irradi gisa bilakatzen da
lehengo sirena kantua
baina pentsatu zuk une oro
dala zure momentua;
ta zergatik ez? Arruntasunak
badu bere enkantua.

B. Gorostidi: Arruntasunak ere haseran
bizigarriak zaizkigu;
bat bestearen mirabe gera
bat bestearen katibu;
bukatu asko bukatu dira
izanak gera testigu...
Noizbait bukatu daitekeen arren
saiatzea merezi du.

M. Lujanbio: Behin hasten da ta pentsatzen degu
inoiz ez dala bukatzen;
bukaera're hartu beharko
genuke natural antzen.
Hori esaten errexago da
ez da hain errex betetzen
baina esan ere egin behar da
gero gertatu ditezten.

I. Apalategi

Gaia: Zu zaitugu Kupidoren gezia. Nola erabakitzen duzu zein bihotz
zulatu?

Neurria: zortziko handia
Doinua: *Herri txikien negu gordina*

Gezi bat eta arku haundi bat
hartuta nere ondoan
sarri jarduten naiz ni botatzen
eta ia beti doan;
ta gehienetan nahiz ta asmatu
modu dotore askoan
min pixkat ere eman izan det
gogorregi jotakoan.

Konturatuta ez al zaudete
batzuk ze zorte daukaten?
Egia esan errex da hoiei
apuntatu ta ematen;
ta beste batzuk inoiz jo gabe
hor dabilta bazter baten.
Zoritxarrean kupidok ez du
kupida asko izaten.

Nahiz nere ustez botatzen dedan
oso modu seguruan
sarri askotan bekaizkeria
landatzen det inguruan;
liskarrak eta zenbat haserre
zenbat jende apuruan...
Baina tarteka asmatzen det ta
zein polita den orduan!



*Jaietako ohiko bertso saioa
(Bermeo, 2006-09-09)*

Argazkilaria: Z. Enbeita

LAZKAO (2006-09-15)

*Bertsolariak: M. Lujanbio, S. Lizaso, J. Agirre,
A. Egaña, S. Colina eta A. Sarriegi.*

Gai-emailea: Laxaro. Azkune.

Lazkao Txiki jaio zela 80 urte. Hori ospatzeko edo gogoratzeko antolatu zuen jaialdi hau Lazkaoko Udalak. Oholtza herriko plazan zegoen jarrita, eta entzuleak plazako pilotaleku estalian. Bertsolari eta entzuleen tartean euria egin zuen. Jende asko eta giro beroa. Bi zati izan zituen saioak: lehenbiziko lanak, bost bertsoaldi hain zuzen ere, ohiko jaialdi batekoak izan ziren; haien ondoren bideo bat eman zuten, Joxemielen datu biografikoak eta zenbait bertso jasotzen zituena; eta saioaren bigarren zatian Lazkao Txikiren izatearekin eta izakerarekin lotutako gaiak jarri zituen Laxarok.

S. Lizaso-A. Egaña

Gaia: Hauek gaur ere elkarrekin ibili dira, baina konturatu dira bata besteari begira zahartzen ari direla.

Neurria: zortziko handia

Doinua: *Adixkidia Andoaindikan*

S. Lizaso: Hara Andoni adina omen
baten sasoiaren etsai;
orain ez gera lehen bezela
edozer egiteko gai.
Nahiz ta goizero egunsentia
hortxe egoten zaizun zai
lehen lo hartzea zaila ohi zendun
orain esnatzea ere bai.

A. Egaña: Lehen zu edonoiz moldatzen zinan
parranda bat botatzera;
ostiralean sekulakoa
larunbatean atzera.
Baina gaur egun hasia zaude
monjatxo baten antzera:
etxetik bertso saiora eta
bertso saiotik etxera.

S. Lizaso: Esan daiteke errespetoa
daukadala indarrean.
Zerorri ere aldatu zera
lagun halabeharrean;
lehengo batean nere gorputza
han jarri zen dardarrean
nere laguna ikusi bainun
eleiza baten aurrean.

A. Egaña: Baina ez pentsa oraindik ere
Egañak badu indarririk.
Begiratuta azkenaldian
zaude flakatu samarririk;
dietaren bat egin dezula
ez dago esan beharrik;
lehen Lizaso osoa zinen
orain erdia bakarrik.

S. Lizaso: Inoiz mendira joan nahi baitut
zu zera lagun ta maisu
baina zuri're pausoa pixkat
makaltzen ere ai zaizu;
zerbait *raroa* pasatzen zaizu
eta aitortu ezazu;
lehen hiru urte zaharrago nintzan
ia harrapatu nauzu.

A. Egaña: Lehen txanpaina edaten zenun
orain gehienetan ura;
ia bukatu ote dituzu
lehengo mila abentura?
Gogora dator Lazkao-Txikin
ispiluan bertso hura:
azal ximurtzen hasia zaude
Joxemielen modura.

S. Lizaso: Azalarena ispilu horrek
baleza adierazi...
Egia bada hori ukatzen
hemen zertarako hasi?
Zahartu gera aldatu gera
ez digu egiten grazi;
gu ez gerade bat'e formaldu
disimulatzen ikasi.

A. Egaña: Berrogeita hamar urte gertuan
izango'ituzu guztira;
pare bateko akatsa nuen
ta ez da haundia tira.
Lasai Sebastian guk elkarrekin
eingo degu hainbat jira;
zatoz nerekin aiton-amonak
zaindu egin behar dira.

MUXIKA (2006-09-16)

*Bertsolariak: J. Enbeita, U. Iturriaga, I. Elortza,
A. Arzallus, M. Lujanbio eta S. Colina.*

Gai-emailea: Josu Goikoetxea.

Santa Kruzetako festen barruan Balentin Enbeitaren omenez antolatutako jaialdia. Areatzako elizan izan zen, gaueko hamar eta erdietan hasita, eta ia bi orduko saioa egin zuten.

J. Enbeita

Gaia: Ehun urte bete dira zuen aita jaio zela, eta hogeitau urte hil zenetik. Balentin Enbeitaren figurari kantatzeko aukera emango dizut.

Neurria: berezia

Doinua: *Atxeli mendiaren*

Atxeli mendiaren
magal erosoan
Jeuriko baserrian
Usparits auzoan
Urretxindorren kabi
kantari gozoan
esperantza biztu zan
jaio zan haurtxoan;
ta Beniten soan
kulunka altzoan
sartu zan bertsoan
Keparen pausoan
haundi izango zana
Euskadi osoan. (bis)

Etorkizuna zinan
gaur joana jada;
konturatu orduko
mende bat pasa da.
Gerra, kartzela zigor
zelako pasada!
Baina erantzun zendun
heroiien gisara:
herria, euskara
kantari plazara
zenduzan atara;
gaur zorretan gara;
abertzale guztien
eredua zara. (bis)

Gogoratzen naz aite
zure hiletetan
jendea gainez barru
zein iguruetan;
alderdi danetarik
zeure omenetan;
zure batasun nahia
ete zan ernetan?
Gaur barriro bertan
danak zeure bueltan
kantetan, berbetan...
Ez dakit benetan
hil ala biztu zinan
egun latz haretan. (bis)

Ariatza benetan
maitea zenduan
zeu be ariatzarrak
zaitue goguan;
zure bertso papera
jaien inguruan
beti lez bezperatan
abestu genduan;
zaragi onduan
elkarte senduan
zaharren ekanduan
zeure aginduan
hurrengoak be euki
daien akorduan:
Ariatza langorik
ez dago munduan. (bis)

OÑATI (2006-09-23)

*Bertsolariak: M. Lujanbio, S. Lizaso, A. Arzallus,
A. Egaña, A. Sarriegi eta A. Mendiluze.*

Gai-emailea: Egoitz Aizpuru.

Sanmigel festetan urtero antolatzen duten jaialdia. Zubikoa kiroldegian izan zen, gaueko hamar eta erdietan. Sarrera zazpi euro. Hasieran jende gutxi zegoen, baina bertsolariak oholtzara igotzerako harmailak itxuraturik zeuden. Bertsoaldi ederrak sortu zituzten bertsolariak.

A. Mendiluze-A. Arzallus

Gaia: Ama-alabak dira. Mendiluze ama eta Amets alaba. Amak alabarekin serio hitz egitea erabaki du, aurtengo urtean sei nobio ezberdin aurkeztu dizkiolako.

Neurria: hamarrek txikia
Doinua: *Agur sagar beltzeran*

A. Mendiluze: Jo ze ondo mutil bat
badakarkizula!
Gaur beste bat! “Ez ama
hura utzi nula...”;
hiru, lau, bost eta sei
joder a ze burla!
Alaba esan egia
ta ez disimula:
ziur al zaude norbait
gustatzen zaizula?

A. Arzallus: Imanolek bazuen
horrenbeste grazi
eta Andoni ere
ez nezake ahantzi;
nola esan Ibon ta
nola esan Patxi...
Egia esan ez dira
izan oso gutxi
ta eskerrak beste sei
ez ditun ikusi!

A. Mendiluze: “Kaixo” bi musu eman
eta berriz “Aio!”;
hobe ez ikustea
beste zenbait saio!
Beti zatoz mutiko
berrien karraio;
probatu nahi dunari
utzi behar zaio
baino hamahirutatik nork
probatzen du gehio?

A. Arzallus: Galdera egin duzu
nahiko bihurria
eta irudimenez
hain nago urria...
Ama luza zaidazu
hara belarria;
hau da zure alabak
dabilkin neurria:
hilabete bakoitzak
nobio berria.

A. Mendiluze

A. Mendiluze: Horrela ote dira
Ametsen ametsak?
Bezperako larrosak
goizerako beltzak;
beste bat topatzeak
lehengoen defentsak
ta txarrik nahi ez denez
alaba batentzat
zeuk uzten dituzula
esaidazu behintzat!

A. Arzallus: Ausardia izan dut
batzuk lagatzeko
besteetan gertatu da
aurrekoz atzeko
baina esplikatuta
askozaz hobeto:
ama asmoa daukat
denak probatzeko
aita bezelako bat
senar ez hartzeko.

A. Mendiluze: Bale estimatzen da
daukazun irrika;
bestela balitz egin
behar nun errita
baina izen gutxi ez dezu
hona ekarri ta
hurrena berriren bat
berriz ekarrita
izena pegatinar
petxuan jarrita.

A. Arzallus: Tira oraintxe daukat
momentu larria
ni hontara ez nintzen
hona etorria.
Ama isildu zaite
itxi iturria!
Presentatu behar dizut
nobio berria
ta izena oraindik
ez dauka jarria.

Gaia: Gaur ere eguna konturatu gabe pasa zaizu, baina etxera bidean,
berriro, eguneroko beldur eta kezka datozkizu burura.

Neurria: berezia

Doinua: *Itsasoa laino dago*

Beste egun bat gehiago
oharkabe zait igaro;
hemen pasa naiz lehenago
eta berriz kaian nago.
Itsasoa laino dago
malekoitik haratago;
itsasoa laino dago
oroimena lainoago.

Goizean goiz arrantza nahi
atera ta dena etsai.
Ez naiz ia hortako gai
baina bueltan kresalez blai;
ta barrena ez dut lasai;
porturaino heldu naiz bai;
ta barrena ez dut lasai
berriz inor ez dago zai.

Urteek latz hartu naute
ez lagun ta ez emazte
irautea neure kalte
ta bizitzak ez nau maite;
bizia det neure kate
pauso hori eman arte.
Bizia zen neure kate
olatuek daramate.

LOIU (2006-09-29)

*Bertsolariak: X. Paya, E. Lekue,
S. Colina eta A. Arzallus.*

Gai-emailea: Iñaki Beitia Arbildu.

Loiuko Lauroeta auzoan San Migel egunarekin urtero antolatzen duten jaialdia, aurten hogeita hamaikagarrena. Beti egun berean izaten denez, bertsozaleek badakite irailaren 29an Lauroetan bertsoak izaten direla. Plaza irekian izan zen, iluntzeko zortzi eta erdietan hasita. Jende multzo polita elkartu zen..

S. Colina-X. Paya

Gaia: Modeloak zarete Cibelesen. Sustrai kanporatu egin dute argalegi dagoelako; Xabik itzelezko arrakasta izan du.

Neurria: hamarreko txikia

Doinua: *Hamalau heriotzena I*

S. Colina: Nere gorputz mehean
hezurra nagusi;
berrogeita bat kilo
jantzi eta guzi;
hala ere ez nago
batere itsusi
baina Madrilen dute
errespetu gutxi
ta nere lana egiten
ez didate utzi.

X. Paya: Neuk osteria euki dot
exito galanta;
zu ez zaitue onartu
horregatik kaka!
Armaniz³⁰ jantzi naz gaur
ze-nolako marka!
Neska hau *flaka* dago
flaka, flaka, flaka
ez zan ikusten eta
bi aldiz pasata.

S. Colina: Holakoak ez dira
askotan entzuten
eta zertan aritu
hauei erantzuten?
Euren gorputza zaintzen
ez dira jarduten.
Ba bai ni *flaka* nago
iaz berdin aurten
ta orain arte denek
ikusten ninduten.

X. Paya: Baina anorexi hura
ezin zan aguanta;
iraganari hortaz
mesedez ez kanta.
Traje bat baegoan
benetan galanta
ta hark desfilau eban
pertzax atarata
pertzax zeuk baino mami
gehiago eukan ta.

(30) Armani diseinatzailea.

Lekue-Paya

Gaia: Etxahun *superior*arengana joan da Xabi, amets erotikoak izan dituela-eta.

Neurria: zortziko txikia

Doinua: *Zazpi nobiarena*

X. Paya: *Madre superiora*
hau da hau problema!
Konfesatzeko dekot
kiskaltzen barrena;
pekatu ein dot eta
erlijio krimena;
hain zuzen San Lukasen
ehun ta bosgarrena. (bis)

E. Lekue: Bada konponbidea
ez duzu erraza
amets beroak dozuz
hori da demasa;
beno pekatua ez da
holango eskasa
hori bai ametsetik
ez daitela pasa! (bis)

X. Paya: Kontatu behar dotsut
dodana gogoan:
konbentua egoan
errosarioan;
gu biak ez gengoan
berba jarioan
biluzik gengoan ta
konfesionarioan. (bis)

S. Colina: Aizu ziri gaiztorik
ez zaizu igorri
hala nere ondora
berriz ez etorri;
orain arte gugana
jende denak korri
eta orain guztiak
lotsaz gorri-gorri...
Anorexi mentala
deitzen zaio horri.

X. Paya: Bat da anorexia
bestea tipoa
ta bien nahasketa
zeure tipitua.
Hori amaitu zan ta
orain da mitoa.
Jantzita dozun hori
ta dan *unikoa*
neska pultsera bat da
ez da gerrikoa.

S. Colina: Neska pultsera bat da
ez da gerrikoa
zure lepoarentzat
neurri-neurrikoa.
Aizu ni *top*³¹ bat nauzu
zu berriz *topoa*;
goazen pasarelan
izan modakoa
jendeak hauta beza
bere gustokoa.

X. Paya: Gustoa argi dago
kontua hori da;
ea portatzen zaren
arauen neurria.
Neska joan behar dozu
zeuk Euskal Herrira
ta bazkaltzera joan
sagardotegira;
zeure aldakak laster
aldatuko dira! (bis)

(31) Modeloa.

E. Lekue: Zure berba danari
neukozu adi-adi;
pekatuak luzatu
deustezuz ugari
baina hainbeste detaile
ez kontatu neuri
beste leu bihurtu
behar naz pekatari. (bis)

X. Paya: Jaungoiko maitea ta
Andra Mari ama!
Badago zerbait hontan
eta ez da drama;
ametsak aurrera ein
ta hor esan dana
zer da amets bukaeran
sentidu nebana? (bis)

E. Lekue: Ametsan bukaeran
zengozan zu *grog*
aurretik pasa ostean
hamaika histori;
beraz zuk hartu dozu
nahiko kategori
Jainkoagaz ezkontzea
izango da hori. (bis)

X. Paya: Milesker euki dozu
eta pazientzia.
Ea ahazten dudana
hortaz igurtzia.
Hau ondo amaitzeak
deuko garrantzia;
esan eistazu oin zein
dan penitentzia. (bis)

E. Lekue: Monja lez beti zabiz
zu fin eta jator;
errezatu behar dozu
egunokaz gogor
ea bihar Don Justo
apaiz jauna dator;
beraz gelan sartuta
geratu zaitetz hor. (bis)



*Bertsolariak Bonberenean
(Tolosa, 2006-09-31)*

Argazkilaria: O. Aranburu

ERRETERIA (2006-10-07)

*Bertsolariak: A. Egaña, J.M. Irazu, M. Lujanbio,
A. Arzallus, A. Goikoetxea, J. Maia
eta A. Albistur.*

Gai-emailea: Karlos Aizpurua.

Landare Elkarreak antolatutako saioa, Niessen aretoan, iluntzeko zortzietan. Jendea kanpoan geratu zen sarrerarik gabe.

A. Goikoetxea-J.M. Irazu

Gaia: Azken Txapelketa Nagusian Arkaitz Irazu baino lehenago geratu zen, baina Irazuk dagoeneko egin ditu 50 saio eta Arkaitzek hau du lehenengoa. Gaur ikusi duzue hemen elkar.

Neurria: hamarrek txikia

Doinua: *Hamalau heriotzena*

J.M. Irazu: Abendua aspaldi
 utzia atzera;
 geroztikan denborak
 jo digu luzera
 eta elkartu geran
 lehena hauxe da;
 jardunaz puntuari
 eantzuteko era
 gaur ere nere aurretik
 geldituko zera.

A. Goikoetxea: Denak ez gera abil
 ta ez gera iaio;
 nereari eustea
 une hontan nahio.
 Jexux Mai jendeari
 gustatuko zaio;
 horregatik zabilta
 beti saioz saio
 baina denak ez ginen
 sinpatiko jaio.

J.M. Irazu: Denok ez degu sortzen
 sinpati berbera
 ta hori ez da ikasten
 ez Arkaitz ez keba;
 Oiartzundikan joan
 Naparru aldera;
 orain berriro ere
 badezu aukera...
 Zer jun zera Silveirai
 gerra ematera?

A. Goikoetxea: Hori're aditu dut
 tarte-tarte;
 Jexux Mari zabilta
 beti atakean.
 Ni Nafarro aldera
 aurten joatean
 txapelketa ez daukat
 nik bete-betean
 eta Silveirarekin
 hobe da bakean.

J.M. Irazu: Ordun pakean utzi
beharko degula
lehengo eztabaidara
zuzendu brujula;
Arkaitzen maila ona
ezin disimula;
nahiz ta Karlosek esan
saio gutxi dula
egia al da batzuk
utzi dituzula?


A. Goikoetxea: Nere buruan ez dut
zuk adina fede
hemen kompetentzia
bihurtzen da lege;
bertsolari haundiak
ditut parez pare
urtea pasatuta
saiorikan gabe
librea izango da
beldurtzea ere.

IRUÑEA (2006-11-09)

*Bertsolariak: A. Arzallus, M. Lujanbio
eta X. Silveira.*

Gai-emailea: Josu Goikoetxea

2006ko Bertso Aroaren azken ekitaldia. Jende asko, 300 lagune-
tik gora, elkartu ziren Gurutze enparantzako institutuan. Zortziak eta
laurdenean hasi zen, eta saio gorabeheratsua, baina, oro har, nahiko
polita atera zen. Eserlekuekin batera pupitre bana jarri zieten bertso-
lariei, eta gai guztiak alor banaren barruan kokatu zituen gai-emaile-
ak: natur zientziak, euskara, gimnasia, teknologia, kimika... Jendeak
oso ondo pasatu zuen.

M. Lujanbio-A. Arzallus 

Gaia: Matematikako klasean gaude orain eta ekuazio bat emango
dizuet; eta zuek X eta Y zer diren esan beharko duzue.
 $X+Y=B$ akea. Zer dira X eta Y?

Neurria: zortziko handia

Doinua: *Haurtxo txikia negarrez dago I*

A. Arzallus: Bat gehi bat egin eta emaitza
ez da irteten bakea;
beste zeozer izan behar du
zer nahi duzu esatea?
Gaur hau esan du ta gero hura
beraz ohartu zaitea:
Zapaterori gustatzen zaio
beti X izatea.

M. Lujanbio: Zapatero da inkognita bat
inkognitarik zailena;
gero hor dago ETA ta hor dago
hemengo alderdiena;
X eta Y batu ezker
konponduko bada dena
X hori ote da bakoitza
uzteko prest dagoena?

A. Arzallus: Ez dakit nola moldatu ziren
formula hau borobiltzen!
Nahiz PNV, EA ta EB
aritu diren hurbiltzen
hor Batasuna ta hor Aralar
bost alderdi ta bost izen;
kostako zaigu hoiak guztiak
hizki batean kabitzen!

M. Lujanbio: Orain artean izan baitute
hemen denek hizki bana
denak batera ekartzekoa
azken boladako lana;
X eta Y batu behar dira
ta guri hau panorama!:
Y grekoa da kontsonante bat
euskerak ez dadukana.

A. Arzallus: Gainera hobe Y grekoa balitz
Euskal Herriak ez duna.
Iruditzen zait matematika
dela nahikoa astuna;
bakea ere nahikoa X
izan liteke laguna;
lehenik pentsatu beharko dugu
ze bake den nahi duguna.

M. Lujanbio: Hor dagoela gobernua ta
beste alde baten ETA;
Nafarroa ta CAV badira bi
Iparraldeak arreta...
Ze bake ote den nahi duguna
nun ote den gure Beta...
Gaitzerdi batuketa bat bada
ta ez aldiz zatiketa!

A. Arzallus: Beraz X da Erkidegoa
hori entzun dut lehenago
ta Y grekoa Nafarroa da
poztu egin nau zeharo;
ta Iparraldea erdiko gehi hoi
hori delakoan nago
baina guk ere izan nahi dugu
gehigarri baino gehiago.

M. Lujanbio: Xa zer dan bidegurutze...
hemen argitzen ari da
ta Y grekoa *despejatzeko*
estatuari begira;
hoiek batuta nahiz ta pake bat
etorri Euskal Herrira
pake bat lortuko degu baino
borroka gehio badira.

BASAURI (2006-11-10)

*Bertsolariak: U. Iturriaga, A. Arzallus,
A. Egaña eta M. Lujanbio.*

Gai-emailea: Arkaitz Estiballes.

Social Antzokian 20:00etan. Euskarabila kultur taldearen
10.urteurrena zela-eta antolatutako bertso saioa. Antzokian jende
asko eta giro polita. Lau bertsolariak aritu ziren ondo.

A. Egaña 

Gaia: Azken oina emanda bederatziko txikian hiru bertso. 1: Euskera.
2: Bakea. 3: Herria.³²

Neurria: bederatziko txikia
Doinua: *Betroiarena*

Zabaldu eskolara
zabaldu kalera
urteetan hortantxe
saiatu gera.
Askok euskalduntzeko
izan du aukera;
ehun bat mila badira
gutxi gorabehera;
baina erabilera
“Hau, hura ta zera...”
ez doa aurrera
inola're keba!
Alde hortatik pattal
dabil euskera. (bis)

Asko apuntatzen da
pakean siglara;
pake hitzan atzetik
zenbat ilara!
Denak begi itxuka
pakean pilara
baina hitz soila dela
badakigu jada;
egizkoa hara
herri honetara
aupata tralara
salto, besarkada...
izango degu noizbait
iristen bada. (bis)

Hainbeste herri txiki
gainera txikitu
hainbeste herri zauri
herri zauritu...
Ni gureaz ari naiz
ez inor harritu
aspaldin egoerak
baikaitu larritu;
helburuta bitu
batera aritu
gogoz izerditu
herriak aurkitu;
pakea ta euskera
biak behar ditu. (bis)

(32) Gai-emaileak hala eskatu arren, lehen bertsoan baino ez zuen hitza oin moduan hartu.

LEGAZPI (2006-11-17)

*Bertsolariak: N. Elustondo, A. Egaña,
S. Colina eta I. Zubeldia.*

Gai-emailea: Joseba Barandiaran.

Laxartegi aretoan izan zen saioa, gaueko hamarretan. Ehun eta hirurogeita hamabosten bat entzule. Baleko saioa atera zen, eta jendea, itxura batean behintzat, gustura egon zen. Saioa bukatuta saski eder bat zozkatu zuten.

I. Zubeldia-S.Colina

Gaia: Sustraiak erronka bota du aizkora apusturako. Tolosako Kantabrikeko dago zain, eta Zubeldia azaldu zaio.

Neurria: zortziko handia

Doinua: *Adixkidia Andoaindikan*

I. Zubeldia: Momentu honen zai egona naiz
ta egon ere luzaro.
Olasagasti hor etorri da
remangatuta zeharo.
Ai Joxe Mari diru pixka bat
jokatzeko gogoz nago
mugaren beste alde horretan
dirurik baldin badago.

S. Colina: Apustu baten biltzen direnez
zure ta nere ametsak
dirua mahaian jarri ezker
erantzungo du jendetzak;
ta hasi aurretik zuk galdetzea
hartu duzunez legetzat
ba bai zuritu beharko ditugu
aspaldiko diru beltzak.

I. Zubeldia: Praka zuriak jantzi orduko
zezen plazara irtena;
entrenatzen'e ibilia da
hori da nik dakitena;
ta zabalero berdintsukoak
entzun esango detena
gure Sustrairen bizkarra eta
bere aizkoran kirtena.

S. Colina: Bata batekin egin behar dut
zezen plazara sarrera
eta ondoren bost itzulira
egingo dugu karrera;
bi kana erdiko ebakitzera
irtenik jende aurrera
bertso saio bat egingo degu
enborretik enborrera.

I. Zubeldia: Enbor batetik beste batera
bateko eta besteko
nahiz eta biok oraindik gauden
nahikoa planta gazteko
talentu pixkat behar da Sustrai
bi kana erdi mozteko;
BECen bertsotan aitzeara dala
ez zenduen ba usteko?

S. Colina: Ez zazu pentsa BECeko hori
berdintzerik ez dut uste;
egia da bai gu ez gerala
bi aizkolari ilustre
baina zaleek gu ikusita
barre egingo digute;
zaleek ez dute talenturik nahi
ikuskizuna nahi dute.

I. Zubeldia: Ordun aizkoran egiteko're
badaukazu adorea;
segurona're gorrituko da
bi matrailen kolorea;
konbinatu bat egingo degu
proposamen hau nerea:
gero korrika jardungo dira
Andoni eta Nerea.³³

S. Colina: Atzeko hoiek nolatan egin
dezakete ba karrera!
Alde haundirik ez egon arren
herrenetik herrenera
beste trabes bat jarriko diet
askoz hobea gainera:
hauek neurtu behar ditugu
zeinek gehio erretzera.

DONOSTIA (2006-11-24)

*Bertsolariak: A. Egaña, U. Iturriaga,
M. Lujanbio eta S. Lizaso.*

Gai-emailea: Josu Goikoetxea.

Antiguako Lugaritz kultur etxean izan zen, gaueko hamar eta erdietan. Aretoa bete egin zen, eta hainbat entzulek kalean geratu behar izan zuten. Saio polita atera zen.

M. Lujanbio

Gaia: Aspaldi gogoko zenituen gauzak jadanik ez daude zugaran:
tokiak, pertsonak, jarrerak. Zer da aldatu dena?

Neurria: zortziko handia

Doinua: *Beste bateko inularretan*

Gure etxeko paraje buelta
jarri leike adibide:
lehen mendi txoko maite zirenak
urteetan zenbat *deklive!*
Lehen amonari ikasi nion
hura egiten det nire:
ate guztiak taberna dira
ta mendi guziak bide.

(33)1 Andoni Egaña eta Nerea Elustondo.

Leheno kalean topatzen ginen
eta noiznahi lagun zaharrak;
biharko presik gabe orduak
zerbezak eta abarrak.
Denbora asko ez pasa arren
gabiltz aldatu samarrak;
bi besoekin heltzen gaitu gu
silloiaren atzaparrak.

Ikasle garai hartan banitun
ametsak eta ideak
ta asmatu nahi izaten nitun
lehendik ez zeuden bideak;
ezinezkoa egi egiteko
jarrerak ziren nireak
baina ametsari lekua jaten
dio errealdadeak.

M. Lujanbio-U. Iturriaga

Gaia: *Un, dos, tres* saioan bazen betaurreko belztun ilusionista bat.
Publikotik pertsonaia bat ateratzen zuen, eta betaurreko haiek
jarrita mundu guztia biluzik ikus zitekeen. (Betaurreko magiko
bana eman zien gai-emaileak bertsolariei).

Neurria: zortziko txikia
Doinua: *Nere senarrarekin I*

M. Lujanbio: Antiajuak jantzita
hau mauka, hau mauka!
Berdin da pare honek
kristalik ez dauka.
Masan galdu egiten da
zehaztasun marka;
hobe dute pasatu
banaka-banaka. (bis)

U. Iturriaga: Bizitza bat honen zai
ze nerbio ze estres!
Begira jarri naiz ta
bi begiak trabes;
hori ta beste hura
bapez, bapez, bapez;
nun daude azafatak?
Hau ez da *Un, dos, tres!* (bis)

M. Lujanbio: Gorputz *Danone* batzuk
egon zaite lasai
azalduko dira ta
begiratu danai!
Tunicek³³ argazki bat
Donostian ta ai
Antiguon ez zuten
gutxigo izan nahi. (bis)

U. Iturriaga: Afaltzen eman digun
gizon bat hor aurrez
ikusten dut ta nago
aitortu beharrez:
biluzik ez da guapo
pentsatzen dut neurez
irabazi ez du egiten
baina galdu ere ez. (bis)

M. Lujanbio: Ta hor erdi pareko
bosgarren errenkak
gerri aldea zuri
jarririk arretak;
traje bainuan marka
berriz titi bueltak;
ze aberi egiten
ditun Ondarretak! (bis)

(33) Tunic argazkilariak jende multzo handiak biluzik erretratatzeko dituen.

U. Iturriaga: Lehen sarreran gazteak
pila pausuz pausu;
hemen aurrean danak
langile edo maisu;
hor zaudete teknikari
eta aizu, aizu:
gallineroko argia
piztuko al duzu? (bis)

M. Lujanbio: *Gallinero*n oilanda
eta oilarrenak
dira guk ikusi nahi
genituzkeenak;
orain artean nahiko
lasai zeuden denak;
besoak kruzatuta
daude orain gehienak. (bis)

U. Iturriaga: Ba nik bat aurkitu dut
modu kuriosoan;
zeozer *raroa* ikusi
diot hor besoan;
ene ez da besoa
da gorputz osoan!
Nola da hori posible
eta *reposoan*? (bis)

M. Lujanbio: Egia, marabilak
badaude tartean
ikusi ez nituenak
errealitatean.
Gogoratu erantztea
halako batean;
bestela ze sustoa
buelta ematean! (bis)

U. Iturriaga: Hori posible zenik
ez nuen sinisten
baina hasi da natura
jendetzan bereizten
ta ni neurearekin
ba hementxe eusten;
zu lasai ze beraiek
ez zaituzte ikusten.



Bagera saria
(Gasteiz, 2006-12-14)

Argazkilaria: ??????

BILBO (2006-12-01)

*Bertsolariak: M. Lujanbio, X. Amuriza, A.M.
Peñagarikano eta J. Maia*

Gai-emailea: Sebastian Angoitia.

Txurdinaga auzoko Kirikiño ikastolak euskararen egunaren inguruan antolatutako jaialdia. Urtero egiten den saioa da. Ikastolako garrantzirik izan zen, ehun eta berrogeita hamar entzuleren aurrean, arratsaldeko zazpi eta erdietan hasita.

X. Amuriza 

Gaia: Jakin dugu bizitza berri batean sartu zarela. Zer moduz jubilatuta?

Neurria: hamabiko handia

Doinua: *Mutil koxkor bat itsuaurreko II*

Jubilatuta nagonez gero
harritia naz zeharo
denporak orain ez nau zapaltzen
nahiz ta egunak igaro;
obligazino eta kezkarik
gainera ia ez dago;
zereginak be pilatzen jataz
eginago ta gehiago
hainbeste gauza onen artean
penatxo bategaz nago:
zelan ez neban tren hori hartu
hogeitaz bat urte lehenago.

Goizean lasai jagi neinteke
bostetan edo hamarretan
eta eguna igaro neike
mendian edo errekan.
Esan leiteke bizi nazela
hil arteko oporretan
eta ez uste traumarik ez daust
bape sortzen ez horretan;
abadea be izan nintzen ta
oraintxe nago zorretan:
ohituta nago ni neu lehendik be
lanik ein barik kobretan.

Osasun onak laguntzen badeust
egon barik botiken zain
aro eder bat daukat ganean
puntuatzekoa bikain.
Gaur arte majo doat guztia
honi heldu horri erain;
ez naz gaztea badakit hori
badot adin bat neure gain;
gaztetan ezin neban gauza asko
egin gura neuke orain;
horretan lana badaukat beste
bostehun bat urterako lain.

BERA (2006-12-03)

*Bertsolariak: M. Lujanbio, J. M. Irazu,
X. Silveira eta J. Zelaieta.*

Gai-emailea: Manolo Arozena.

Kultur etxean izan zen, Bortziritako Euskara Batzordeak antolatuta. Entzule ugari elkartu zen. Sarrera bost euro.

X. Silveira-M. Lujanbio

Gaia: Silveira aita eta Maialen hamar urteko alaba. Aita eta ama bereizita zaudete, eta Maialen oso gustura bizi da Silveira aitarekin. Hala ere, epaileak kustodia amari eman dio. Maleta egin eta agur esateko garaia heldu da.

Neurria: hamarreko txikia

Doinua: *Lagundurikan danoi II / Maitatua sobera*

X. Silveira: Egun gogorra da hau
bihotza dut dena su;
justizia egin behar
ta justizia antzu.
Zatoz ttiki motxila
zintzilika zazu;
amatxorekin zoaz
emaidazu muxu;
asko maiteko zaitu
ikusiko duzu.

M. Lujanbio: Ni zurekin egon naiz
urte hauetan zehar;
orain ikusten zaitut
zu sutan lehertzeaz;
hemen pasatu degu
mila egun edar...
Gizon batek esan du
eta aitak negar...
ta neri inork ez al dit
deus galdetu behar?

X. Silveira: Ttiki heldutasun hau
behar dizut eskertu;
gure norabidea
da pixkat okertu;
gertatzen ari denak
zentzurikan ez du.
Nahiz eta ez dizuten
zuri deus galdetu
zuk ez galdetu zeren
ezin da ulertu.

M. Lujanbio: Galde dezaidatela
ni nabil eskeko;
hamar urtekin banaiz
iritzi askeko;
burua oso argi
daukat nik hasteko
eta amak eta zuk
batekoz besteko
min gehiegi dezute
ongi ikusteko.

X. Silveira: Ez dakit nola esan
ez daukat hitz nahiko
hitzen ordeztan
zaizkit mila malko.
Amatxorekin zoaz
denboraldirako;
nahiz eta egingo duzun
igual negar asko
laister batuko gara
berriz betirako.

M. Lujanbio: Beti ibili zerate
hark kendu zuk tori;
hamar urte motzetan
hamaika istori...
Atzera begiratu
ta zenbat memori!
Zai nago egun hori
dago heldu zori
nere motxila nik neuk
eingo dudan hori.

X. Silveira: Ama eta nerea
bukatu zen dena
bukatu zen infernu
jasangaitz bat zena;
ustez izan genuen
kristoren kemena
baina orain ohartu naiz
ta hau da hau pena!:
zu zara gure kakak
jaten dituen.

M. Lujanbio: Ez pentsa nengoenik
hoi entzun desiran;
triste jartzen zaizkizu
begiak ditziran;
zeinen agur goibela
azken despedidan!
Baina nola helduen
estiloa hori dan
gu gera zapitxoak
euren sokatiran.

X. Silveira: Gure etxe haundian
guztia da ate
baina ezin duzu joan
ta biontzat kalte;
zu aina mundu hontan
ez dut ezer maite;
zatoz ta besarkatu
fuerte, fuerte, fuerte;
ta orain agur ttiki
eta laister arte.

MARKINA (2006-12-08)

*Bertsolariak: S. Lizaso, B. Lizaso, X. Amuriza,
M. Amuriza, A. Arzallus eta M. Arzallus.*

Gai-emailea: Andoni Egaña.

Pilotalekuan izan zen, arratsaldeko bost eta erdietan, Amaiur Elkarteak antolatutako saio berezi hau. Egun berarekin urtero egiten den jaialdia da, eta entzule asko elkartu ohi da.

M. Arzallus-A. Arzallus

Gaia: Maialen, nolakoa da Amets? Amets, nolakoa da Maialen? Bota sekretuak beldurrik gabe, konpartitu duzuen hori dena, hemen inork ez du-eta entzuten.

Neurria: hamarreko txikia

Doinua: *Lagundurikan danoi II / Maitatua sobera*

A. Arzallus: Honek badu kopeta
honek badu kara;
bere santu aurpegia
da soilik maskara;
telebistan aurrean
beti bera traba;
diruan lapurretan
ibiltzen ez da ba!
Baina hori kenduta
pertsonea ona da.

M. Arzallus: Nahiz ta jende aurrean egoten den lasai izkutuan badago sarritan egin jai. Bera nolakoa den ondo ez dakit, ai! Baina zerbait badakit zerbait badakit bai: bera bezalakoa ez nuke izan nahi.

A. Arzallus: Hau besteen ziriaz ohartzen da fite; anaiarekin ere badu nahiko pike; hemendikan etxera joatean noizbait'e seguru esango dit "Ai anaia maite: irabazi dizut ta izurratu zait!".

M. Arzallus: Nahiz sarri esan dudan hau zela onena bera da gaiztakeri egiten duena; beti lapurtzen dabil zer-nolako pena! Etxean sortzen dizkit hamaika problema... Gero nik jasotzen dut errieta dena.

A. Arzallus: Oraintxe noa egi dena esatera: nik anai bat nahi nuen nerekin batera baina umea ez zan mutila atera. Negar egin nuen zu sartzean etxera ta orain egingo det joaten bazera.

M. Arzallus: Norbera nahi den gisan ez delako sortzen nik neskarenak ditut abizen ta izen; eta horrelakoak ez dira aldatzen. Bai, negar egin zuen ni sortzean ozen baina hala ta guztiz ederki poztu zen!

M. Amuriza-X. Amuriza

Gaia: Zuek aita-alabak zarete. Joandako hamasei urtean izango zenituzten haserrealdi batzuk, baina Xabierrek min, benetan, behin hartu zuen, Mirenek esan zionean "Aita, matxista hutsa zara".

Neurria: sei puntukoa
Doinua: *Esateko ez naiz lotsa*

X. Amuriza: Hankatxo biak kulunkan halantxe daukat gomutan umea zelan ipini jatan ia ernegu puntan; ta horixe esan eustan bere burutxo ta buztan; eta txarrena: zalantzan nago arrazoia ete zeukan. (bis)

M. Amuriza: Oholtza ganean errege; zenbat indar, zenbat fede... Ai Amuriza ai Amuriza hire bizilege... Baina hi ez haz mesede nahiz euki hainbat adore. Eta oindino ez dau ikasi labadora pizten ere! (bis)

X. Amuriza: Bera ezkatzean dantzan
ta ni eskobagaz martxan.
Gauza guztiak ez dira jarri
oindik nire saltsan;
ez dakit hain ondo plantxan
baina zu Mirentxu txantxan
hori zeuk asmau zenduan ala
amari entzun al zeuntzan? (bis)

M. Amuriza: Ez daigun esan aldrebes
hori egia da mesedez!
Ezkatz bueltara beharrerako
hurbiltzen da nekez;
amak danak errez-errez
zeozergatik bere legez
ezkondu eta aguantatu dau
zugaz hogeta bost urtez. (bis)

X. Amuriza: Umetxo baten irrikan
sentimentuen karrikan
ibili ginan hain pozik biok
ezkondu barritan...
Ez zaitetz hasi erritan
ez egin hori birritan!
Zure azpiko erropatxoak
nik batu ditut sarritan. (bis)

M. Amuriza: Ez dozu sarri aurkitu
ez hartu hainbeste meritu;
matxista zara ta bide hortan
ez eizu segitu.
Behinola ideia bat piztu;
badaukoz hainbat arrisku:
bere umetako tiragomak ta
tangak ezin dauz bereiztu. (bis)

ZUMARRAGA (2006-12-09)

*Bertsolariak: S. Lizaso, A. Arzallus, M. Lujanbio,
I. Zubeldia, A. Egaña eta U. Iturriaga.*

Gai-emailea: Antton Fernandez.

Santa Luzi feria dela-eta Luzio Gabiriaren omenez urtero egiten duten jaialdia. Zumarraga-Urretxuko Bertso Eskolak antolatu zuen. Zelai Aristi aretoa entzulez beteta, eta bertsotan egiteko giro ona.

U. Iturriaga-I. Zubeldia

Gaia: Elkar gutxien zuek ezagutuko duzue eta jarri puntuak elkarri.

Neurria: zortziko txikia

Doinua: *Mando baten gainean I*

U. Iturriaga: Zegamakoa zara
ez dakit gehiago;

I. Zubeldia: Zegamakoa naiz ni
gainera zeharo
ta esango dizut lagun
gauz bat garbiago:
herri hori Aizkorrin
magalean dago.

- U. Iturriaga: Atzo kontzerturen bat izan zala bertan
- I. Zubeldia: ta nik eztarrie gaizki horrelakoetan ia ito baintzen rosliaren ketan! Faborez eune aldatu hurrengo batetan.
- U. Iturriaga: Zumarragan ez dute juerga errespetatzen;
- I. Zubeldia: gaur deskantso egitea beharrezkoa zen goiko nota hoietara ez bainaiz ailatzen ta hola ez da errexa itxuran kantatzen.
- U. Iturriaga: Zenbat denbora duzu Zegamatik hona?
- I. Zubeldia: Bidean ordu laurdenez hortxe naiz egona; pasa ditut hamaika aitona ta amona! Eskerrak ez zegoen eguraldi ona!

S. Lizaso-A. Arzallus

Gaia: Erabat maiteminduta zaudete biok. Lizaso berrogeita bost urtekin maitemindu da, eta Amets hogeitaz urterekin.

Neurria: zortziko handia

Doinua: *Nahiz ta hiltzea derrigorra den*

- A. Arzallus: Gaizki ulertua kasu batzutan gerta liteke akaso; maiteminduta nago zeharo baina ez det maite Lizaso; neskakta batek neskak gazteak sarri egiten dit kaso ta hitz egiten ez badit hark ere liluratu ohi nau oso.
- S. Lizaso: Garai batean ez izan arren orain hainbeste bertute maitemindu naiz lau haizetara garbi zabaldu nahi nuke; maitemindu naiz nahiz ta ditudan berrogei eta bost urte neure bihotza emana baitet beste bihotz baten truke.
- A. Arzallus: Jendea dabil maiteminetan oain sartu orain atera... Ba nik zerua deskubritu det bi begirekin batera; munduak hortxe du hasiera ta hortxe du bukaera; laino horretan iritsiko naiz berrogeita bost urtera.
- S. Lizaso: Nik neuk oraintxe zabaldua det zorionaren atea nere barruan sentitzen baitet orain zorion betea. Maitemindurik jotzen badezu berroita bosten urtea jakingo dezu zer polita dan ordun amets egitea.

A. Arzallus: Ai baina itxoin sakeletikan
hots bat aditu det hala;
iruditzen zait nere mobillak
mensaje bat badaukala;
uf ze putada! uf ze putada!
Ez nago lehen bezala;
esaten nun bai neskatxa horrek
gauza txar asko zeuzkala!

S. Lizaso: Ni neu aurrera begira nago
zu abiatu atzera
ta etsipena kolpez hartua
uste ez zendun antzera;
albiste txar bat etorri zaizu
belarriaren ertzera...
Sentimentuak joaten dira
bihotzetik bihotzera.

A. Arzallus: A baina itxoin eta aurrera
begira zazu mutiko;
beste neska bat hortxe pasa da
ederra da nereko;
bi begietan zerua dauka
eta izar bat begiko;
oain bai benetan esaten dizut
maitemindu naiz betiko.

S. Lizaso: Beraz joscura erreza zuen
zure maitasun etenak
eta ni berriz konformatzen nau
maitetasun fin batenak;
bat utzi eta bestea hartu
azkar ein dituzu denak!
Ta bat hura ez du ondo maiteko
denak maite dituenak.

BILBO (2006-12-16)

Bizkaiko Bertsolari Txapeleketa

Txapeldunaren agurra

X. Paya 

Neurria: berezia

Doinua: *Baserrian jaio nintzan / Habanera*

Bost izen bota nahi dodaz
merezi daben neurria:
maisu handi Amuriza
eta Lopategi biba!
Trino ta Joseba Santxo
epaile onenak dira;
bosgarrena ulertu barik
hor egongo da begira.
Tú no nos diste el euskera
pero nos diste la vida;
nos llevaste a la ikastola
aprendimos enseguida.
Ya es hora de que entiendas
el canto que nos motiva;
esta txapela es tuya
ai nire amatxu querida.

LARRABETZU (2006-12-25)

*Bertsolariak: U. Iturriaga, I. Elortza,
X. Paya eta A. Estiballes.*

Gai-emailea: Gotzon Barandiaran.

Hori Bai! elkarteak Eguberri arratsean urtero antolatzen duen saioa. Hori Bai! gaztetxean izan zen, iluntzeko zazpietan.

A. Estiballes

Gaia: Gabonak dira, eta zuk Bilboko Udalaren gutun bat jaso duzu etxean. Gabonak zoriontzear gainera, energia aurreztearen denon ardura dela jartzen du.

Neurria: hamarreko handia

Neurria: *Sentimentua sartu zitzadan*

Aurreztearen mezu txiki bat
karta batean dakarte;
herritarreri eskatu baina
gero eurek ezin bete:
milaka argiz beterik kale
lehio eta hainbat ate;
milaka argiz dago Areatza
ta hainbat eskaparate...
argiak jartzen dituzte baina
argi asko ez daukate. (bis)

Beraiek fijo dutela etxe
haundi bat ta ez apala.
Lehenengo hotzak sentitu eta
beroa nahi berehala;
udan daukate aire girotua
split bat zabal-zabala
ta *apagoiren* bat egonez gero
hauen kasuan normala
kapazak dira martxan jartzeko
Lemoizeko zentrala. (bis)

Nik ulertzen dut argia dela
umearen poztasuna;
Gabon giroak nori ez dio
ekartzen alaitasuna?
Baina energiak kostu bat dauka
denontzako ezaguna;
ta gaur argia dagoen bezala
etorri leike iluna
hemen eskutan daukagulako
guztion etorkizuna. (bis)

I. Elortza-X. Paya

Gaia: Igor, Bizkaiko txapelketaren finala bukatu berritan Xabierrek deitu dizu mobillera.

Neurria: zortziko txikia

Doinua: *Nere senarrarekin I*

X. Paya: “Tik-tik-tik-tik-tik-tik-tik”
deia ona hara;
txapelduna naz eta
ezer ez da traba.
Koño Igor Elortza
hara, hara, hara
zorionak emoten
noiz etorko zara? (bis)

I. Elortza: Gabonak gertu dagoz
zorion mehatxu
baina antza zuri fetxa
aurreratu jatzu;
telefonoa hartu
eta egin kasu;
bai, Igor Elortza naz
ta nor zara ba zu? (bis)

X. Paya: Drogoso dabil beraz
ez da hasi legun
bueno beharko dogu
zuzen-zuzen jardun.
Norbera nor den bere
esplikatu daigun:
jada zu ez zaren hori
Bizkaiko txapeldun. (bis)

I. Elortza: Koño! Oin ulertu dot
zein dogun problema;
bero etorri jaku
Getxoko zezena
ta dino Bizkaiako
txapelduna dena.
Orduan zu zara ni
izango nazena. (bis)

X. Paya: Kontatu behar dotsut
albiste itzela:
lehen zure ama etorri jat
nor izan bestela?
Eta hola esan dau
zoratzen bezela:
neure moduko seme
bat gure dauela. (bis)

I. Elortza: Zulako semeren bat
ez legoke txarto;
ama bakotxak hemen
amets beretzako;
zeureak be esan izan
dau hainbat holako!
Azkenean ametsa
egi egin jaku. (bis)

X. Paya: Bale ba ez zaitetz izan
Xabierren itzala;
ez emon zorionik
oraintxe aibala.
Baina onartu isteizu
eta berehala
azken agurrean negar
egin zenduala. (bis)

I. Elortza: Azkenengo agurra
a zena txorrada!
Azukrean gainean
tori mermelada!
Gainera lau puntutan
sartuta erdara...
Ez tio zorionak!
Super ona zara! (bis)

DURANGO (2006-12-30)

*Bertsolariak: J. Maia, M. Lujanbio,
A.M. Peñagarikano eta X. Paya.*

Gai-emailea: Unai Iturriaga

Plateruena kafe antzokian izan zen, gaueko hamarretan. Azken urteotan urtero antolatatu dute jaialdi hau, abenduaren hogeita hamarrean. Urteko azken saioa izan ohi da.

J. Maia-A.M. Peñagarikano

Gaia: Abiadura handiko trena denon ahotan dabilen gaia da. Bi anaia mutilzahar zarete. Trena zuen baseritik pasatuko da. Anjel Mari urduri dago etxean pasako dituen azken Gabonak ote diren pentsatzen.

Neurria: zortziko handia
Doinua: *Zeru altuan zegoen jaunak*

A.M. Peñagarikano: Urduri nago oso urduri
eta lasaitzea gura.
Azkenik ere tren zikin hori
heldu jaku ingurura:
bat baino gehio aberastu asmoz
tren zikin baten kontura...
Ez zait gustatzen mundu txar honek
daraman abiadura.

J. Maia: Egia da bai zu kezkatuta
zaudela ederki dakit;
gauetan ere salto txikitan
erortzen zera ohetik
baina ez zaite horrela jarri
ez zoratu horrengatik;
ez dezagula trena ekarri
hemendik pasa aurretik!

A.M. Peñagarikano: Lehen baserrian zenbat belardi
zenbat zuhaitz eta lora...
Nik lasai asko esaten nuen
“Txakurra pasa txokora!”
ta orain berriz tren hori dator
ta hau datorkit gogora:
beti presaka ta beti azkar
eta ez goaz inora.

J. Maia: Trena ez degu guk geuk ekarri
beste batzuek dakarte
mila negozio milaka milioi
ta kontu hoiek bitarte;
baina gurekin ere anaia
lan pixka bat badaukate:
gure txokotik ez gera irtengo
aurrean eduki arte!

A.M. Peñagarikano: Baserri baten guk badauzkagu
ganadu aina abere;
eta hara non bihurtu gera
txulo batzuen titere!
Indarra dunak gure ingurua
orain egin nahi du bere;
baserritarrok ez dugu agintzen
gure lurrarekin ere.

J. Maia: Gu baserritar gizarajoak
 haientzat tonto alenak
 politikaren hitz haundietan
 enteratzen ez garenak.
 Gaur radioak kontatu ditu
 Madrileko bonbarenak³⁴
 eta bonbaren kean artean
 ekartzen dituzte trenak.

A.M. Peñagarikano: Guk bizipoza gaur baino askoz
 gehiago genun aintzinan.
 Trena nun egin erabakitzen
 Madrileko ofizinan;
 Eskabadorak eta posteak
 orain edozein iskinan...
 Atxurrarekin genbiltzan arte
 lasaiago bizi ginan!

J. Maia: Ni ados nago zure kezkaikin
 ai Anjel Mari maitea!
 Gure txikian egingo degu
 baserrian gerratea;
 trenak ta hainbeste etxe industrial
 lurra horrela jatea
 ta gero nahiko dute ganaua
 larrekoa izatea.

X. Paya

Gaia: Nola hartu dute txapela etxean?

Neurria: zortzi puntukoa

Doinua: *Baserrian jaio nintzan / Habanera*

Luzean azaldu nahi dot
 finalaren abentura:
 negar ta barre egin dot
 txapel baltzaren kontura;
 gero be kostatu jata
 hurreratzea zentzura
 baina azkenik horren normal
 realidadea heldu da,
 Itxasok ze pentsau eban
 iminiko zan gustura;
 hor nonbait ikusi dot lehen
 esan ez bajatzu ardura.
 Antza bera animau zan
 parrera eta oihura;
 guztiek entzun zenduen
 itsas sirena modura.

Itxaso pozik egoan
 ondo dago *vaya, vaya*
 baina ondoan egoan Fredi
 laguna eta etsaia.
 Bere helburua izan zan
 mende hartzea Bizkaia
 eta neuk erantzun neutzan
 “Aizu! *¡Anda ya, anda ya!*”.
 Bera seigarren lotuta
 ez zan aurpegi alaia
 baina oster a etxean
 ze hizketaldi lasaia;
 hain pozik ez zan geratu
 zapatu hartan Fredi Paia
 baina erabat poztu zan
 behintzat Xabiren anaia.

(34) Goizean bonba-auto bat leherrarazi zuten Madrileko Barajas aireportuan.

Ta aitak Brujas aldetik
 eukon bere karabela;
 artean ola hartan ni
 bere bigarren batela...
 Txapela ikusi orduko
 hartuz sorpresa itzela
 igerri zan haren seme
 bere izen banintzela;
 ama omendu neban bai
 pentsatuko dau horrela
 baina hemendik erantzun
 behar deusat hari bela:
 ama omendu nahi neban
 Andonik BECen bezela;
 ez arduratu hurrengoan
 zeuretzako da txapela.



*Bizkaiko Bertsolari Txapelketa
 (Bilbo, 2006-12-18)*

Argazkilaria: N. Moreno

HERNANI (2006-12-30)

*Bertsolariak: A. Rezola, J. Sorozabal,
 A. Arzallus, S. Colina, J. Uranga eta J.M. Irazu.*

Gai-emailea: Gorka Tolosa.

J.M. Irazu-S. Colina

Gaia: Zuek biok oso ezagunak zarete Euskal Herrian. Olentzero bana zarete. Denek pentsatzen dute Olentzero bakarra dagoela, baina Zarauzko peajea bat baino gehiago egoten dira. Gaur ere egunak argitu du eta bart bezala zaudete, geldirik, baina behintzat bertsoak kantatuz eguna pasatzen duzue.

Neurria: zortziko handia

Doinua: *Kantore berri xarmant batzuek*

S. Colina: Peaje baten jarri gintuzten
 kaikua eta txapela.
 Aho ertzean pipa erreaz
 ezin zitekeen bestela;
 askoren ustez hementxe gaude
 bi estatua bezela
 eta jendeak pentsatu ohi du
 gu obren parte garela. (bis)

J.M. Irazu: Gu obren parte ote geran bai
batek hala nabari du.
Urtea ia azkenetan da
zorianaren testigu
baina ez gera normal-normalak
nahiz izan bi edo hiru
guri jendea pasa ahala
poltsa bete egiten zaigu. (bis)

S. Colina: Eta kotxeak aurretik doaz
igaro eta igaro;
batzuek mantso eta besteak
inoiz baino azkarrago.
Nahiz Olentzero ipintzen duten
Gabonetan aroz aro
aurretik pasa ohi direnentzat
erregalorik ez dago. (bis)

J.M. Irazu: Erregaloe sei euro dira
eta onartu beharko;
bide polita obrarik gabe
Zarauztikan Bilborako.
Lehen hiru ginan orain bi gaude
hementxe gaudenak bapo
Guardia Zibilek eraman zuten
sospetxosoa zalako. (bis)

S. Colina: Sospetxosoa zan bestea ta
eraman zutenez hola
guri borborka jarri zitzaigun
pipa punta ta odola.
Peajeari heldu zaiozu
lagun inundik inola
berriro ere jarri baitute
Guardia Zibilek kontrola. (bis)

J.M. Irazu: Ertzainak ere ibiltzen dira
denetik dago hau marka!
Eta burua altxatu behar
aldamenetik pasata.
Trafiko astuna ze kotxe pila
kolak'e ez dira falta;
guk egunero ikusten degu
erregeen kabalgata. (bis)

J. Sorozabal-A. Rezola

Gaia: Jokin senarra eta Agin emaztea zarete. Biok taberna batean
sartu zarete. Tragoa eskatu eta berehala senarra makina
txanponjalera hurbildu da emaztea bakarrik utzita. Emazteak
barran kafesnea edan du, eta senarrarengana hurbildu da goxo
antzer.

Neurria: zortziko handia
Doinua: *Zeru altuan zegoen Jaunak*

A. Rezola: Nere kafesne bat hartu det ta
zuk berriz zure tragoa
ta igandero bezela zoaz
makina horren ondo;
adizu Jokin badet zurekin
hitz egiteko gogoa:
nere ahotsa ez al da *klink-klink*
hoi baino goxoagoa?

J. Sorozabal: Arrazoi dezu zure ahotsa
polita da gehienian
baina makinan jokatzten det nik
tabernan nabilenian;
suerterik bada honek'e *klink-klink*
egiten du azkenian
zu'ri ahotsa aldatzen zaizu
hoi entzuten dezunian.

A. Rezola: Ene senarrak hola hitz egin
behar al dit alafede!
Txanponen joku horretan nahiz ta
ibili ohi zeran trebe
zure ahotsa ene maitia
sarri ez det egiten nere;
ez dakit inoiz zure ahotsa
aldatzen ote dan ere.

J. Sorozobal: Nere ahotsa berdina omen da
eskasa edo ustela...
dudik ez dago bere onenak
aspaldi eman zituela.
Bakoitzak bere diruarekin
bete behar du papela
eta neurea gastatu nahi det
nik nahiko nukeen bezela.

A. Rezola: Zuri dirua zuk gastatzea
lasai edota urduri
inportik ez dit nahiz ta ardoa
alkandoratik isuri;
baino afaria diru horrekin
prestatutzekotan zuri
afaldu behar dira hiru limoi
edota hiru marrubi.

J. Sorozobal: Oraingo hontan izurratu dit
gaur iluntzerako plana;
hain zuzen hori ez da izango
neure buruan neukana.
Zenbaitek badu loteriakin
suerte hartzeko afana;
azken batean Estatuari
ematen diogu dana.

A. Rezola: Hogeita hamar urte ezkondu
hogeita beatzi aldrebes...
Zure izaera kanbiatzia
kostatu behar zait nekez.
Estatuari dirua eman
omen diot nik'e errez;
zuk'e norbaiti emango zenion
andreari behinipin ez.

J. Sorozobal: Estatuari dena emateak
neri ematen dit mina
ta ikusten det zeure aldetik
nola dagoen ezina;
hila joan eta hila etorri
kartera gordin-gordina...
nahiago nuke diruagatik
hasarretuko bagina.



*Santo Tomas eguna
(Donostia, 2006-12-21)*

Argazkilaria: O. Aranburu

**BAT-BATEKO
SARIKETAK**

V. ABRA SARIA

GETXO (2006-02-25)

*Bertsolariak: I. Guridi, A. Martin, B. Vidal,
J. Soto, X. Murua eta B. Gaztelumendi.*

Gai-emailea: Josu Esnaola.

Algortako Bertsolari Eskolak antolatzen du sariketa hau. Aurreko urteetan bezala, Andres Isasi musika eskolan izan zen, arratsaldean.

B. Gaztelumendi

Neurria: zortziko txikia

Doinua: *Xarmangarria zera I*

J. Esnaola: Asteburutan kentzen
 dugu tentsioa;

B. Gaztelumendi: gertu etortzen zaigu
 sarri bizioa;
 hori izaten degu
 guk afizioa
 noizbait etorri arte
 bere lezioa.

J. Esnaola: Kalimotxoak dena
konpondu dezake;

B. Gaztelumendi: bueno gibela utzi
dezagun aparte.
Sarri edaten dugu
guk nazkatu arte
ohartu gabe egin
dezakeela kalte.

X. Murua-B. Gaztelumendi

Gaia: Zuen ezkontza eguna da eta aldarean zaudete. Beñat, zuri
galdetu dizu apaizak ea maite duzun Beñat, eta baietz erantzun
duzu; Xumairi galdetu dionean, ordea, ezetz esan du.

Neurria: sei puntuko motza

Doinua: *Aresoarren bandera / Aizak hi mutil mainontzi*

X. Murua: Elkarrekin hamar aste
pasa'itugula dut uste
baina oraindik gira eroak
oino biak gazte.
Ez zaitela jarri triste
“Bai” ala “Ez”aren eske;
bai, maite zaitut baina ez uste
nuen bezainbeste. (bis)

B. Gaztelumendi: Ausartu zera kolpera
duda-mudatan sartzera;
lehen aurrera jo nahi zenuen
ta orain atzera.
Bi malko zaizkit atera
ta pestatu det osterata:
nere soineko hau baino askoz
txurigua zera.(bis)

X. Murua: Nahiz koloreak nahasi
ez baitu egiten grazi
gaurko honetan baietza ez duzu
lagun irabazi.
Ni ez naiz tronpatu kasi
hau bainuen ikasi:
gaizki bukatu baino hobe da
batere ez hasi. (bis)

B. Gaztelumendi: Nik beti zaitut laguna
ta orain berriz kuttuna;
beldurra al da dena zalantzan
ipintzen dizuna?
Jantzi zazu erantzuna
eman baietz erantzuna
beldurra baino fuerteagoa
baita maitasuna. (bis)

X. Murua: Ez dizut eginen kasu
buruaren jabe nazu;
erabakia ez-a da eta
ez da bai-a aizu;
ez dizut emanen musu
geratuko zaizu usu
eta benetan maite banauzu
ulertuko duzu. (bis)

B. Gaztelumendi: Ustez hainbeste maitasun
eta orain hainbat zentzun...
Dirudienez nere esanik
ez dezu nahi entzun.
Zuk zer egin behar dezun?
Ezetz didazu erantzun;
hor ikusten da Xumai zuk zenbat
maiatzen ninduzun. (bis)

ERNIARRAITZ SARIKETA

AZPEITIA (2006-02-24)

*Bertsolariak: Beñat Lizaso, Beñat Gaztelumendi,
Alaia Martin, Iñaki Apalategi, Unai Muñoa eta
Alaitz Sarasola.*

Gai-emaile: Jokin Uranga.

*Betarramistak arteoan izan zen, gaueko hamarrak eta laurdenean
hasita. Berrehun entzule inguru elkartu ziren; sarrera bost euro.*

B. Lizaso-B. Gaztelumendi

Gaia: Zuek erietxean topo egin duzuen bi emakume zarete. Begi bana
duzue ubeldurik.

Neurria: zortziko handia

Doinua: *Haize hegoak hurbiltzen ditu*

B. Lizaso: Berrogeita bi urte jadanik
senarrarekin bizitzen;
guk egunero hamaika irri
ta beti alkar maitatzen.
Atzo gauean ordea gauza
arraro bat pasatu zen:
argia joan zan etxean eta
lurrera erori nintzen. (bis)

B. Gaztelumendi: Nik'e aitzakia bezela hartu
izan det argiarena
baino gezurra esan biharrak
azkenian eman pena.
Senarrak eman dit neri mina
ta hori ez da txarrena:
okerrena da ez naizela ni
laguntza behar duena. (bis)

B. Lizaso: Ubeldurikan daukat begia
ta bi hankak mailatuak;
esan nahi ditut gure etxean
izan diran pekatuak:
estropozu bat egin nuen bart
orduaz ziren kontuak...
Edozein toki dauka ohetzat
katu madarikatuak! (bis)

B. Gaztelumendi: Katua aipatu ta ez dezu esan
egia dioen hitzik.
Jarrera hortan zuk ez daukazu
lagunduko dizun gauzik.
Nik'e etxean aizu badaukat
izatez katu bortizik
ta kilimarik ez dit egiten
muturrekoak jo baizik. (bis)

B. Lizaso: Beraz katua basati dabil
hargatikan zaude kexu.
Aizu gizonak jo egin zaitu
itxura hori daukazu;
sendatu nahian ospitalera
nere albora zatoz zu;
nere laguntza behar badezu
ondoan izango nauzu. (bis)

B. Gaztelumendi: Ta jakin zazu horregatikan
esker onez naukazuna;
utzi itzazu zurikeriak
hartu ezazu zentzuna!
Ospitaletik epaitegira
zatoz nerekin laguna
botika ordeztu gaixotasun bat
delako isiltasuna. (bis)

I. Apalategi

Gaia: Zure lagun taldean bada bat beti bakarrik dagoena; nahiko
baztertuta dago. Gaur larunbat gaua, berarekin irtetea erabaki
duzu.

Neurria: hamarreko handia
Doinua: *Lurraren pean sar nindaiteke*

Gantzez beteta goraino daude
zure sabel eta lepo;
granoz josita aurpegia ta
hain lodi bi betaurreko.
Baina gogorik ez det gaurkoan
bakar-bakarrik uzteko.
Erabakia hartu det gauez
zure moralai eusteko;
zuk ere zerbait eukiko dezu
bestei erakusteko. (bis)

Sarri saiatu izandu zera
lagun diferenteekin
baina guztiek alde egiteai
azkar ohi diote ekin.
Gaur elkartu naiz zurekin eta
geratu zaitez nerekin;
ta beste inork'e nahi ez badu
zugatik ezer'e jakin
biok bakarrik egongo gera
baina biok elkarrekin. (bis)

Bazter batean beti bakarrik
hau da zure panorama
ta gaur batera larunbatean
bagoaz tabernan barna;
gaur burutikan kendu didazu
lehen jartzen zizuten fama
ta ikusten det denok degula
barrenean gure xarma;
atera zazu zurea eta
goazen beste denengana. (bis)



*Bertsolari gazteen BBK sariketea
(Bilbo, 2006-03-10)*

Argazkia: BBK

XXXV. OSINALDE SARIA

GABIRIA (2006-04-08)

*Bertsolariak: I. Urdangarin, A. Barandiaran,
A. Oiartzabal “Xamoa”, A. Lizarralde,
A. Martin eta B. Gaztelumendi.*

Gai-emailea: Jokin Murua.

Osinalde Elkartean urtero jokutzen den saria. Ohi bezala, aretoa entzulez beterik, eta bertsotan egiteko giro bikaina. Bertsolariek mikrofonorik gabe kantatzen dute, baina mikrofono behar handirik ez dute izaten, jende asko egon arren isiltasun erabatekoa sortzen bata bertsolaria kantuan ari denean.

I. Urdangarin-A. Lizarralde

Gaia: Zu, Ander, andamio gainean lanean ari den langilea zara. Iban, berriz, begira dagoen jubilatua.

Neurria: zortziko txikia
Doinua: *Dama gazte xarmant bat*

I. Urdangarin: Holako ikusmira
hara oraindikan!
Arren ez zazu hartu
eroita minikan!
Zuzen ez dezu jartzen
zuk ladrilurikan;
gaurko gazteek ez dute
pulamenturikan! (bis)

A. Lizarralde: Aldamiua gaizki
ipinia dela;
ladriloa hola ez
jartzeko horrela;
masa hola ez da egiten
eiten da bestela...
Ez al zenun lan egin
langile zinela? (bis)

I. Urdangarin: Errespetoan ere
zabiltza alrebes
baina hori bai aurretik
zuzen eta legez;
traje preziatuak
kasko eta arnes...
preparatibo asko
pulamenturik ez! (bis)

A. Lizarralde: Denborarik ez al'zu
musian galtzeko?
Lehendik ere etorri da
asko zure antzeko.
Esan dit horrela ez
hola dago hobeto
talenturik ez dunak
zutik egoteko! (bis)

I. Urdangarin: Hala ere zabiltza
itxura alaietan
aldamiora igota
hain postura zailan;
masa ta ladrilukin
zerbait egin nahian...
goseak hilko zinen
Francoren garaian! (bis)

A. Lizarralde: Beti zaharrak gaztetan
 bazuen sasoia
 baino iristerako
 etorri herdoia.
 Nahiz gaizki egin dudan
 etxe honen goia
 gustora egingo nuke
 zure panteoia! (bis)

A. Oiartzabal

Gaia: Zure ordenagailura gazte koadrila bat beste mutiko bat jipoitzen ari den bideoa iritsi da.

Neurria: hamarreko handia
Doinua: *Euskal Herriko lur maite hartan*

Hartzen ari den jipoiak behintzat
edukiko du nibela;
agian bihar aterako da
gizajoaren eskela.
Hau da gizarte harrigarria
hau da gizarte ustela!
Nahiz eta denok pentsatzen dugun
gu geu izan gintezkeela
begira gaude pelikula bat
izango balitz bezela.

Ukabilkadaz ukabilkada
dibertitzea da xede;
bost baten kontra jarri ezker
moldatu ohi gara trebe.
Hau denontzako dugu kaltera
ez da inoren mesede;
hau egin dunak nahiko delitu
badu baina alafede
beste hainbeste delitu badu
bidali didanak ere!

XXX. LIZARDI SARIA

ZARAUTZ (2006-09-02)

*Bertsolariak: X. Murua, O. Aizpurua,
A. Lizarralde, A. Rezola, U. Muñoa eta
I. Urdangarin.*

Gai-emailea: Arantxa Laskibar.

Zarauzko Zinema pilotalekuan izan zen, gaueko hamarretan hasi-
ta. Entzule asko elkartu zen eta giro polita sortu. Hamasei bertsolarik
parte hartu zuten filanera sailkatzeko egin ziren bi kanporaketetan.

A. Lizarralde-A. Rezola

Gaia: Ama-alabak zarete, Ander ama eta Agin alaba. Egunero bezala
paseatzera atera zarete, baina gaur Agin alabak aitorpen bat
egin dizu: tratu txarrak jasotzen ditu.

Neurria: zortziko handia
Doinua: *Ludi bizitza abesti gozoz*

A. Lizarralde: Egunen baten ilun ikusi
 ez dezazun iragana
 kontatu zazu zure barruan
 konta alaba otsana;
 kontatu zazu begi aurrean
 ikusi ez dudana drama;
 aita ez dakit zertako baina
 entzuteko dago ama.

A. Rezola: Ez ama, aita ez da izan ta
zu lasai amatxo maite;
dibortziatu zinaten baina
zukin bizi naiz gaur arte.
Behean badaude portuges batzuk
larrutzen naute jo ta ke;
razista ez det izan nahi baina
behartu egiten naute.

A. Lizarralde: Lehenengo gauza zuk behar duzu
behe horretatik aldendu
ta polizian denuntzia jarri
eta gerora mantendu.
Baina nik nola ez dudan soma
ezin dut burutik kendu;
alaba batek sufritzen badu
amak ere sufritzen du.

A. Rezola: Hamahiru urte ta ikastolara
joan nahi det zuzen-zuzen
baina portala zeharkatzera
ere ez naiz atrebitzen.
Amak sufritzen dula diozu
maitakortsu eta ozen
baina kulero arroxik zuri
haik ez dizute usaintzen.

A. Lizarralde: Kanpotar hoiek ez dute ematen
hemen ez gerra ez pake;
ezetz esaten badiezu zuk
saiatzen dira jo ta ke.
Etorri zaitetz aman ondora
laztanduz nahi zaitut maite;
alaba baten orbainak soilik
amak sendatu ditzake.

A. Rezola: Ez dakit orain zu eta biok
besarkatu ahal gaitzkeen
nahiz ta hotzean mehatxurikan
zugan ez dedan ikusten
portuges harek besarkatzen nau
ta joaten ez dit uzten
ez dakit orain jakingo dedan
maitasunikan bereizten.

A. Lizarralde

Gaia: Mahaia

Neurria: hamabiko handia

Doinua: *Haizea dator ifarraldetik*

Nahi duen harek sekula santan
ez du borondate txarrik;
orain artean beste aldera
begira daude alperrik
baina saiatu ezean inoiz
ez da egiten okerrik
bizitu dugun hau ez dulako
bizitu hainbeste herrik.
Azpijokoan betikoak ta
ez zaigu falta ankerrik
baina mahai bat ezin da eutsi
bi hankarekin bakarrik.

Beti agintzen dauden pertsonak
ez ditugu egokiak:
sendatu partez zaleak dira
nola egin ebakiak.
Bik nahi badute agudo hartu
daitezke erabakiak
ta hortik aurrera esandakoak
denak dira aitzakiak.
Lapur zikinez besterik hemen
ez dira bete tokiak
mahaiatz hizketan dabilta baina
non gorde dira aulkiak?

Udara lasai utziko dugu
iraila heldu da jada;
utzi ta utzi azkenerako
hau hilabete ilada!
Agian nahirik ez dagolako
izango da beharbada;
diruarekin soilik sortu ohi
zaie eskutan dardara.
Bultza dezagun denok batera
herria baldin bagara;
hemen mahairik ez dugu behar
hemen hizketa behar da.

A. Rezola

Gaia: Mahaia

Neurria: sei puntukoa

Doinua: *Ligoi bizitza ez da izaten*

Esaten dute pasa dirala
momenturik gogorrenak
baina askotan ez du barkatzen
hemen denboraren trenak;
batzutan bide okerrak dira
eta gutxitan zuzenak
baino prest gaude gehienak. (bis)
Mahai bat osatu behar degula
nahiz eta dion barrenak
mahai horrek hanka gutxitxo dauzka
eta dauzkanak herrenak. (bis)

Alperrik galdu dira gaur arte
hamaika aukera ear:
Arjelekoa Garazikoa
jadanik gelditu da zahar;
ta orain degun bidea ere
nahiz ta dagon ilun samar
ez al da aukera bakar? (bis)
Nahiz ta dituen hanken gainean
nik hitz egin dedan azkar
mahaiain gainean jartzen dutenak
egingo du on edo txar. (bis)

Nahiz konfidantza haundiegirik
ez dedan nik askorengan
nahiz konfidantza eskatze'utenek
lagun asko sartu ziegan
baina konpondu behar omen da
gaur egun dioten eran;
batzuen ustez primeran. (bis)
Nik ere danak eseritzea
nahiz ta nahi nukeen aukeran
iruditzen zait aulki bat edo
beste badala soberan. (bis)

XENPELAR SARIA

Finala

ERRENTERIA (2006-12-08)

*Bertsolariak: U. Alberdi, B. Gaztelumendi,
U. Muñoa, O. Bartra, A. Lizarralde eta
A. Oiartzabal.*

Gai-emailea: Kepa Esnaola.

Azken urteotan bi urtez behin jokutzen den Xenpelar Sariaren finala, ohikoa denez, abenduaren 8an jokatu zen, arratsaldeko sei-etan, Erreterria Hiria kulturgunean, berrehun entzule aurrean zirela. Bi kanporaketa saio jokatu ziren, abenduaren 1ean eta 5ean, finaleko seikotea zein izango zen erabakitzeko.

U. Alberdi-B. Gaztelumendi

Gaia: Zu, Uxue, duela zortzi urte Beñat aztiarengana joan zinen, etorkizunean zer gertatuko zitzaizun jakin nahian; eta dena asmatu zuenez, orain ere harengana jotzea erabaki duzu.

Neurria: zortziko handia

Doinua: Haize hegoak hurbiltzen ditu

U. Alberdi: Asmatu zendun examinar txar bat
ta amonaren eskela
hanka haustea eta ondoren
gaixotasun bat itzela;
gaur berriz hona nator aztia
tokatzen zaidan bezela
baina esaidazu gaurtik aurrera
dena ona izango dela. (bis)

B. Gaztelumendi: Dena ona edo guztia txarra
zer ajola dio tira?
Dagokidana esango dizut
nik egiaren neurria.
Jarri gaitzen ea kristalak
zer ote dion begira;
barka, bolari manta kentzea
hogeita bost euro dira. (bis)

U. Alberdi: Ba har itzazu zuk hogeita hamar
neretzako ez da traba
ni modukoak etorkizun
menpeko hutsak baikara.
Beste gauza bat jakin nahi nuke
nahiz eta sortu ikara:
noiz hilko naizen jakin nahi nuke
baina asko falta bada. (bis)

B. Gaztelumendi: Lehenik eta behin afarietan
ibili ohi zera bero;
ta txapelketak iritsi eta
badezu nahiko endredo:
“Noiz hilko naiz ni? Ni noiz hilko naiz?”
galdetzen didazu bero;
bueno bastante iraungo dezu
bertsoak utzi ezker. (bis)

U. Alberdi: Bueno orduan etorkizuna
nik daukat nahiko itzela;
zuk badakizu bertso saiotan
txintxo ibiltzen naizela.
Ta beraz azken galdera daukat
gaur tokatzen den bezela:
esan gaur zeinek jantziko duen
Xenpelarreko txapela. (bis)

B. Gaztelumendi: Izan daiteke Uxue edo
izan daiteke bestea
baino edonor izanda ere
ez zaite jarri tristea;
nahiko zenuke irabazlea
nor ote den ikustea;
ez al da hobe nik esan gabe
bizitzak erakustea? (bis)

U. Alberdi

Gaia: Saharatik aurten uda pasatzera etorri zaren haurra zara. Gaur da
egonaldiaren azken eguna.

Neurria: sei puntukoa
Doinua: *Gure herri tiki hau da*

Saharan hain da haundia
gosetearen itzala
nire osasuna nuen
ahula eta makala;
baina sendi bat topatu
hain sendi eskuzabala;
ni egoki ta ondo zaintzen
egin dute eginahala;
nire amatxok sentitu nau
semea banintz bezala
ta orain badakit nik behintzat
bi amatxo dauzkadala. (bis)

Egia esan famili hau
neri iritsi zait barrura
eskuzabaltasun horrek
sortua baitit lilura;
beraintzat ematea
bihurtu baita ohitura;
baina agur esateko
garaia ere heldu da.
Beraz agur familia
ni banoa desertura
malkoek lurrari ona
iten dioten lekura. (bis)

Banoa ta nago berriz
lurra ikusteko aiduru.
Euskal Herrian pasa dut
hilabete bat inguru;
guztia eman didate
eskuz esku buruz buru...
Nik ta nire familiak
beti eskertuko dugu.
Halere gustora noa
han ondo nago seguru;
hemen ez dauden beste hainbat
gauza on ere baditugu. (bis)



*Hernandorena saria
(Aiherra, 2006-12-09)*

Argazkilaria: Iparraldeko Bertsularien Lagunak Elkarte

II. HERNANDORENA SARIA

AIHERRA (2006-12-09)

*Bertsolariak: B. Gaztelumendi, M. Arzallus,
X. Murua, A. Lizarralde, M. Amuriza eta
J.A. Aranburu.*

Gai-emailea:

Iparraldeko Bertsularien Lagunak Elkartean antolatzen du sariketa hau. Aurreko asteetan hiru kanporaketa jokatu ziren finalean nork kantatuko zuen erabakitzeko.

B. Gaztelumendi-J.A. Aranburu

Gaia: Hilabete pasatzeko asmoz Latino Ameriketako herri batera joan zareten bi lagun. Zu, Beñat, han hilabete pasa eta itzultzea pentsatu duzu. Zuk, aldiz, Joxe Anjel, han geratzea erabaki duzu.

Neurria: zortziko handia

Doinua: *Haize hegoak hurbiltzen ditu*

B. Gaztelumendi: Uda haseran bidea hartu
nuen Argentinarako
baino bukatu bukatu da ta
etxera juan biharko;
nere etxian nere ohean
hola ibiltzen naiz bapo
toki guztitan dagoen hori
inungua ez dalako. (bis)

J.A. Aranburu: Txango eder bat egin genduen
indigenengana edo;
hemen ikusi dedan guztia
ez nuen asko espero!
Hauek zer jana lortzen ez dute
erreza ez egunero;
nungua naizen ez zaie inporta
pixkat lagundu ezkerro. (bis)

B. Gaztelumendi: Dirudienez indigena hoiek
badute nahiko bertute
zure herria ahaztu baitez
maitasun pixkaten truke;
indigenekin gustora zaude
bueno hala dezu uste
baino zer janik ez duten hoiek
burua jan al dizute? (bis)

J.A. Aranburu: Ur ponpa zahar bat konpondu nuen
ur pixkat eramateko
ta andre horri lagundu nion
haurrei ematen jateko.
Burririk ez dit neri inork jan
bateko edo besteko;
zerbait lagundu diet nik baino
dena dago egiteko. (bis)

B. Gaztelumendi: Ta egin gabe dagoen hori
egin nahi dezu hala're;
amona bati laguntzen edo
gustora jardun zerade;
ponpa bat ere konpondu dezu
nunbait baitzagoen grabe...
Hemen badago zer konpondua
Amerikara jun gabe! (bis)

J.A. Aranburu: Gure herrian nunahi daukate ospitala ta eskola;
ez konparatu herri honetan ez dira-ta bizi hola.
Etxera itzuli behar badezu ez zait askorik ajola;
nere amari muxu bat eman ta esan ondo nagola. (bis)

M. Arzallus-B. Gaztelumendi

Gaia: Zu, Maialen, euskaltegian euskara ikasten ari den Senegalgo etorkin gaztea zara. Gaur, eskola bukatu ostean, Beñat irakaslearengana joan eta hau esan diozu: “Zurekin maiteminduta nago”.

Neurria: zortziko txikia
Doinua: *Kantatzera nijoa*

M. Arzallus: Ni naiz neska zintzoa
ikasle formala
baina euskaraz ez dakit
da gauza normala;
baina adierazi
nahi nizuke hala:
nola esan nezake
maite zaitudala? (bis)

B. Gaztelumendi: Gogoz egiten dezu
aizu berriketa!
Nahiz euskerakin jardun
jira eta buelta
aurreratzea ez da
hain ona tarteka
azterketan galdetu
bihar nizun eta. (bis)

M. Arzallus: Azterketak izaten
ditugu guk usu
baina alde batera
utzi behar dituzu;
hitzeekin esatea
zaila denez aizu
nere muxu batekin
ulertuko duzu. (bis)

B. Gaztelumendi: Odola jarria zait
neri irakiten;
ikasleek ez dute
hain sarri ekiten.
Nahiz euskeraz ez dezun
hain ondo jakiten
gutxinez ona zera
pelota egiten. (bis)

M. Arzallus: Nere hitzak neduzkan
barruan gordeta
baina utzi dezagun
behingoz berriketa;
buena isilduko naiz
asmatu du eta.
Baina gaindi zaidazu
nere azterketa. (bis)

B. Gaztelumendi: Zu eskian ez hasi
egizu mesede;
muxu eman didazu
hementxe xeibre;
“o” gorri bat pintatu
dezu alafede;
joño zuk jarri dezu
zure nota ere! (bis)

SAIOEN AURKIBIDEA

Data	herria	bertsolariak	or.
2006-01-07	Amurrio	U. Iturriaga, A. Egaña	57
2006-01-07	Zumaia	U. Gijarro, U. Gaztelumendi, M. Amuriza, J. Zelaieta, B. Lizaso	60
2006-01-08	Oiartzun	M. Lujanbio, A. Arzallus, X. Silveira, J. Martin, A. Arzallus	65
2006-01-14	Azkoitia	A. Egaña, A. Agirre, J. Uranga	73
2006-01-21	Alegia	A. Mendiluze, A. Agirre	77
2006-01-28	Donostia	Mañukorta, K. Lizaso, T. Garmendia, J. Lizaso, P. Etxeberria, J. L. Gorrotxategi, I. Lazkano, J. Agirre	81
2006-01-28	Donostia	J. M. Irazu, X. Silveira, U. Iturriaga, J. Maia, M. Lujanbio	91
2006-01-29	Zeanuri	E. Intxaurraga, A. Egaña, I. Elortza	99
2006-02-04	Zestoa	S. Lizaso, A. Egaña	102
2006-02-11	Beasain	X. Amuriza, A. Egaña	106
2006-02-11	Lezo	A. Agirre, I. Gurrutxaga	111
2006-02-17	Legazpi	U. Iturriaga, M. Lujanbio	114
2006-02-18	Bergara	J. Agirre, A. Arzallus	120
2006-03-03	Zaldibia	A. Arzallus, A. Egaña, I. Murua	126
2006-03-10	Zegama	I. Zubeldia, A. Arzallus, S. Colina	129
2006-03-17	Azpeitia	J. Maia	132
2006-03-18	Zestoa	J. Uranga, S. Lizaso S. Colina	134
2006-03-19	Igorre	I. Elortza, A. Arzallus, S. Lizaso, J. Maia	138
2006-03-26	Mendexa	A.M. Peñagarikano, S. Lizaso, I. Elortza, S. Colina	143
2006-04-01	Elizondo	X. Silveira	148
2006-04-02	Zegama	I. Elortza, U. Iturriaga, M. Lujanbio, A. Egaña	150
2006-04-28	Abadiño	S. Colina, A. Mendiluze	153
2006-05-07	Durango	A. Mendiluze, U. Iturriaga, A. Egaña, M. Lujanbio, I. Elortza	156
2006-05-27	Gasteiz	Z. Enbeita	163

2006-06-17	Arrasate	J. Labayen, U. Iturriaga, I. Ibarra	164
2006-06-26	Hernani	S. Lizaso, M. Lujanbio	168
2006-06-29	Lasarte-Oria	P. Etxeberria, A. Otamendi, A. Arzallus, M. Lujanbio, J.M. Irazu, A. Egaña	170
2006-07-01	Usurbil	J. Soroazabal, J.M. Irazu, M. Lujanbio	176
2006-07-02	Dima	A. Mendiluze	180
2006-07-07	Mungia	B. Ugartetxea, Mañukorta	182
2006-07-09	Lezama	S. Colina, I. Elortza, A. Arzallus, E. Lekue	184
2006-07-30	Altzo	U. Iturriaga, A. Sarriegi	186
2006-08-20	Bilbo	A. Agirre, I Elortza	190
2006-08-26	Bilbo	J. Uranga, S. Lizaso, A.M. Peñagarikano	193
2006-09-02	Hondarribia	S. Colina, J.M. Irazu, J. Maia, A. Egaña	197
2006-09-09	Ordizia	M. Lujanbio, B. Gorostidi, I. Apalategi	202
2006-09-15	Lazkao	S. Lizaso, A. Egaña	207
2006-09-16	Muxika	J. Enbeita	210
2006-09-23	Oñati	A. Mendiluze, A. Arzallus	212
2006-09-29	Loiu	S. Colina, X. Paya, E. Lekue	216
2006-10-07	Errenteria	A. Goikoetxea, J.M. Irazu	222
2006-11-09	Iruñea	M. Lujanbio, A. Arzallus	225
2006-11-10	Basauri	A. Egaña	228
2006-11-17	Legazpi	I. Zubeldia, S. Colina	230
2006-11-24	Donostia	M. Lujanbio, U. Iturriaga	233
2006-12-01	Bilbo	X. Amuriza	238
2006-12-03	Bera	X. Silveira, M. Lujanbio	240
2006-12-08	Markina-Xemein	M. Arzallus, A. Arzallus, M. Amuriza, X. Amuriza	243
2006-12-09	Zumarraga	U. Iturriaga, I. Zubeldia, S. Lizaso, A. Arzallus	247
2006-12-16	Bilbo	X. Paya	251
2006-12-25	Larrabetzu	A. Estiballes, I. Elortza, X. Paya	252
2006-12-30	Durango	J. Maia, A.M. Peñagarikano, X. Paya	256
2006-12-30	Hernani	J.M. Irazu, S. Colina, J. Soroazabal, A. Rezola	261

Bat-bateko sariketak

Data	herria	bertsolariak	or.
2006-02-25	Getxo	B. Gaztelumendi, X. Murua	269
2006-02-24	Azpeitia	B. Lizaso, B. Gaztelumendi, I. Apalategi	272
2006-04-08	Gabiria	I. Urdangarin, A. Lizarralde, A. Oiartzabal	276
2006-09-02	Zarautz	A. Lizarralde, A. Rezola	279
2006-12-08	Errenteria	U. Alberdi, B. Gaztelumendi	284
2006-12-09	Aiherra	B. Gaztelumendi, J.A. Aranburu, M. Arzallus	288

BERTSO HAUTATUAK

www.bertsozale.com

1. 2006-01-07	Amurrio	U. Iturriaga, A. Egaña	57
2. 2006-01-08	Oiartzun	M. Lujanbio, A. Arzallus	65
3. 2006-01-08	Oiartzun	A. Arzallus	71
4. 2006-01-28	Donostia	Mañukorta, K. Lizaso, T. Garmendia	81
5. 2006-01-28	Donostia	J. Lizaso, P. Etxeberria, J.L. Gorrotxategi	83
6. 2006-01-28	Donostia	I. Lazkano, J. Agirre	86
7. 2006-01-28	Donostia	J. Maia, M. Lujanbio	95
8. 2006-02-04	Zestoa	S. Lizaso, A. Egaña	102
9. 2006-02-11	Beasain	X. Amuriza, A. Egaña	106
10. 2006-02-11	Lezo	A. Agirre, I. Gurrutxaga	111
11. 2006-02-17	Legazpi	U. Iturriaga, M. Lujanbio	114
12. 2006-02-18	Bergara	J. Agirre, A. Arzallus	120
13. 2006-03-10	Zegama	I. Zubeldia, A. Arzallus, S. Colina	129
14. 2006-03-17	Azpeitia	J. Maia	132
15. 2006-03-19	Igorre	I. Elortza, A. Arzallus	138
16. 2006-05-07	Durango	A. Mendiluze	156
17. 2006-07-01	Usurbil	J. Sorozabal, J.M. Irazu	176
18. 2006-08-26	Bilbo	S. Lizaso, A.M. Peñagarikano	195
19. 2006-09-09	Ordizia	M. Lujanbio	202
20. 2006-09-16	Muxika	J. Enbeita	210
21. 2006-09-23	Oñati	A. Mendiluze, A. Arzallus	212
22. 2006-09-23	Oñati	A. Mendiluze	215
23. 2006-11-09	Iruñea	M. Lujanbio, A. Arzallus	225
24. 2006-11-10	Basauri	A. Egaña	228
25. 2006-11-24	Donostia	M. Lujanbio, U. Iturriaga	234
26. 2006-12-01	Bilbo	X. Amuriza	238
27. 2006-12-16	Bilbo	X. Paya	251
28. 2006-04-08	Gabiria	I. Urdangarin, A. Lizarralde	276

BERTSOLARIEN AURKIBIDEA

Agirre, A.	73 (BI), 77 (GL), 111 (BI), 190 (BI)
Agirre, J.86 (BI), 120 (GL)
Alberdi, U.284 (BI), 286 (B)
Amuriza, M.62 (BI), 245 (BI)
Amuriza, X.06 (GL), 238 (BI), 245 (BI)
Apalategi, I.205 (B), 274 (B)
Aranburu, J.A.288 (BI)
Arzallus, A.65 (BI), 71 (B), 120 (GL), 124 (GL), 129 (GL), 138 (BI), 170 (BI), 173 (PE), 184 (BI), 212 (BI), 225 (BI), 243 (BI), 249 (BI)
Arzallus, M.243 (BI), 290 (BI)
Colina, S.129 (GL), 136 (BI), 145 (BI), 153 (BI), 184 (BI), 197 (BI), 216 (BI), 230 (BI), 261 (BI)
Egaña, A.57 (BI), 73 (BI), 99 (BI), 102 (GL), 106 (GL), 124 (GL), 150 (BI), 158 (BI), 170 (BI), 197 (BI), 200 (BI), 207 (BI), 228 (B)
Elortza, I.99 (BI), 138 (BI), 143 (BI), 150 (BI), 160 (BI), 184 (BI), 190 (BI), 253 (BI)
Enbeita, J.210 (B)
Enbeita, Z.163 (H)
Estiballes, A.252 (B)
Etxeberria, P.83 (PE), 170 (BI), 173 (PE)
Garmendia, T.81 (BI)
Gaztelumendi, B.269 (PE), 270 (BI), 272 (BI), 284 (BI), 288 (BI), 290 (BI)
Gaztelumendi, U.60 (BI)
Gijarro, U.60 (BI)
Goikoetxea, A.222 (BI)
Gorostidi, B.203 (BI)
Gorrotxategi, J.L.83 (PE), 85 (B)
Gurrutxaga, I.111 (BI)
Ibarra, I.166 (B)
Intxaurreaga, E.99 (BI)
Irazu, J.M.91 (BI), 170 (BI), 173 (PE), 176 (BI), 197 (BI), 222 (BI), 261 (B)
Iturriaga, U.57 (BI), 91 (BI), 114 (GL), 150 (BI), 158 (BI), 164 (BI), 186 (BI), 243 (BI), 247 (BI)
Labayen, J.164 (BI)

Lazkano, I.86 (BI)
Lekue, E.184 (BI), 219 (BI)
Lizarralde, A.276 (BI), 279 (BI), 281 (8B)
Lizaso, B.64 (B), 272 (BI)
Lizaso, J.83 (PE)
Lizaso, K.81 (BI)
Lizaso, S.102 (GL), 134 (BI), 140 (BI), 143 (BI), 168 (BI), 193 (BI), 195 (BI), 207 (BI), 249 (BI)
Lujanbio, M.65 (BI), 95 (BI), 114 (GL), 150 (BI), 160 (BI), 168 (BI), 170 (BI), 173 (PE), 178 (B), 202 (B), 203 (BI), 225 (BI), 233 (B), 234 (BI), 240 (BI)
Maia, J.95 (BI), 132 (B), 140 (BI), 197 (BI), 200 (BI), 256 (BI)
Mañukorta81 (BI), 182 (BI)
Martin, J.69 (BI)
Mendiluze, A.77 (B), 153 (BI), 156 (B), 180 (B), 212 (BI), 215 (B)
Murua, I.124 (GL)
Murua, X.270 (BI)
Oiartzabal, A.278 (B)
Otamendi, A.170 (BI), 173 (PE)
Paya, X.216 (BI), 219 (BI), 251 (B), 253 (BI), 259 (B)
Peñagarikano, A.M.143 (BI), 145 (BI), 195 (BI), 256 (BI)
Rezola, A.263 (BI), 279 (BI), 282 (B)
Sarriegi, A.186 (BI), 188 (B)
Silveira, X.69 (BI), 91 (BI), 148 (H), 240 (BI)
Sorozabal, J.176 (BI), 263 (BI)
Ugartetxea, B.182 (BI)
Uranga, J.75 (B), 134 (BI), 136 (BI), 193 (BI)
Urdangarin, I.276 (BI)
Zelaieta, J.62 (BI)
Zubeldia, I.129 (GL), 230 (BI), 247 (BI)

IKURRAK:

- (B): Gaia emanda bakarka egindako saioa.
 (BI): Gaia emanda binaka -edo talde handiagoan- egindako saioa.
 (P): Puntutan egindako saioa.
 (PE): Lehen edo azken puntua emanda egindako saioa.
 (H): Gainerako ariketak
 (GL): Gai librean egindako saioa.

IZEN ETA IZENGOITIEN DESKRIBAPENA

Zerrenda hau, liburuan agertzen diren izen laburdura eta izen-
goitiei dagokio.

Liburuan	Izen deiturak	Herria
Agirre, A.	Amaia Agirre Arrastoa	Villabona
Agirre, J.	Joxe Agirre Esnal	Azpeitia
Alberdi, U.	Uxue Alberdi Estibaritz	Elgoibar
Amuriza, M.	Miren Amuriza Plaza	Berriz
Amuriza, X.	Xabier Amuriza Zarraonaindia	Berriz
Apalategi, I.	Apalategi Astigarraga	Beasain
Aranburu, J.A.	Joxe Anjel Aranburu Jalon	Hernani
Arzallus, A.	Amets Arzallus Antia	Hendaia
Arzallus, M.	Maddalen Arzallus Antia	Hendaia
Colina, S.	Sustrai Colina Akordarrementeria	Urruñia
Egaña, A.	Andoni Egaña Makazaga	Zarautz
Elortza, I.	Igor Elortza Aranoa	Durango
Enbeita, J.	Jon Enbeita Ealo	Gemika-Lumo
Enbeita, Z.	Zigor Enbeita Zugadi	Izarra
Estiballes, A.	Arkaitz Estiballes Ormaetxea	Galdakao
Etxeberria, P.	Patxi Etxeberria Zubiria	Lasarte-Oria
Garmendia, T.	Txomin Garmendia Galartza	Villabona
Gaztelumendi, B.	Beñat Gaztelumendi Arandia	Añorga (Donostia)
Gaztelumendi, U.	Unai Gaztelumendi Arandia	Añorga (Donostia)
Gijarro, U.	Unai Gijarro Iruretagoiena	Zumaia
Goikoetxea, A.	Arkaitz Goikoetxea Arriola	Oiartzun
Gorostidi, B.	Bixente Gorostidi Loidi	Amezketta
Gorrotxategi, J.L.	Jose Luis Gorrotxategi Zangitu	Azpeitia
Gurrutxaga, I.	Iñaki Gurrutxaga Zubimendi	Orio
Ibarra, I.	Iratxe Ibarra Foruria	Markina-Xemein
Intxaurreaga, E.	Eñaut Intxaurreaga	Zeanuri
Irazu, J.M.	Jexux Mari Irazu Muñoa	Larraul
Iturriaga, U.	Unai Iturriaga Zuaza-Artaza	Durango
Labayen, J.	Jokin Labayen Iraeta	Arrasate
Lazkano, I.	Imanol Lazkano Uranga	Azpeitia
Lekue, E.	Etxahun Lekue Etxebarria	Larrabetzu
Lizarralde, A.	Ander Lizarralde Jimeno	Oiartzun
Lizaso, B.	Beñat Lizaso Alberdi	Azpeitia
Lizaso, J.	Joxe Lizaso Mendizabal	Azpeitia

Lizaso, K.	Koxme Lizaso Lekuona	Oiartzun
Lizaso, S.	Sebastian Lizaso Iraola	Azpeitia
Lujanbio, M.	Maialen Lujanbio Zugasti	Hernani
Maia, J.	Jon Maia Soria	Zumaia
Mañukorta	Gregorio Larrañaga Mandiola	Markina-Xemein
Martin, J.	Jon Martin Etxebeste	Oiartzun
Mendiluze, A.	Aitor Mendiluze Gonzalez	Andoain
Murua, I.	Iñaki Murua Jauregi	Gabiria
Murua, X.	Xumai Murua Berra	Azkaine
Oiartzabal, A	Arkaitz Oiartzabal	Oiartzun
Otamendi, A.	Andoni Otamendi	Lasarte-Oria
Paya, X.	Xabier Paya Ruiz	Algorta (Getxo)
Peñagarikano, A.M.	Anjel Mari Peñagarikano	Anoeta
Rezola, A.	Agin Rezola Laburu	Astigarraga
Sarriegi, A.	Aitor Sarriegi Galparsoro	Beasain
Silveira, X.	Xabier SilveiraEtxeberria	Lesaka
Sorozabal, J.	Jokin Sorozabal Ansa	Andoain
Ugartetxea, B.	Beñat Ugartetxea Ostolaza	Mallabia
Uranga, J.	Jokin Uranga Isuskiza	Azpeitia
Urdangarin, I.	Iban Urdangarin Lardizabal	Ataun
Zelaieta, J.	Julen Zelaieta Iriarte	Bera
Zubeldia, I.	Iker Zubeldia Akarain	Zegama